

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

Elucidating Angelman **syndrome**'s molecular mechanisms by identifying the substrates, interactors and counteracting DUBs of UBE3A

NAGORE ELU ARANTZAMENDI

2022

ESKER ONAK

Bidaia oro bezala, amaierara iritsi naiz. Tesi honetan murgildu nintzenean ez nuen inolaz ere pentsatuko horrenbeste bizipen eskainiko zizkidanik, baina halaxe izan da. Ez da izan ikerketa lan huts bat; pertsona, leku eta oroimenez betetako bidaia luze bat baizik, beraz mila esker ibilbide honetan parte hartu duzuen guztioi.

Lehenik eta behin, eskerrik asko Ugo esperientzia hau bizitzeko aukera emateagatik. Pribilegio bat izan da urte hauek zure gidaritzapean ematea eta zientzia zurekin eraikitzea. Eskerrik asko baita ere doktoregoaren alderdi politenak bizitzeko aukera emateagatik; atzerrira zientzia komunikatzera joateko aukera oro aprobetxatzera bultzatu nauzu, eta esperientzia izugarria izan da.

Nerea, mila esker hor egoteagatik. Beti. Edozer gauzatarako. Ezingo nuke imajinatu zuzendarikide hoberik! Ez dakit nola eskertu eman didazun laguntza guztia.

Mila esker baita ere laborategiko kideoi, Juanma, Benoit, Cristina, Unai eta Natalia. Eskerrik asko bidaia honetan zuen laguntza emateagatik, jaso ditudan gomendioengatik, eta egunerokotasuna horren ona egiteagatik. Gustuko lekuan aldaparik ez, ba giro onean, oraindik gutxiago! Eskerrik asko Jabi, primerako auzokidea izan zara, eta urte hauetan pasatu ditugun momentuak altxorra lez gordeta daramatzat.

Jesus Mari, graduan ezagutu ginen, eta gure bizitzak behin baino gehiagotan gurutzatu izan dira zorionez. Zure gomendioengatik ez balitz, ez nintzateke ikerketa talde honetan egongo, beraz mila esker bidea egiteagatik. Espero dut bidegurutze gehiagotan elkar topatzea, eta zientzian ez bada ere, badakit urtean behin elkar ikusiko dugula. Miren Josu eta Kerman, eskerrik asko zuei ere eskainitako laguntza guztiagatik, kafe-tartetxoengatik eta hasieratik horren harrera ona egiteagatik.

Eskerrak eman nahi dizkiet baita ere Ondarru aldeko lagun guztiei, asko zarete, baina zuetariko bakoitzak badakizue zenbat eskertu dudan urte hauetan eman didazuen berotasuna.

Asier, mila esker hor egoteagatik eta bidaia hau gozotzeagatik. Tesia zurea ere bada. Gaian aditua izan gabe eman didazun laguntza guztiagatik, momentu txarrak jasateagatik, eta uneoro irribarre bat ateratzeagatik, eskerrik asko, mundiala zara!

Eta nola ez, eskerrik asko aita, ama eta Aitor. Zuek izan zarete momentu oro hor egon zaretenak, eta Tesi-bidaia hau zuen azalean sentitu duzuenak. Mila esker horren inplikatuta egoteagatik, momentu eskasetan dena ondo joango zela sinestarazteagatik, eta momentu politetan nire poztasuna zuena balitz bezala sentitzeagatik. Ama, orain bai, atera ezazu xanpaina! Matxe-matxe!

EDUKIAK / TABLE OF CONTENTS

I. Laburdurak / Abbreviations 1

II. Figurak eta Taulak / Figures and Tables 7

III. Summary 12

IV. Laburpena 14

V. Sarrera / Introduction 16

1. Ubikitina Proteasoma Sistema 17

1.1 Ubikitina-proteasoma sistemako osagaiak 19

1.2 Ubikitinazio-motak eta funtzioak 35

1.3 UPS: gaixotasunak eta itu terapeutikoak 38

2. Angelman sindromea 41

2.1 Oinarri genetikoa 42

2.2 UBE3A E3 ligasa 45

2.2.1 UBE3Aren substratuak 47

2.2.2 UBE3A: isoformak, egitura eta lokalizazioa 50

2.3 Angelman sindromeari aurre egiteko estrategiak, terapiak eta tratamendu farmakologikoak 53

2.4 Angelman sindromea ikertzeko animalia modeloak 54

2.4.1 Modelo murinoak 55

2.4.2 *Drosophila melanogaster* eulia 57

3. Ubikitinazioa ikertzeko metodologia 62

3.1 Ubikitinatutako materiala aberasteko estrategiak 62

3.1.1 BioUb sistema 65

3.1.2 GFP pull-down estrategia baldintza denaturalizatzaileetan. 67

3.2 Proteinen arteko elkarrekintzak ikertzeko estrategiak 68

3.2.1 BioID2 estrategia 69
3.3 Masa espektrometria 71
VI. Hipotesiak eta Helburuak / Hypothesis and Objectives 75
VII. Material eta metodoak / Materials and Methods 77
1. Biologia molekularra 78
2. Zelulen kultiboak eta transfekzioak 82
2.1 UBE3A substratuen balioztatzea 83
2.2 Ubikitinazio-guneak eta ubikitina kate-motak 84
2.3 Giza DUBen baheketa 84
3. GFP *pull-down* protokoloa 85
3.1 Protokolo zorrotza ubikitinazioa ikertzeko 85
3.2 Protokolo leuna interaktoreak identifikatzeko 85
4. BioID2 *pull-down* protokoloa 86
5. Western plapaketa eta zilar tindaketa 87
5.1 Antigorputzak 87
5.2 Western plapaketa 87
5.3 Zilar tindaketa 88
6. Masa espektrometria: laginen prestaketa, datuen bilketa eta analisia 88
6.1 *In-gel* tripsina bidezko digestioa eta peptioen erauzketa 88
6.2 LC-MS/MS analisia 89
6.3 Datuen prozesamendua eta analisi bioinformatikoa 90
7. *Drosophila melanogaster* eulien igotze-abiaduraren testa 90
8. UBE3Aren purifikazioa eta kristalizazioa 91
8.1 Bakterioen transformazioa eta proteinaren adierazpena 91
8.2 Afinitate purifikazioa eta mozketa 92

8.3 Ioi-trukeko kromatografia 92
8.4 Gel-iragazpeneko kromatografia 92
8.5 Aurre-kristalizazio testa 93
8.6 Kristalizazioa 93
9. Saguen portaera 94
9.1 Ultrasoinu-bokalizazioak 94
9.2 *Elkarganako elkarrekintza sozialaren* testa 94
9.3 *Eremu irekiaren* testa 95
9.4 *Grooming*-a 95
9.5 *Hiru ganberako* testa 95
9.6 *Argi-ilunpe* testa 95
9.7 *Plaka beroaren* testa 96
VIII. Results 97
1. Validation and characterization of candidate UBE3A substrates 98
1.1 Validation of previously identified UBE3A substrates 99
1.1.1 DDI1/DDI2 101
1.1.2 PSMA5 107
1.1.3 MINDY2 110
1.1.4 UBE2L3 113
1.1.5 BLMH 116
1.1.6 TAX1BP1 117
1.1.7 Substrate expression and cellular localization 119
1.1.8 Interaction between UBE3A and validated substrates 121
1.2 Characterization of human DDI1 and DDI2 ubiquitination 122
1.2.1 Ubiquitination sites on hDDI1 127
1.2.2 Ubiquitin chain-types on hDDI1 131

1.2.3 Ubiquitination sites on hDDI2 132
1.2.4 Ubiquitin chain-types on hDDI2 136
1.2.5 hDDI1 vs hDDI2 137
2. Identification and validation of UBE3A counteracting DUBs 139
2.1 Screening for human UBE3A counteracting DUBs 141
2.2 Validation of candidates USP7, USP9X, USP42 and UCHL5 143
2.3 Inhibition of USP9X using WP1130 drug 146
2.4 WP1130 treatment in *Drosophila melanogaster* flies 148
2.5 Changes in protein ubiquitination upon WP1130 treatment in *Drosophila melanogaster* 149
2.6 Inhibition of USP9X using FT709 drug 155
3. *In vivo* identification of UBE3A interactors 158
4. Determination of the human full-length UBE3A structure 171
4.1 hUBE3A expression in bacteria 173
4.2 Purification 174
4.2.1 Affinity purification 174
4.2.2 Cleaveage 176
4.2.3 Q-HP: ion-exchange chromatography 177
4.2.4 Gel filtration chromatography 180
4.3 Crystallization 182
4.3.1 Pre-crystallization test 182
4.3.2 Screening for crystallization conditions 183
4.3.3 Structure determination 184
5. UBE3A gainadierazten duten saguen portaeraren karakterizazioa 185
5.1 Portaera soziala 187

5.2 Aktibitate lokomotorea 190
5.3 Portaera errepikakorrak 192
5.4 Minarekiko sentikortasuna 192
IX. Discussion 194
X. Ondorioak 217
XI. References 220

I.

LABURDURAK

ACC	Acetyl-CoA carboxylase
AHNAK	Neuroblast differentiation-associated protein AHNAK
AIB1	Amplified in breast cancer 1 protein
ALOX12B	Arachidonate 12-lipoxygenase, 12R-type
AMPA	α-amino-3-hydroxy-5-methyl-4-isoxazolepropionic acid
ARFGAP1	ADP-ribosylation factor GTPase-activating protein 1
AS	Angelman syndrome
AS-IC	Angelman syndrome imprinting center
ASPM	Abnormal spindle-like microcephaly-associated protein
ASD	Autism spectrum disorder
ATP	Adenosine 5'-triphosphate
APBB1	Amyloid beta precursor protein binding family B member 1
APF-1	ATP-dependent proteolysis factor 1
Arc	Activity-regulated cytoskeleton-associated protein
AZUL	Amino-terminal Zn-finger of Ube3a Ligase
Bak1	BCL2 antagonist/killer 1
BAP1	BRCA1 associated protein 1
BICD2	Protein bicaudal D homolog 2
BirA	Bifunctional ligase/repressor BirA
BioID	Proximity-dependent biotin identification
BLHM	Bleomycin hydrolase
Blk	B Lymphoid tyrosine kinase
BP	Breaking point
CDK	Cyclin-dependent kinase
CoRest	REST corepressor
CP	Core protein
CTTN	Src substrate cortactin
DBN1	Drebrin
Ddi1	DNA damage inducible protein 1 (yeas)
DDI1	DNA damage inducible 1 homolog 1 (human)
DDI2	DNA damage inducible 1 homolog 2 (human)
DMSO	Dimethyl sulfoxide
Dsk2	Dominant suppressor of kar1
DUB	Deubiquitinase

E1	Ubiquitin-activating enzyme
E2	Ubiquitin-conjugating enzyme
E3	Ubiquitin-ligase enzyme
E6-AP	*E6*-associated protein (see UBE3A)
EPS15L1	Epidermal growth factor receptor substrate 15-like 1
ERAD	Endoplasmic-reticulum-associated protein degradation
ERK	Extracellular signal-regulated kinases
EIF4B	Eukaryotic translation initiation factor 4B
Faf	Probable ubiquitin carboxyl-terminal hydrolase *faf*
FLNA	Filamin-A
GABA	Gamma-aminobutyric acid
GABRA5	Gamma-aminobutyric acid type A receptor subunit Alpha5
GABRB3	Gamma-aminobutyric acid type A receptor subunit Beta3
GABRG3	Gamma-aminobutyric acid type A receptor subunit Gamma3
GAL4	Galactose metabolism transcription factor
GEF	Guanine nucleotide exchange factor
GFP	Green fluorescent protein
GSH	Glutathion
GST	Glutathione S-transferase
HBA1	Hemoglobin subunit alpha
HECT	Homologous to the E6-AP carboxyl terminus
HEK293T	Human embryonic kidney 293 cells
HERC	HECT domain and RCC1-like domain-containing protein
HHR23A	UV excision repair protein RAD23 homolog A
HSPA5	Endoplasmic reticulum chaperone BiP
IGF2R	Cation-independent mannose-6-phosphate receptor
iTRAQ	Isobaric tag for relative and absolute quantitation
JAMM	JAB1/M/PNMOV34 proteases
KIF5B	Kinesin-1 heavy chain
LAMTOR1	Late endosomal/lysosomal adaptor, MAPK and MTOR activator 1
LC-MS/MS	Liquid chromatography-tandem mass spectrometry
LFQ	Label free quantification
LIMD1	LIM domain-containing protein 1
LTV1	Protein LTV1 homolog

MAP4	Microtubule-associated protein 4
MC1R	Melanocortin 1 receptor
MCCC1	Methylcrotonyl-CoA Carboxylase
MEK	Mitogen-activated protein kinase kinase
mGluR	Metabotropic glutamate receptor
MINDY	Motif interacting with Ub containing novel DUB family
MINDY-2	Ubiquitin carboxyl-terminal hydrolase MINDY-2 (see FAM63B)
MJD	Machado-Joseph disease proteases
MS	Mass spectrometry
MS/MS	Tandem mass spectrometry
NEDD4	Neural precursor cell expressed developmentally down-regulated protein 4
NF-kB	Nuclear factor *kappa*-light-chain-enhancer of activated B cells
Nrf1	Endoplasmic reticulum membrane sensor (see NFE2L1)
NTA	Nitrilotriacetic acid
OTU	Ovarian tumour proteases
P27	Cyclin-dependent kinase inhibitor p27
P53	Tumor protein P53
Pbl	Pebble
PC	Piruvate carboxilase
PCT	Pre-crystallization test
PIP	Phosphatidylinositol 5-phosphate 4-kinase type-2 alpha
PPP6R1	Serine/threonine-protein phosphatase 6 regulatory subunit 1
PPP6R3	Serine/threonine-protein phosphatase 6 regulatory subunit 3
PSMA5	Proteasome subunit alpha type-5
PSMD4	Proteasome 26S subunit ubiquitin receptor, non-ATPase 4 (see Rpn10)
PTM	Post-translational modifications
PW-IC	Prader Willi imprinting center
Rad23	Radiation sensitivity abnormal 23
RBR	RING-between-RING
RING	Really interesting new gene
Ring1B	RING finger protein 1B
Rngo	Rings lost

RP	Regulatory particle
Rpn10	Regulatory particle non-ATPase 10 (see PSMD4)
Rpn1, 2, 10, 11, 13	Regulatory particle non-ATPase 1, 2, 10, 11, 13
RPS27	Ribosomal protein S27
Rpt1-6	Proteasome regulatory particle base subunit RPT1-6
RRM2	Ribonucleoside-diphosphate reductase subunit M2
RVP	Aspartyl protease-like domain
S100A11	Protein S100-A11
SDS-PAGE	Sodium dodecyl sulphate–polyacrylamide gel electrophoresis
SEC	Size exclusion chromatography
SENP	Sentrin/SUMO-specific protease
SFN	14-3-3 protein sigma
SH-SY5Y	Human neuroblastoma cell line
SILAC	Stable isotope labeling by amino acids in cell culture
SLC3A2	4F2 cell-surface antigen heavy chain
SLK	STE20-like serine/threonine-protein kinase
SNARE	Soluble NSF attachment protein receptor
SNRPN	Small nuclear ribonucleoprotein polypeptide N
SNURF	SNRPN upstream open reading frame
SRP68	Signal recognition particle subunit SRP68
STAU1	Double-stranded RNA-binding protein Staufen homolog 1
SUMO	Small ubiquitin-like modifier
SYAP1	Synapse-associated protein 1
T6BP	TRAF6-binding protein (see TAX1BP1)
TAX1BP1	Tax1-binding protein 1 (see T6BP)
TBC1D5	TBC1 domain family member 5
TEV	Tobacco Etch Viral protease
TLN1	Talin-1
TMT	Tandem Mass Tag (TMT) system
TNF	Tumor necrosis factor
TOF	Time of Flight
TXLNA	Alpha-taxilin
UAS	Upstream activating sequence

UBA	Ubiquitin associated domain
UBA1	Ubiquitin-like modifier activating enzyme 1
UBA52	Ubiquitin-60S ribosomal protein L40
UBA6	Ubiquitin-like modifier-activating enzyme 6
UBAP2L	Ubiquitin-associated protein 2-like
UBB	Polyubiquitin B
UBC	Polyubiquitin-C
UBC	Ubiquitin-conjugating catalytic domain
UBD	Ubiquitin -binding domain
UBE2L3	Ubiquitin-conjugating enzyme E2 L3 (see UbcH7)
UBE3A	Ubiquitin protein ligase E3A (see E6-AP)
UBE3A-OE	UBE3A over-expression
UBE3A-AS	UBE3A antisense transcript
UBL	Ubiquitin-like domain
UCH	Ubiquitin C-terminal hydrolases
UCH-L1	Ubiquitin C-terminal hydrolase L1
UCH-L3	Ubiquitin C-terminal hydrolase L3
UCH-L5	Ubiquitin C-terminal hydrolase L5
UIM	Ubiquitin-interacting motif
UPD	Paternal uniparental disomy
UPS	Ubiquitin proteosome system
USP	Ubiquitin-specific proteases
Wnt	Wingless-related integration site
WP1130	Degrasyn
Y2H	Yeast Two Hybrid

II.

FIGURAK ETA TAULAK

1. irudia. Ubikitina-proteasoma sistemaren zikloa.
2. irudia. Ugaztunen ubikitina geneak.
3. irudia. RING E3 entzima konjugatzaileen egitura eta funtzionamendua.
4. irudia. HECT motako E3 ligasen egitura eta funtzionamendua.
5. irudia. RING E3 entzima konjugatzaileen egitura eta funtzionamendua.
6. irudia. Deubikitinasen zuhaitz filogenetikoa.
7. irudia. DUBen funtzio nagusiak.
8. irudia. Proteasomaren egitura.
9. irudia. 19S azpiunitate erregulatzailearen egitura.
10. irudia. 20S muinaren egitura.
11. irudia. Ubikitinazio-motak.
12. irudia. Angelman sindromedun indibiduoen ezaugarriak.
13. irudia. UBE3A genearen inpronta-mekanismoa.
14. irudia. Angelman sindromea eragiten duten akats genetikoak.
15. irudia. Legamia, Drosophila, sagu eta gizakien DDI1 homologoen egiturak.
16. irudia. UBE3A proteinaren isoforma ezberdinak sagu eta giza espezieetan.
17. irudia. UBE3A E3 ligasaren egitura.
18. irudia. UBE3A E3 ligasaren AZUL domeinuaren egitura.
19. irudia. *Drosophila melanogaster* euliaren bizi-zikloa.
20. irudia. GAL4/UAS sistema binarioa.
21. irudia. di-Gly sinaduraren sorrera.
22. irudia. BioUb sistema.
23. irudia. GFP *pull-down* estrategia.
24. irudia. BioID2 estrategia.
25. irudia. Proteinen identifikazioa masa-espektrometria bidez.
26. irudia. Thermo Scientific-en Q-Exactive masa espektrometroaren eskema.

Figure 27. Modified GFP pull-down protocol allows the detection of the protein of interest and its ubiquitination pattern.
Figure 28. GFP tag does not disrupt DDI1 ubiquitination.
Figure 29. DDI1 is a UBE3A substrate in HEK293T cells.
Figure 30. DDI1 is a UBE3A substrate in in SH-SY5Y cells.
Figure 31. DDI2 is a UBE3A substrate in HEK293T cells.
Figure 32. PSMA5 is a UBE3A substrate in HEK293T cells.
Figure 33. PSMA5 is a UBE3A substrate in SH-SY5Y cells.

Figure 34. MINDY2 is a UBE3A substrate in HEK293T cells.
Figure 35. MINDY2 is a UBE3A substrate in SH-SY5Y cells.
Figure 36. UBE2L3 is not a UBE3A substrate in HEK293T cells.
Figure 37. UBE2L3 is not a UBE3A substrate in SH-SY5Y cells.
Figure 38. BLMH is not a UBE3A substrate in HEK293T cells.
Figure 39. TAX1BP1 is not a UBE3A substrate in HEK293T cells.
Figure 40. Cellular localization of UBE3A and its validated substrates.
Figure 41. Co-immunoprecipitation of UBE3A and its putative substrates.
Figure 42. Silver and Coomassie staining of DDI1-GFP pull-down elutions.
Figure 43. Schematic diagram of the MS-based procedure used to study ubiquitination sites and ubiquitin chain-types.
Figure 44. Identification of ubiquitinated proteins.
Figure 45. Sequence coverage of hDDI1-GFP sequence.
Figure 46. Representative annotated spectra for K133 hDDI1 diGly modified peptide.
Figure 47. UBE3A ubiquitinates hDDI1 on K133.
Figure 48. UBE3A-dependent ubiquitination of hDDI1-GFP mutants.
Figure 49. UBE3A forms K48 ubiquitin chains on hDDI1.
Figure 50. Sequence coverage for hDDI2.
Figure 51. Representative annotated spectra for K77 DDI2 diGly modified peptide.
Figure 52. UBE3A ubiquitinates hDDI2 on K77.
Figure 53. UBE3A-dependent ubiquitination of hDDI2-GFP mutants.
Figure 54. UBE3A forms K48 chains in hDDI2.
Figure 55. Sequence alignment of human DDI1 and DDI2 sequences.
Figure 56. Screening of 41 human DUBs to search for UBE3A counteracting DUBs.
Figure 57. Candidate DUBs are efficiently silenced.
Figure 58. USP9X deubiquitinates hDDI1.
Figure 59. Time course effect of WP1130 treatment in HEK293T and SH-SY5Y cell lines.
Figure 60. USP9X inhibition by WP1130 enhances DDI1 ubiquitination.
Figure 61. WP1130 treatment in model flies for Angelman syndrome rescues the climbing phenotype.
Figure 62. Isolated ubiquitinated material for mass spectomety analyis.
Figure 63. Ubiquitination of several proteins change in BioUb *Drosophila melanogaster* flies upon WP1130 treatment.

Figure 64. Ubiquitome analysis of WP1130 and DMSO treated Drosophila flies.
Figure 65. USP9X inhibition by FT709 enhances DDI1 poly-ubiquitination.
Figure 66. Biotinylated material for mass spectometry analyis.
Figure 67. Commassie staining and slicing for mass spectrometry analysis.
Figure 68. Overlap between proteins identified in the different conditions.
Figure 69. Multi-correlation graphs of LFQ intensities (in log2 scale) of proteins quantified across the different pull-downs and replicates.
Figure 70. Identification of proteins across different samples.
Figure 71. Experimentally recorded and imputed quantitative data.
Figure 72. Identification of candidate UBE3A interactors in HEK293T cells.
Figure 73. Comparison between UBE3A$^{C\text{-}ter}$ and UBE3A$^{N\text{-}ter}$ conditions to further corroborate UBE3A interactors.
Figure 74. LIMD1 is a UBE3A interactor in HEK293T cells.
Figure 75. Workflow for hUBE3A purification and crystallization.
Figure 76. SDS-PAGE for collected samples during the affinity purification protocol.
Figure 77. SDS-PAGE for samples before and after tag cleaveage.
Figure 78. Ion-exchange chromatography of hUBE3A affinity purified from GST-P2 vector.
Figure 79. Ion-exchange chromatography of hUBE3A affinity purified from His-SUMO vector.
Figure 80. Ion-exchange chromatography of hUBE3A affinity purified from His-P2 vector.
Figure 81. Gel filtration based purification of hUBE3A protein.
Figure 82. Pre-crystallization test of hUBE3A protein.
Figure 83. Alphafold human UBE3A full-length predicted structure.
84. irudia. UBE3A-OE saguek UBE3A emeki gainadierazten dute.
85. irudia. UBE3A-OE saguen ultrasoinu bokalizazio-emisioak normalak dira.
86. irudia. UBE3A-OE saguen elkarrenganako portaera soziala normala da.
87. irudia. Hiru Ganberako testa UBE3A-OE saguen portaera soziala ikertzeko.
88. irudia. UBE3A-OE saguek distantzia luzeagoak egiten dituzte eta abiadura handiagoan mugitzen dira.
89. irudia. UBE3A-OE saguak lehenago pasatzen dira argiztatutako gunera.
90. irudia. UBE3A-OE saguek *grooming* egiteko tendentzia azaltzen dute.
91. irudia. UBE3A-OE saguek minaren aurkako portaera normala dute.

1. taula. UPSko osagai desberdinak eta horiekin erlazionatutako gaixotasun eta ikerketak.

2. taula. Saguen portaera aztertzeko frogarik ohikoenak, zein adin-tartetan burutu behar diren eta horien deskribapena.

3. taula. Tesian zehar erabilitako plasmidoak.

4. taula. Tesian zehar erabilitako abiarazleak.

Table 5. List of putative UBE3A substrates to validate.

Table 6. List of putative UBE3A interactors that fulfill the criteria. A) Criteria to consider UBE3A interactors based on different sample comparison (+++ more abundant, --- less abundant and not detected). B) Putative UBE3A interactors detected by mass spectrometry.

The following supplementary information can be found on the enclosed CD.

Supplementary table 1. hDDI1 ubiquitination sites and ubiquitin chain-types mediated by UBE3A.

Supplementary table 2. hDDI2 ubiquitination sites and ubiquitin chain-types mediated by UBE3A.

Supplementary table 3. Changes in protein ubiquitination upon WP1130 treatment.

Supplementary table 4. Identification of UBE3A interactors using BioID2 strategy.

1. dokumentu osagarria. Kristalizaziorako baldintza ezberdinak: Morpheus, PACT, Amonio sulfato eta Proplex baheketa kitak erabili ditugu.

III.

SUMMARY

Angelman syndrome (AS) is a rare neurological disorder, caused by the lack of functional UBE3A in the brain. UBE3A is an E3 ligase, which ubiquitinates different proteins and determines their function within the cell. Although the gene responsible for the disease was identified years ago, the molecular mechanisms underlying AS have not been yet deciphered. Dr. Mayor's lab has been focused on developing tools to study ubiquitination, and use them to identify UBE3A substrates *in vivo*.

During this Thesis project we have validated UBE3A candidate substrates previously identified in *Drosophila melanogaster* and mice, employing a modified purification strategy –GFP pull-down–. We have further confirmed that this strategy in combination with mass spectrometry can be used to identify ubiquitination sites and ubiquitin chain-types mediated by UBE3A, in any given GFP-tagged substrate. In addition, we have performed a screening of different human deubiquitinases (DUBs) and identified USP9X as an UBE3A counteracting DUB. Upon USP9X inhibition, ubiquitination levels of the UBE3A substrate DDI1 were enhanced, and the phenotype of Angelman syndrome model flies improved significantly. Thus, we suggest USP9X can greatly contribute to the development of future treatments for AS. Moreover, following a mass spectrometry-based approach, we have identified several proteins that changed their ubiquitination upon drug treatment, and could potentially be responsible for improving the AS fly model phenotype. On the other hand, we have identified several UBE3A interactors that may regulate the E3 ligase function. Additionally, we have determined if the interactors bind to either the N-terminal, C-terminal or full length version of UBE3A. Finally, we have established a protocol for successful UBE3A purification with the aim of resolving its full-length structure, and we have characterized the behavior of our mice model that overexpresses UBE3A.

IV.

LABURPENA

Angelman sindromea (AS) gaixotasun neurologiko bakana da, garunean UBE3A funtzionalaren gabeziak sortua. UBE3A E3 ubikitina ligasa bat da, eta bere funtzioa proteina ezberdinak ubikitinatzea da, eta ondorioz, proteina horien patua zehazten du. Gaixotasunaren eragile den genea orain dela urte batzuk identifikatu bazen ere, UBE3Aren gabeziak ASren koadro klinikoa sortzeko mekanismo molekularrak ez dira oraindik argitu. Mayor doktorearen laborategia ubikitinazioa ikertzeko tresnak garatzen zentratu da, horien bidez UBE3Aren substratuak *in vivo* identifikatzeko.

Tesi honetan, aurretiaz *Drosophila melanogaster* eulian eta saguetan identifikatutako UBE3Aren balizko substratuak balioztatu ditugu, horretarako moldatutako purifikazio estrategia bat erabiliz –GFP *pull-down* estrategia–. Halaber, estrategia hori masa espektrometriarekin konbinatuz UBE3Ak edozein substratutan sortutako ubikitina kate-motak eta substratu horien ubikitinazio-guneak identifikatzeko baliogarria dela egiaztatu dugu. Horrez gain, giza deubikitinasa (DUB) ezberdinak testatu ditugu, eta USP9X identifikatu dugu UBE3Aren aurkako funtzioa burutzen duen DUB gisa. USP9Xren inhibizioak UBE3Aren substratu den DDI1 proteinaren ubikitinazioa emendatzen du. Era berean, Angelman sindromearen modelo diren eulien fenotipoa ere hobetzen du, eta horrek, etorkizunean ASrentzako tratamenduak garatzen lagundu dezake. Inhibitzaile horren ondorioz, ubikitinazio-maila aldatzen duten, eta beraz, eulien fenotipoa hobetzearen eragile izan daitezkeen proteinak identifikatu ditugu masa espektrometrian oinarritutako esperimentu baten bidez. UBE3Arekin elkarrekin eta ligasaren funtzioa erregulatu dezaketen hainbat proteina ere identifikatu ditugu, baita proteina horiek UBE3Aren amino muturrarekin, karboxilo muturrarekin edo proteina osoarekin elkarrekiten duten zehaztu ere. Azkenik, UBE3Aren egitura osoa definitzeko helburuarekin, ligasa modu eraginkorrean purifikatzeko protokoloa ezarri dugu, eta UBE3A gainadierazten duten saguen portaera ikertu dugu.

V.

SARRERA

1. Ubikitina-proteasoma sistema

1838an proteinak lehenengoz isolatu zirenetik (Mulder, 1839), urte luzez uste izan da organismoko proteinak molekula egonkorrak zirela, eta soilik dietatik jasotako proteinak degradatzen zirela. Baina 1937an, isotopikoki markatutako konposatuak erabiliz, proteinak etengabe berriztatzen direla behatu zuten. Proteina exogenoek ez ezik, endogenoek ere degradazio-prozesua jasaten dutela ondorioztatu zuten (Schoenheimer et al., 1939). 50. hamarkadan, proteinak degradatzen dituzten lisosomen aurkikuntzarekin batera, ideia berritzaile horrek indarra hartu zuen (de Duve et al., 1955). Hala ere, lisosomen funtzionamenduak ez zuen azaltzen proteinen degradazioan behatutako energia gastu handia (Etlinger eta Goldberg, 1977), ezta ere proteina bakoitzarentzako neurtutako degradazio-abiadura ezberdinak (Goldberg eta St. John, 1976). Hori horrela, lisosometan oinarritzen ez zen, eta ATPren mendekoa zen proteolisi-sistema baten existentzia planteatu zen (Etlinger eta Goldberg, 1977).

80. hamarkadan, Hershkoren laborategiak frogatu zuen proteinak, ATParen mendeko erreakzio baten bidez, beroarekiko egonkorra den peptido batekin (APF-1) kobalenteki eraldatzen direla (Hershko et al., 1980). Gainera, polipeptido hori proteinen degradazioarekin erlazionatu zuten. Hain zuzen ere, aurkikuntza horri esker, 2004. urtean Aaron Ciechanover, Irwin Rose eta Avram Hershko ikerlariek Kimikako Nobel saria jaso zuten (https://www.nobelprize.org/prizes/chemistry/2004/summary/). Aldi berean, beste ikerketa talde batek APF-1 proteina "ubikuoa" zela ikusi zuen, landare- eta animalia-zelulez gain, onddoetan ere aurkitzen baita. Molekula hori da gaur egun ubikitina bezala ezagutzen duguna (Wilkinson et al., 1980).

Ubikitina bidezko proteinen eraldaketari ubikitinazio deritzo, eta zelula barneko proteina gehienak degradaziora bideratzeko mekanismo nagusia da (Ciechanover, 2013). Organismo eukarioto guztietan kontserbatuta dagoen prozesu konplexu horretan hiru proteina motek dihardute modu koordinatuan: E1 ubikitina-aktibatzaileak, E2 ubikitina-konjugatzaileak eta E3 ubikitina-ligasak (Hershko et al., 1980). Lehendabizi, E1 entzimak ubikitina aktibatzen du ATParen mendeko erreakzio baten bidez. Ondoren, aktibatutako ubikitina E2 entzimara transferitzen da, eta azkenik, E2 entzimak, E3 entzimaren laguntzaz, ubikitina

substratura gehitzen du. Kasu batzuetan, zehazki HECT motako E3 ligasen kasuan, ubikitina E2-tik E3-ra pasatzen da, azken horrek substratura gehitu dezan. Aldiz, RING motakoek ez dute ubikitinarekin elkarrekiten; E2 eta substratuarekin batuz ubikitinaren transferentzia errazten dute (1. irudia) (Berndsen eta Wolberger, 2014). Substratura ubikitina bakar bat edo gehiago atxikitzearen arabera, mono- edo poli-ubikitinazioa emango da, hurrenez hurren. Eratutako ubikitina-katearen arabera, proteina horiek zelulako funtzio ezberdinak burutuko dituzte (seinaleztapena, lokalizazioa etab.) (Swatek eta Komander, 2016).

Ubikitinazioa prozesu dinamiko eta itzulgarria da. Zehazki, deubikitinasa (DUB) izenez ezagutzen diren entzimak dira deubikitinazioa katalizatzen dutenak (1. irudia) (Komander, 2009). Hala, ubikitinatutako proteina batek bere funtzioa betetzen duenean, eta deubikitinatu behar denean, DUBak arduratzen dira substratutik ubikitina mozteaz.

Bestalde, proteina horiek gehiago behar ez direnean, proteasomara bideratzen dira, bertan degradatuak izan daitezen. Prozesu horretan ubikitina birziklatu eta ubikitinazio-ziklo berri baterako eskuragarri gelditzen da.



1.irudia. Ubikitina-proteasoma sistemaren zikloa. Ubikitina E1 entzimaren bitartez aktibatzen da ATParen mendeko erreakzio batean. Aktibatutako ubikitina E2 entzima-konjugatzailera transferitzen da. Ubikitinari lotutako E2 entzimak E3 ligasarekin elkarrekiten du ubikitina substratura transferitzeko. Prozesuan parte hartzen duen E3 ligasa motaren arabera, ubikitina zuzenean substratuetara transferitzen da (RING motako E3 ligasen kasuan), edota lehendabizi E3 ligasara batzen da, hortik substratuetara transferitzeko (HECT motako E3 ligasen kasuan). Prozesu horren errepikapen ziklikoen bidez, ubikitina molekula bakar bat (mono-ubikitinazioa) edo gehiago (poli-ubikitinazioa) atxikitzen dira substratuetara. Eratutako poli-ubikitina kate-mota bakoitzak funtzio bat burutzen du; substratuak degradaziora bideratu, seinaleztapen bideak erregulatu, lokalizazioa baldintzatu eta abar. Deubikitinasa entzimak (DUBak) proteinei ubikitina kentzeaz arduratzen dira, eta horri esker ubikuitina birziklatzen da (Ciechanover, 2013-tik moldatuta).

Proteinen ubikitinazioan modu koordinatuan parte hartzen duten entzima guztiek ubikitina-proteasoma sistema (UPS, *Ubiquitin Proteosome System*) osatzen dute, eta bere etengabeko jarduerari esker, zelulako oreka mantentzen da.

Sistema hori deskribatu zenean, ubikitinatutako proteinen patu bakarra proteasoma bidezko degradazioa zela uste zuten (Hershko et al., 1980). Alabaina, gaur egun badakigu proteinen ubikitinazioa gaizki tolestutako edo erabilgarriak ez diren proteinen degradazio eta birziklapenetik haratago doala (Komander and Rape, 2012).

1.1. Ubikitina-proteasoma sistemako osagaiak

1.1.1. Ubikitina

Ubikitina 76 aminoazidoz osatutako polipeptido txikia da (8.5 kDa). Ugaztunen genoman lau gene ezberdinek kodetu dezake, eta kasu guztietan, aintzindari edo pro-proteina bat bezala adierazten da (2. irudia). Lau gene horietatik bik (UBA52 eta RPS27), ubikitina molekula erribosomen biogenesirako ezinbestekoak diren azpiunitate erribosomikoei (L40 eta S27, hurrenez hurren) fusionatuta kodetzen dute (Finley et al., 1989). Aitzitik, beste bi geneek (UBB eta UBC), hurrenez hurren, 3 eta 9 ubikitina molekulaz osatutako poli-ubikitina kate linealak kodetzen dituzte. DUBek (UCHL3, USP5, USP7, USP9X eta Otulin) ubikitinaren aitzindari horiek guztiak digeritu eta zelulan ubikitina molekula bakanak askatzen dituzte (Grou et al., 2015; Kimura eta Tanaka, 2010) (2. irudia).



2. irudia. Ugaztunen ubikitina geneak. Ubikitina lau gene ezberdinen bidez kodetzen da. UBA52 geneak ubikitina bakar bat L40 azpiunitate erribosomikoarekin batera kodetzen du. RPS27 geneak, aldiz, ubikitina molekula S27 azpiunitate erribosomikoarekin kodetzen du. UBB eta UBC geneek 3 eta 9 kopiako poli-ubikitina kateak kodetzen dituzte, hurrenez hurren. Lau gene horien adierazpenetik sortutako pro-ubikitina forma guztiak zelularen barneko deubikitinasek digeritu eta berdinak diren ubikitina molekulak askatzen dituzte.

Ubikitina kodetzeko lau gene ezberdin izateak, eta horietako bik poli-ubikitina kateak kodetzeak, agerian uzten du ubikitinaren sintesiak zelularentzako duen garrantzia. Pentsa liteke gene horien artean teilakamendua dagoela, eta guztiak beharrezkoak ez direla. Baina bakar baten gabeziak garapen arazoak, obesitatea edo ubikitina eskasia sor dezake (Ryu et al., 2007, 2008a, 2008b). Are gehiago, UBC genea estresaren mendeko erantzunean ezinbestekoa dela frogatu dute (Pereira et al., 2006; Tsirigotis et al., 2001). Gene erredundantziak zelulan nahi adina ubikitina dagoela ere pentsarazi diezaguke. Alabaina, zelulako ubikitina aske eta erabilgarriaren kantitatea zelularen beharretara estuki doituta dago, nagusiki DUBen bidez (Bianchi et al., 2019; Dantuma et al., 2006; Ryu et al., 2007).

Ubikitina substratuetara lotura isopeptidiko bidez konjugatzen da. Gehienetan, ubikitinaren karboxilo muturra substratuen lisina bateko ε-NH_2-taldearekin lotzen da (Glickman eta Ciechanover, 2002). Halaber, posible da ubikitina lotura peptidikoz substratuen α-NH2 muturrarekin (Ciechanover eta Ben-Saadon, 2004) edo lisinak ez diren beste aminoazido batzuekin –zisteina, serina eta treoninarekin– lotzea (Wang et al., 2012). Ubikitinazio mota horiek ere funtzio biologiko garrantzitsu ugaritan parte hartzen dute, esaterako, erretikulu endoplasmatikoaren bidezko degradazioan (ERAD), kolesterolaren biosintesian, apoptosian edo neuronen endekapenean (McClellan et al., 2019).

Arestian aipatu bezala, ohikoena ubikitina eta lisinen arteko lotura isopeptidikoa da. Ubikitinak berak zazpi lisina eta muturreko amino talde bat dituenez, posible eta ohikoa da poli-ubikitina kateak sortzea, hau da, substratu batera gehitutako ubikitina bati, beste ubikitina bat edo gehiago lotzea. Ubikitina molekula berria aurrez gehitutako ubikitinaren amino muturrarekin edo sekuentziako zazpi lisinetako edozeinekin (K6, K11, K27, K29, K33, K48, K63) batuz, topologia ezberdinetako poli-ubikitina-kateak sor daitezke (Komander eta Rape, 2012). Proteina ubikitinatuen milaka aldaera sortzeko gai den sistema konplexu horri esker, prozesu biologiko ugari erregulatu daitezke (Swatek eta Komander, 2016) (ikusi 1.2. *Ubikitinazioa eta bere funtzioak* atala).

1.1.2. E1 entzima aktibatzailea

Behin ubikuitina prekurtsorea prozesatuta dagoela, ubikitinazio-prozesuko lehen urratsa ubikitina molekula aktibatzean datza. Energia kontsumitzen duen erreakzio hori E1 entzima aktibatzaileak katalizatzen du (Ciechanover et al., 1981; Haas et al., 1982). E1 entzimak legamia eta gizakietan kontserbaturik daude. Alabaina, legamietan Uba1 deritzon gene bakar dagoen bitartean (McGrath et al., 1991), gizakietan bi gene aurki daitezke: UBA1 eta UBA6 (Pelzer et al., 2007).

E1 entzimak katalizatzen duen erreakzioa bi pausutan gauzatzen da; lehenik, E1 entzima ATP molekularekin eta ubikitinarekin batzen da, eta momentuko ubikitina-adenilato bitarteko bat sortzen da. Jarraian, ubikitina E1 entziman kontserbatuta dagoen zisteina hondar katalitikora batzen da tioester lotura bidez (Haas et al., 1982; Schulman eta Harper, 2009).

1.1.3. E2 entzima konjugatzailea

Ubikitinazio-prozesuan parte hartzen duen bigarren entzima E2 entzima konjugatzailea da. E1 proteinak aktibatutako ubikitina, E2 entzimara lotzen da tioester lotura bidez (Glickman eta Ciechanover, 2002; Hershko et al., 1983), eta ondoren, horrek substratura transferitzen du E3 entzima baten laguntzaz.

Eukariotoen genoman E2 proteinak kodetzen dituzten hainbat gene ezagutzen dira. Gizakietan, esaterako, 37 gene deskribatu dira (Michelle et al.,

2009). Hasiera batean garraiatzaile hutsak zirela uste bazen ere, ubikitinazio-prozesuan partaide aktiboak direla frogatu da. Izan ere, substratuetan zein lisina ubikitinatu behar den (David et al., 2010), edo ubikitina-kateen topologia eta luzera zein izan behar diren arautuz, substratuen patua baldintzatzen dute (Ye eta Rape, 2009).

E2 entzimek ubikitina konjugatzeko kontserbatuta dagoen domeinu katalitiko bat dute, UBC (*Ubiquitin-conjugating catalytic)* deritzon 150 aminoazido ingurutako domeinua, hain zuzen. Domeinu horretan kokatzen dira ubikitina lotzeko gakoa den zisteina hondarra (Wijk eta Timmers, 2010), eta baita E1 eta E3 entzimak batzeko guneak ere (Am et al., 2008).

E2 entzima batzuk UBC domeinu katalitikoz soilik daude osatuta. Aldiz, beste zenbait E2 entzimek, UBC domeinutik haratago luzatzen diren muturrak izan ditzakete, eta lau familia bereizten dira mutur horien arabera: bakarrik UBC domeinua dutenak (I motakoak), amino muturreko luzapena dutenak (II motakoak), karboxilo muturreko luzapena dutenak (III motakoak) eta luzapenak bi muturretan dituztenak (IV motakoak) (Wijk eta Timmers, 2010). Luzapen horiek, besteak beste, E2 entzimen zelula barruko lokalizazioa, E1 entzimarekiko loturaren egonkortasuna, edo bikote duten E3 entzimaren aktibitatea baldintzatu dezakete (Wijk eta Timmers, 2010).

1.1.4. E3 ligasa entzima

Ubikitinazio-prozesuko azken urratsa ubikitina-ligasa edo E3 entzimek burutzen dute, E2ek garraiatzen duten ubikitina zuzenean substratuetara atxikiz edo prozesu horretan lagunduz (Glickman eta Ciechanover, 2002; Hershko et al., 1983). Ubikitina-proteasoma sistema osatzen duten entzima guztien artean familiarik handiena da. Izan ere, gizakietan 600dik gora genek osatzen dute (Li et al., 2008). Ubikitinazio-prozesuan substratuarekiko espezifikotasuna bermatzen dute, ubikitinaz kargatutako E2 entzimarekin, eta ubikitina transferituko zaion substratuarekin aldi berean elkarrekiteko gaitasuna baitaukate (Metzger et al., 2014). E3 entzimek, hainbat substratu ubikitinatzeko gai izateaz gain, E2 entzima ezberdinekin elkarrekin dezakete. Ondorioz, E2/E3 bikote ezberdinek proteina

bera ubikitinatu dezakete, eta bikote bakoitzak ubikitinazio-patroi espezifikoa sor dezake (Metzger et al., 2014).

E2/E3 elkarrekintzak gauzatzeko E3 entzimek kontserbatutako domeinu ezberdinak dituzte. Domeinu horien egituraren arabera, eta ubikitina E2 entzimetatik substratuetara transferitzeko mekanismoaren arabera, E3 ligasen hiru familia nagusi bereizten dira: RING (*Really Interesting New Gene*), HECT (*Homologous to the E6-AP Carboxyl Terminus*) eta RBR (*RING-between-RING*) familiak (Berndsen eta Wolberger, 2014).

RING motako E3 entzimen ezaugarri nagusia honakoa da: RING edo U-BOX domeinua izatea. Bi domeinu horiek espezifikoki tartekatutako histidina eta zisteina hondarrak dituzte. Biek gurutze itxura hartzen dute, baina egitura egonkortzeko elkarrekintza ezberdinak erabiltzen dituzte: RING domeinuak Zn^{2+} ioiekin lotzen dira (Metzger et al., 2014), eta U-BOX domeinuek hidrogeno- eta gatz-zubiak eratzen dituzte (3. irudia) (Aravind eta Koonin, 2000; Ohi et al., 2003). Domeinu horien funtzioa ubikitina garraiatzen duten E2 entzimekin lotzea, eta ubikitinaren transferentzia estimulatzea da (Metzger et al., 2014). Zehazki, E2 entzima eta substratua elkarrengana hurbilduz, ubikitina E2 entzimatik zuzenean substratura transferitzea ahalbidetzen dute (Deshaies eta Joazeiro, 2009; Metzger et al., 2014; Petroski eta Deshaies, 2005).

RING-motako ligasen artean azpifamiliarik handiena Cullin E3 ligasena da, zelulako ubikitinazioaren %20az arduratzen dena (Petroski eta Deshaies, 2005). Cullin E3 ligasek monomero, dimero edo azpiunitate ugariko konplexu bezala jardun dezakete (Chew et al., 2007; Choo eta Hagen, 2012; Petroski eta Deshaies, 2005).



3. irudia. RING E3 entzima konjugatzaileen egitura eta funtzionamendua. A) RING eta U-BOX domeinuek gurutze itxurako egitura dute, histidina eta zisteina hondarrak tartekatuz. RING eta U-BOX domeinuak zink-ioiz eta hidrogeno- eta gatz-zubiz egonkortzen dira, hurrenez hurren. B) RING E3 ligasen familiako proteinetan E2 entzima konjugatzaileak RING edo U-box domeinuetara batzen dira, eta horiek ubikitinaren transferentzia estimulatzen dute substratura. Berndsen eta Wolberger, 2014-tik moldatuta.

HECT motako E3 ligasei dagokienez, karboxilo muturrean HECT deritzon 350 aminoazidotako domeinu bereizgarri bat dute. Ugaztunetan deskribatutako lehen E3 ligasa UBE3A edo E6AP (*E6-Asociated Protein*) da (Huibregtse et al., 1995). Hortik aurrera, ligasa horren domeinuaren homologoak dituzten gainerako E3 ligasak HECT (*Homologous to the E6-AP Carboxyl Terminus*) motako gisa sailkatu dira. Gaur gaurkoz, gizakion HECT-motako E3 ligasen familiak 28 kide ditu. HECT domeinuaren egiturari dagokionez, funtzio ezberdineko bi lobulu ditu: amino muturrekoa (N lobulua) eta karboxilo muturrekoa (K lobulua). N lobulua E2 entzimarekin batzen da, eta K lobulua, gune aktiboko zisteinaren bitartez, ubikitinarekin batu eta substratura transferitzeaz arduratzen da (4. irudia) (Huibregtse et al., 1995; Scheffner eta Kumar, 2014).

Ubikitinatu beharreko substratuaek E3 ligasen HECT domeinutik kanpo geratzen den amino muturrarekin elkarrekiten dute, eta mutur horren arabera, hiru azpifamilia bereizten dira: NEDD4/NEDD4-bezalako E3 ligasak (triptofano-

triptofano domeinua daukatenak), HERC E3 ligasak (*Chromosome Condensation 1-like* domeinua daukatenak) eta gainerako HECT E3 ligasak (domeinu horietako bat ere ez daukatenak) (Scheffner eta Kumar, 2014).



4. irudia. HECT motako E3 ligasen egitura eta funtzionamendua. Mota honetako E3 ligasek HECT domeinua dute karboxilo muturrean. Era berean, domeinu horrek bi lobulu ditu: N eta K lobuluak. Ubikitina garraiatzen duen E2 entzima N lobulura batzen da. Jarraian, ubikitina K lobuluko zisteina katalitikora transferitzen da, eta azkenik ubikitina hori E3 ligasaren amino muturrera batzen den substratuari transferitzen zaio. Berndsen eta Wolberger, 2014-tik moldatuta.

Aurrez aipatutako RING eta HECT domeinuen ezaugarriak azaltzen dituzten E3 ligasak ere badira, RBR (*RING between RING*) E3 ligasa bezala ezagutzen direnak. Horiek bi RING domeinu dituzte (RING1 eta RING2), IBR (*in between RING*) deritzon kontserbatutako sekuentzia batez bananduta (Eisenhaber et al., 2007) (5. irudia). RBR ligasek RING domeinuak izan arren, HECT motakoen antzera, ubikitinarekin tio-ester bitartekari bat sortzeko ahalmena dute (Morreale eta Walden, 2016). Hau da, RING1 domeinua E2 entzimarekin lotzen den bitartean, ubikitina RING2 domeinuaren zisteina katalitikoarekin batzen da, eta hortik substratura konjugatzen da (Berndsen eta Wolberger, 2014). Bestalde, IBR sekuentzia RING1 eta RING2 domeinuak antolatzeaz arduratzen da, substratuen ubikitinazioa errazteko (Beasley et al., 2020). Talde horretako ligasen artean aurki dezakegu, adibidez, Parkinson gaixotasunarekin erlazionatutako Parkin E3 ligasa (Berndsen eta Wolberger, 2014; Shimura et al., 2000).



5. irudia. RBR motako E3 ligasen funtzionamendua. RBR motako E3 ligasek bi RING domeinu dituzte IBR sekuentzia baten bidez bananduta. Ubikitinatutako E2 entzima, amino muturrean kokatzen den RING1 domeinura batzen da. Ubikitina, berriz, RING2 domeinuko zisteina hondarrera transferitzen da, eta ondoren, karboxilo muturrera batutako substratura transferitzen da. Berndsen eta Wolberger 2014-tik moldatuta.

1.1.5. Deubikitinasak

80. hamarkadan, ubikitinazioa, proteinen itzulpen osteko aldaketa gehienen antzera, prozesu itzulgarria dela frogatu zen. Izan ere, orduan aurkitu zituzten ubikitinaren eta substratuen arteko lotura isopeptidikoak apurtzeko gai ziren proteinak, hots, deubikitinasak edo entzima deubikitinatzaileak (DUBak) (Matsui et al., 1982). DUBek E3 ligasen aurkako funtzioa burutzen dute, substratuei ubikitina-molekulak kentzeaz arduratzen dira, eta ubikitina aintzindaria aktibatzen dute.

Giza genomak 100 DUB inguru kodetzen ditu, eta beraien domeinu katalitikoaren sekuentzian eta egituran dauzkaten antzekotasunen arabera, sei familia nagusitan banatzen dira. Horietariko bost familia zisteina-proteasak dira: USP (*Ubiquitin-Specific Proteases*), UCH (*Ubiquitin C-terminal Hydrolases*), OTU (*Ovarian Tumour proteases*), MJD (*Machado-Joseph Disease proteases*) eta oraintsu deskribatutako MINDY (*Motif Interacting with Ub containing Novel DUB family*) familia (Abdul Rehman et al., 2016; Amerik eta Hochstrasser, 2004). Seigarren familia JAMM (*JAB1/MPN/MOV34 proteases*) metalo-proteasena da, funtzio katalitikoa burutzeko zink ioien beharra duten entzimez osatua (Amerik eta Hochstrasser, 2004). Horrez gain, badago SUMO deritzon ubikitina-bezalako proteinak kentzeaz arduratzen den DUBen familia bat, SENP deiturikoa (*SENtrin/SUMO-specific Protease*) (6. irudia) (Harrigan et al., 2018).



6. irudia. Deubikitinasen zuhaitz filogenetikoa. Sei DUB familia bereizten dira. Talderik handiena, eta ondoen deskribatu izan dena, USP deubikitinasek osatzen dute. UCH familia lehendabizi deskribatu zen familia da, eta OTU, MJD eta JAMM familiek, berriki deskribatutako MINDY familiarekin batera, DUB ezberdinen multzoa osatzen dute. SENP familia SUMO deritzon ubikitina-bezalako molekula kentzeaz arduratzen diren proteinez osatuta dago. Harrigan et al., 2018tik moldatua.

Familia guztien artean, UCH proteasena izan zen deskribaturiko lehena (Rose eta Warms, 1983). Gizakion kasuan, lau kidez osatzen da (UCHL1, UCHL3, BAP1 eta UCHL5) eta guztiek homologia altua erakusten dute gune katalitikoan, aktibo izateko berebizikoa den hirukote katalitikoa guztiz kontserbatuta dutelarik. Batez ere substratu txikiak (20-30 aminoazido) deubikitinatzen dituzte,

substratu handiagoak ezin baitira gune aktibora sartu ezintasun esterikoak direla eta (Amerik eta Hochstrasser, 2004). Beraz, luzera txikiko ubikitina-kateen birziklapenaz, eta ubikitinaren proproteina aitzindarien digestioaz arduratzen dira nagusiki (Larsen et al., 1998). Hala ere, kasu batzuetan substratu handiagoak ere digeritu ditzaketela frogatu da (Misaghi et al., 2005).

USP proteasen familia giza genomak kodetutako DUB familiarik handiena da. Gaur gaurkoz, 50etik gora USP deskribatu dira (Nijman et al., 2005). USP proteasen gune katalitikoa ongi kontserbatutako bi motibok osatzen dute, zisteina- eta histidina-kutxek hain zuzen ere, non katalisirako beharrezko aminoazido hondarrak aurkitzen diren (Hu et al., 2002, 2005; Renatus et al., 2006). Familia horretako kideek substratu handiagoak digeritu ditzakete, eta besteak beste, zelulen-zikloa, apoptosia edo seinaleztapen-bideak erregulatzen dituzte (Young et al., 2019).

OTU proteasen familia analisi bioinformatiko batean identifikatu zen mende honen hasieran (Makarova et al., 2000). Makarovaren taldeak, *Drosophila melanogaster* eulietan oozitoen morfogenesiarekin erlazionatuta dagoen *Otu* genean zuen interesa (Goodrich et al., 2004; Steinhauer et al., 1989). *Otu* genearen funtzioa argitzeko burututako analisi bioinformatikoan, birusen zisteina-proteasen sekuentziekin antzekotasunak zituela konturatu ziren. Horrek OTU deubikitinasen familia berriaren sorrera ekarri zuen. Familia horretan, beste zisteina-proteasetan ez bezala, hirukote katalitikoa ez dago guztiz osatuta, eta gune katalitikoa hidrogeno-zubien bidez egonkortzen da (Nanao et al., 2004). Horrez gain, proteina horien muinak bost beta-orriz osatutako egitura du (Komander eta Barford, 2008; Messick et al., 2008; Nanao et al., 2004). OTU proteasek deubikitinasa funtzioa burutzen dutela frogatu izan den arren, ez dago oraindik argi zelulako zein prozesutan parte hartzen duten (Balakirev et al., 2003; Evans et al., 2003).

Aurreko kasuan bezala, MJD edo Josephin proteasen familia ere ubikitina-proteasa familia ezberdinak bilatzeko ahaleginean egindako analisi bioinformatiko bati esker deskribatu zen (Scheel et al., 2003). Ikerketa horretan ataxina-3 eta ataxina-3-bezalako-proteinak identifikatu zituzten. *In vitro* ikerketek egiaztatu zuten proteina horiek deubikitinasa aktibitatea zutela (Burnett et al., 2003). Egitura aldetik hirukote katalitikoa kontserbatuta dagoen arren (Mao et al., 2005; Nicastro et al., 2005), domeinu katalitikoak sekuentzia-

antzekotasun baxua erakusten du gainerako DUBekin konparatuz (Nijman et al., 2005). Zelulako funtzioei dagokienez, ataxina-3 proteinak transkripzioaren erregulazioarekin erlazioa duela ikusi da. Hala ere, prozesu horretan deubikitinasa aktibitateak parte hartzen ote duen argitzeke dago (Li et al., 2002).

JAMM proteasak metaloproteasak dira, eta ondorioz, deubikitinasa aktibitatea burutzeko metalen bat behar dute, kasu honetan, Zn^{2+} ioiak. Gutxienez lau JAMM domeinu bereizten dira: hiruk ubikitinatutako substratuak prozesatzen dituzte (Abdul Rehman et al., 2016; Maurer eta Wertz, 2016; Verma, 2002; Wauer eta Komander, 2014), eta batek Nedd8 deritzon ubikitina-bezalako proteinen bidez eraldatutako substratuetan jarduten du (Cope et al., 2002). JAMM motako deubikitinasak dira, esaterako, proteasomaren bidezko degradazioan jarduten duten Rpn8 eta Rpn11 proteinak (Wauer eta Komander, 2014).

MINDY deubikitinasen familia oraintsu deskribatutako familia da. Horien funtzio katalitikoa, gainerako DUBekiko homologiarik ez daukan deskribatu gabeko domeinu baten mende dago (Abdul Rehman et al., 2016). Eukarioto guztietan aurkitzen dira, eta K48 motako poli-ubikitina-kateekiko oso selektiboak direla ikusi dute. Horrez gain, ubikitina-kate luzeak mozteaz arduratzen direla frogatu dute (Maurer eta Wertz, 2016).

Hasiera batean DUBen funtzioa proteinen degradazioa saihestea zela uste bazen ere, gaur egun badakigu funtzio biologiko ugari burutzen dituztela. Batetik, ubikitina askearen sorreran parte hartzen dute ubikitinaren gene ezberdinek sortzen dituzten pro-proteinak digerituz (Kimura eta Tanaka, 2010) (7. irudia, 1. atala). Bestetik, ubikitina molekulak kentzen dituzte proteinetatik, esaterako proteina horien funtzioak edo lokalizazioa erregulatzeko (7. irudia, 2. atala), baita integritatea babesteko ere (7. irudia, 3. atala). Horrez gain, proteasomaren bidez degradatzen diren proteinen ubikitina molekulak birziklatzen dituzte (7. irudia, 4. atala) (Yao eta Cohen, 2002). Hortaz, DUBek ubikitina eskuragarriaren mailak estuki doitzen dituzte zelularen beharretara, ubikitinatutako proteinen ubikitinazio-mailak erregulatuz. Beraz, zelulako hainbat funtzio kontrolatzen dituzte (Komander, 2009); esaterako, metafaseko kromosomen kondentsazioa eta neurotransmisorren askapena induzitzen dituzte histonak eta gune pre-sinaptikoko proteinak deubikitinatuz, hurrenez hurren (Fuchs eta Oren, 2014; Rinetti eta Schweizer, 2010).



7. irudia. DUBen funtzio nagusiak. 1) Deubikitinasek ubikitina molekula berrien sintesian parte hartzen dute. 4 gene ezberdinek kodetutako proteina prekurtsore multimerikoetatik (bai ubikitina kate linealetatik eta bai proteina erribosomikoekin eratutako fusio-proteinetatik) ubikitina molekula indibidualak askatzen dituzte. 2) Ubikitinatutako proteinen funtzioak erregulatzen dituzte horien ubikitinazioa erregulatuz. 3) Proteinak degradaziotik babesten dituzte, ubikitina moztuz. 4) Ubikitina-mailak mantentzen dituzte, degradatu behar diren proteinetatik ubikitina birziklatuz. Funtzio guzti horiei esker, DUBek zelulak eskuragarri duen ubikitina-maila erregulatu eta baldintzatzen dute.

1.1.6. Ubikitina-hartzaileak

Proteina bati ubikitina gehitzean, mezu jakin bat zehazten zaio. Mezu hori ezberdina izan daiteke proteinaren ubikitinazio-patroiaren arabera. Horrela, proteina bati zehaztutako mezua ondokoek baldintzatzen dute: lotzen zaion ubikitina kopuruak, ubikitina horiek zein aminoazidotan lotzen diren, eta eraikiz gero, ubikitina-kateak nolakoak diren. Kasuan kasu, proteinak jasotzen duen mezua deszifratzeko, ubikitina-hartzaileak daude zelulan, hots, modu ez-kobalentean ubikitinarekin elkarrekiten duten domeinuak (UBD, *Ubiquitin-Binding Domain*) dituzten proteinak. Domeinu horiek beharrezkoak dira ubikitinazio bidez aktibatutako mezua zelula barneko seinale biokimiko bilakatu ahal izateko (Dikic et al., 2009).

UBD domeinuek funtzio berdina duten arren, egitura desberdinak izan ditzakete. Deskribatu ziren lehen UBD domeinuak, proteasomaren azpiunitatea den PSMD4/Rpn10 (*Human Regulatory Particle Non-ATPase 10*) proteinaren UIM (*Ubiquitin-Interacting Motifs*) motiboak izan ziren (Young et al., 1998). Geroago, legamien Ddi1 (*DNA-Damage Inducible protein 1*) eta Rad23 (*Radiation Sensitivity Abnormal 23*) proteinen UBA (*Ubiquitin Associated*) domeinuek ubikitinarekin elkarrekiteko gaitasuna zutela ikusi zuten (Bertolaet et al., 2001). Harrezkero, hogeitik gora UBD familia deskribatu dira, egituraren arabera bost azpifamiliatan sailkatzen direnak (Kliza eta Husnjak, 2020): α-helize egiturak (UIM eta UBA barne), zink-hatzak, plekstrina-bezalakoak, ubikitina-konjugatzaile-bezalakoak eta gainerakoak.

UBD domeinu batzuk poli-ubikitina-kate espezifikoekin elkarrekiten dute (Raasi et al., 2005; Sims eta Cohen, 2009; Trempe et al., 2005). Adibidez, Rad23 proteinako UBA domeinuak K48 motako kateak ezagutzen ditu (Raasi et al., 2005). Aldiz, badira UBD batzuk edozein kate motekin modu promiskuoan batzen direnak (Raasi et al., 2005; Zhang et al., 2008). UBD bakoitzak ubikitina-kateekiko duen espezifikotasuna domeinuaren egituraren eta proteinan duen kokapenaren araberakoa dela uste da (Sims eta Cohen, 2009). Gaur egun, kristalografia bidezko ikerketei esker, ubikitinaren eta UBD mota bakoitzaren arteko lotura nola ematen den dakigu (Dikic et al., 2009; Husnjak eta Dikic, 2012). Alabaina, lotura horren ondorioz zeluletan erantzun biologiko ezberdinak nola sortzen diren oraindik ez da argitu.

Ubikitinatutako proteinen degradazioan parte hartzen duten ubikitina-hartzaile batzuk (Rpn10 eta Rpn13, esaterako) proteasomaren parte dira, eta proteasomatik hurbil kokatzen diren substratuak jaso eta proteasoma barrura bideratzeko (Madura, 2004). Baina badira ere proteasomaren parte ez diren hartzaileak. Horiek proteasoma-anezkak dira, eta proteasomatik urrun kokatzen diren substratuak identifikatu eta proteasomara hurbiltzen dituzte degradatuak izan daitezen (Hartmann-Petersen eta Gordon, 2004). Identifikatu eta karakterizatutako lehen anezka-proteinak *Saccharomyces cerevisiae* edo legamiako Ddi1, Rad23 eta Dsk2 izan ziren (Kaplun et al., 2005; Lambertson et al., 1999; Zientara-Rytter eta Subramani, 2019). Klasikoki, proteasoma-anezkek amino muturrean UBL (*Ubiquitin-Like*) deritzon ubikitina bezalako domeinua daukate. UBL domeinuak proteasomaren 26S azpiunitateko UBL hartzaileekin

elkarrekiten du (Finley, 2009). Bestalde, proteasoma-anezkek karboxilo muturrean UBD domeinua (*ubiquitin-binding domain*) daukate, ubikitinarekin edo poli-ubikitina kateekin lotzen dena (Bertolaet et al., 2001). Beraz, UBD eta UBL domeinuei esker, anezkek substratuak eta ubikitina hartzaileak batzen dituzte aldi berean, eta substratuak proteoasomara hurbiltzen dituzte bertan degradatuak izan daitezen (Finley, 2009).

1.1.7. Proteasoma

Proteinak gehiago behar ez direnean edo birziklatu behar direnean, ubikitinatu egiten dira, klasikoki K48 motako poli-ubikitina-kateen bidez, eta proteasomara bideratzen dira degradatzera (Swatek eta Komander, 2016). Beraz, proteinen degradazioaz arduratzen den makinaria da proteasoma. Zehazki, 26S deritzon ATP-aren mendeko konplexu multi-katalitikoa da (Matthews et al., 1989), eta zelula eukariotoen zitoplasman nahiz nukleoan aurkitzen da (Peters et al., 1994; Wójcik eta DeMartino, 2003). Bi azpiunitate mota ditu; 19S azpiunitate erregulatzailea (RP, *Regulatory Particle*), proteina ubikitinatuak ezagutu eta degradaziorako prestatzen dituena, eta 20S muina (*CP, Core Protein*), proteina horiek degradatzeaz arduratzen dena (8. irudia) (Finley et al., 2016).



8. irudia. Proteasomaren egitura. A) Legamiaren proteasomaren irudia krioelektroi mikroskopioz. 20S muina bi 19S azpiunitate erregulatzaileren artean kokatzen da, eta guztien artean 26S konplexua eratzen dute. Azpiunitate bakoitza osatzen duten proteinen izenak adierazten dira. Finley et al., 2016tik moldatuta. B) Proteasomaren funtzionamendua erakusten da; poli-ubikitina katea (gorriz) duen substratua (berdez) azpiunitate erregulatzailera sartzen da. ATPasa azpiunitatean destolestu egiten da, eta 20S deritzon atetik pasatuz domeinu katalitikora iristen da. Domeinu hori α eta β egiturez osatuta dago, eta bertan proteina degradatzen da. Azkenik, degradazio produktuak beheko azpiunitate erregulatzailetik ateratzen dira.

Proteasomak bi 19S edo RP azpiunitate-erregulatzaile dauzka, proteasomaren muinaren (20S) alde banatan kokatzen direnak (8. irudia). RP azpiunitate bakoitza 19 proteinaz osatzen da, oinarri eta tapa gisa funtzionatzen duten bi egitura ezberdinetan antolatuta (9. irudia) (Lander et al., 2012). RP azpiunitateko tapa ATPasak ez diren (*non-ATPase*) 9 proteinaz osatzen da: Rpn3, 5–9, 11–12, eta Sem1 legamietan. Guztien artean, metaloproteasen familiako Rpn11 (*Regulatory Particle Non-ATPase 11*) deubikitinasa da gehien ezagutzen dena, substratuen ubikitinak kentzen baititu degradatu behar diren proteinak proteasoma barrura sartzeko (Verma, 2002). Gainerakoek, Rpn11 bere lekuan mantenduz, deubikitinasaren aktibitatea erregulatzen dutela uste da (Dambacher et al.). Bestalde, RP azpiunitateko oinarria den azpi-konplexua sei ATPasaz (Rpt1-6) eta lau ez-ATPasaz (Rpn1, Rpn2, Rpn10 eta Rpn13) dago osatua (Lander et al., 2012). ATPasek eraztun hetero-hexameriko bat eratzen dute. Eraztun horretan, ATParen hidrolisitik lortutako energia erabiltzen da degradatu behar diren proteinak destolestu, eta proteasomaren muinera translokatzeko (Tomko et al., 2010). Aldiz, ez-ATPasen artean, Rpn10 eta Rpn13 proteinak ubikitina-hartzaileak dira, eta poli-ubikitinatutako proteinak ezagutzen dituzte (Deveraux et al., 1994; Husnjak et al., 2008). Rpn1 eta Rpn2 proteinek antzeko funtzioa burutzen dute, normalean ubikitina-hartzaileek dituzten ubikitina-batzeko domeinuetara batuz (Rosenzweig et al., 2012).



9. irudia. 19S azpiunitate erregulatzailearen egitura. Bi atal bereizten dira, tapa, non ubikitina hartzaileak eta ATPasak ez diren proteinak kokatzen diren, eta oinarria, aktibitate katalitikoa duten ATPasa eraztunez eta ubikitina-hartzailez osatua dagoena. Poli-ubikitinatutako substratuen ubikitina kateak Rpn10 eta Rpn13 proteinek ezagutzen dituzte, eta substratua Rpn11 proteinaren inguruan kokatzen da. Substratuaren destolespena oinarrian kokatzen den ATPasen eraztunak burutzen du, gero 20S azpiunitatean proteina degradatua izan dadin. Finley et al., 2016tik moldatuta.

Behin proteinak RP azpiunitatean deubikitinatu eta destolesten direnean, proteasomaren 20S edo muinera translokatzen dira (Finley et al., 2016). Upel itxurako egitura hori 28 proteinaz osatzen da (10. irudia). Proteina horiek bata bestearen gainean kokatzen diren lau eraztun hetero-heptamerikotan antolatzen dira (Groll et al., 1997). Kanpoaldeko bi eraztunak α-motako egiturak dira, aldiz, barneko biak β-motakoak (Finley et al., 2016; Lowe et al., 1995). β1, β2 eta β5′ posizioko proteinek aktibitate proteolitikoa daukate eta hondar hidrofobiko, basiko eta azidoak prozesatzen dituzte, hurrenez hurren (Finley et al., 2016). Horien gune aktiboak muinaren barnealdera begira kokatzen dira, eta bertara sartzen diren proteinak oso azkar degradatzen dira (Finley et al., 2016; Groll et al., 1997).



10. irudia. 20S muinaren egitura. A) Eraztun heptamerikoa goitik eta albotik ikusita. Albotiko irudian, lau eraztun hetero-heptamerikoak bata bestearen gainean nola kokatzen diren bereizten da. Finley et al., 2009tik hartuta. B) 20S azpiunitatearen barnealdean proteinen digestioaz arduratzen diren hiru proteina katalitikoak azpimarratu dira (β5′, β2 eta β1). Finley et al., 2009tik hartuta.

1.2. Ubikitinazio-motak eta funtzioak

XX. mende bukaeratik gaur egun arte eginiko ikerketek argi utzi dute ubikitinazioak proteinen degradazioa bideratzeaz gain, prozesu biologiko ugaritan parte hartzen duela (Popovic et al., 2014; Swatek eta Komander, 2016). Ubikitina proteinako aminoazido ezberdinei lotu daiteke, eta konfigurazio-aukerak izugarri handiak direnez, ubikitina-kate ezberdinak sortzen dira. Hain zuzen ere, heterogeneitate horri zor zaio ubikitinazioak horrenbeste funtzio bete ahal izatea, kate mota bakoitzak irakurketa espezifikoa izango baitu zelulan (Swatek eta Komander, 2016).

Ubikitinazio mota guztien artean, mono-ubikitinazioa, alegia, substratuari ubikitina bakar bat gehitzea, da sinpleena (11. irudia)(Hicke, 2001; Kaiser et al., 2011). Mono-ubikitinazioak zelularentzako oinarrizkoak diren hainbat funtziotan parte hartzen du: transkripzioaren erregulazioan (Pham eta Sauer, 2000), mintz-plasmatikoko proteinen eta hartzaileen barneraketan (Haglund et al., 2003; Terrell et al., 1998; Yao eta Xu, 2020), proteinen aktibitatearen erregulazioan (van Delft et al., 1997; Di Fiore et al., 2003) edota zelula barneko proteinen lokalizazioan (Landré et al., 2017; Yao eta Xu, 2020). Mono-ubikitinazioa aldi berean substratuko hainbat lisinetan gertatzen denean, multi-mono-ubikitinazioaz ari gara (11. irudia).

Eraldaketa hori endozitosiarekin edo ubikitinatutako proteinen lisosometarako garraioarekin erlazionatu da (Haglund et al., 2003).

Proteinetan poli-ubikitina kateak ere era daitezke, ubikitinak berak ubikitinatu daitezkeen 8 amino talde baititu; amino muturreko metioninarena (M1) eta sekuentzia barruko zazpi lisinen albo katekoak (K6, K11, K27, K29, K33, K48, K63) (11. irudia). Ubikitina substratuari atxiki ostean, printzipioz, ubikitinaren 8 amino taldetatik edozein ubikitinatu daiteke (Komander eta Rape, 2012; Swatek eta Komander, 2016). Ubikitinak elkarren artean lotzen diren moduaren arabera, konfigurazio ezberdinetako poli-ubikitina-kateak eratzen dira. Poli-ubikitina-katean zehar erabilitako lisinak berdinak badira, katea homogeneoa izango da (adibidez, K48-kateak). Aitzitik, katearen eraikuntzan lisina ezberdinek parte hartzen badute, katea heterogeneoa da (adibidez, K48/K11-katea). Aldi berean ubikitina bakar bateko hainbat lisina eraldatzen badira, kate adarkatuak sortzen dira (11. irudia).



11. irudia. Ubikitinazio-motak. Ubikitina molekularen amino muturra eta barneko zazpi lisinak (K7, K11, K27, K29, K33, K48, K63) ubikitinatu egin daitezke. Hori dela eta, mono-ubikitinazioaz gain, poli-ubikitina kateak eratu daitezke. Ubikitinatzen den barneko lisina beti berdina bada, kate homogeneoak eratzen dira. Aldiz, katean zehar ubikitinaren lisina ezberdinak ubikitinatzen badira, kate heterogeneoak sortzen dira. Bi kasuak batera ematen direnean, kate adarkatuak osatzen dira. Ubikitinazio-motaren eta eratutako poli-ubikitina-kate motaren arabera, proteinari funtzio edo ezaugarri ezberdin bat esleitzen zaio.

Poli-ubikitina-kateen artean homogeneoak dira ikertuenak, eta beraz, hobekien karakterizatutakoak. Horien artean ugariena K48 motako katea da (Kaiser et al., 2011; Swatek eta Komander, 2016). K48 kateek konfigurazio konpaktua daukate (Eddins et al., 2007), eta klasikoki proteinen degradazioarekin erlazionatu izan diren arren (Ciechanover, 2013; Glickman eta Ciechanover, 2002; Grice eta Nathan, 2016; Hu et al., 2021; Thrower et al., 2000), funtzio ez-degradatiboetan ere parte hartzen dute (Flick et al., 2006). Bigarren kate homogeneo mota ugariena K63 motakoa da (Kaiser et al., 2011). K63 kateek konfigurazio irekiagoa dute (Komander, 2009), eta nagusiki degradazioarekin zerikusirik ez duten funtzioekin erlazionatu dira: kinasak aktibatzea (Deng et al., 2000; Newton et al., 2008), DNA-kalteen aurkako erantzuneko proteinak biltzea (Bennett eta Harper, 2008; Hoege et al., 2002; Zhao et al., 2007) edota proteinen lokalizazioa baldintzatzea (Wang et al., 2018b). Gainerako kate-homogeneoak neurri txikiagoan agertzen diren arren, funtzio biologiko garrantzitsuak deskribatu zaizkie. Horien artean, K6 motako kateek, Parkin E3 ligasaren aktibitatea kontrolatuz, mitofagia erregulatzen dute (Durcan et al., 2014). K11 motako kate sinpleek zelulen zatiketa erregulatzen dute (Wickliffe et al., 2011). K6- eta K33-kateek DNA-kalteen aurkako erantzunean (Elia et al., 2015; Swatek eta Komander, 2016) eta TNF bidezko seinaleztapenean hartzen dute parte (Dynek et al., 2010). K27 kate-motek MEK/ERK seinaleztapen bidea (Yin et al., 2019) eta immunitate-sistema erregulatzen dituzte (Wu et al., 2019b). K29 motako kateak estres proteasomikopean detektatu dira, beraz uste da proteasoma bidezko degradazioa kontrolatzen dutela poli-ubikitinatutako proteinen ezagutza oztopatuz (Besche et al., 2014). Horrez gain, K29-kateek Wnt/β-katenina seinalizazioa negatiboki erregulatzen dutela ere ikusi da (Fei et al., 2013). K33 motako kateek konfigurazio irekia azaltzen dute (Michel et al., 2015), eta proteinen trafikoarekin eta DNA-kalteen aurkako erantzunarekin erlazionatu dira (Elia et al., 2015). Azkenik, amino muturreko kate linealek hanturan eta erantzun

immunean parte hartzen dute (Gerlach et al., 2011) eta NF-kB seinaleztapen-bidea erregulatzen dute (Rittinger eta Ikeda, 2017; Tokunaga et al., 2009).

Kate heterogeneoen ikerketak gero eta ugariagoak dira, erronka teknologiko handiagoa suposatzen badute ere. Adibidez, K11/K48 motako kateek proteinen degradazioan (Baur eta Rape, 2020) nahiz zelulen zikloan eta kalitate kontrolean parte hartzen dutela ikusi da (Yau et al., 2017). Are gehiago, M1/K63-kate mixtoek NF-kB seinaleztapen bidearen eta berezko immunitate sistemaren aktibazioan hartzen dute parte (Emmerich et al., 2013, 2016).

Aitzitik, ubikitina kate adarkatuen funtzioa proteinak degradaziora bideratzea dela ikusi dute (Ohtake et al., 2018). K11 motako kate adarkatuek proteasomaren bidezko degradaziorako seinale gisa jarduten dute zelularen zatiketan ubikitinatutako substratuen errekonozimendua erraztuz (Meyer eta Rape, 2014). K48/K63-kate adarkatuek NF-kB seinaleztapen bidea, eta K29/K48 kate adarkatuek autofagia erregulatzen dutela ere baieztatu dute (Chen et al., 2021; Ohtake et al., 2016).

Ubikitinazio-motarik ohikoena substratuen lisinetan ematen den arren, zisteina, serina eta treonina hondarretan, nahiz ubikitinaren amino muturreko amino talde askean ere eman daiteke (Spit et al., 2019; Wang et al., 2012). Ubikitinazio-mota horiek degradazioan, ERAD prozesuetan, seinaleztapenean edota hartzaileen birziklapenean parte hartzen dutela frogatu izan dute (McClellan et al., 2019).

1.3. UPS: gaixotasunak eta itu terapeutikoak

Ubikitina-proteasoma sistemaren funtzionamendu egokia berebizikoa da zelularen biziraupenerako. Sistema horretan prozesu ugari zehatz erregulatu behar dira. Batetik, proteinen ubikitinazioa emateko, E1, E2 eta E3 proteinen arteko koordinazio estua behar da, eta bestetik, zelulako oreka mantentzeko, DUBen jarduera egokia ezinbestekoa da. Sistema horretako osagairen batek gaizki funtzionatzen duenean, arazoak sor daitezke proteinen birziklapenean, seinaleztapen-bideetan, eta oro har, ubikitinazioak erregulatzen dituen prozesu

guztietan. Beraz, ez da harritzekoa UPSren homeostasiaren galera hainbat gaixotasunen etiologiarekin erlazionatuta egotea.

Hori kontuan izanda, azken urteotan UPS itu garrantzitsu bilakatu da gaixotasun horien tratamendura bidean. Taula honetan laburbildu da UPSko osagai ezberdinek zein gaixotasunetan parte hartu dezaketen, eta osagai horiek itu terapeutiko gisa erabili izan dituzten ikerketen erreferentziak (1. taula):

1. taula. UPSko osagai desberdinak eta horiekin erlazionatutako gaixotasun eta ikerketak.

UPSko osagaia	Gaixotasuna	Ikerketak
E1 entzimak	• Bizkarrezurreko muskulu-atrofia (Groen eta Gillingwater, 2015; Shaughnessy et al., 2020) • Minbizia (Xu et al., 2010b)	Muskulu-atrofia: Itoh eta Suzuki, 2018; Powis et al., 2016 Minbizia: Barghout eta Schimmer, 2018; Deng et al., 2020; Hyer et al., 2018; Liu et al., 2015; Yang et al., 2007; Zhuang et al., 2019
E2 entzimak	• Fanconi anemia (Hira et al., 2015; Zhang et al., 2011) • Gaixotasun immunologikoak (Han et al., 2009; Pruneda et al., 2014; Stahl et al., 2010) • Minbizia (Luo et al., 2016; van Ree et al., 2010) • Atrofia muskulu eskeletikoa (Polge et al., 2015) • UBE2A gabeziaren sindromea (de Leeuw et al., 2010; Nascimento et al., 2006) • Gaixotasun neurologikoak (Osinalde et al., 2018) • Huntington gaixotasuna (de Pril et al., 2007; Wang et al., 2018a) • Parkinson gaixotasuna (Fiesel et al., 2014; Geisler et al., 2014) • Adimen urritasuna eta atzerapen mentala (Budny et al., 2010; de Oliveira et al., 2019; Tsurusaki et al., 2017)	Gaixotasun immunologikoak: (Zhou et al., 2020) Fanconi anemia: (Cornwell et al., 2019; Morreale et al., 2017) Minbizia: (Cheng et al., 2014; Deng et al., 2020; Liang et al., 2017; Liu et al., 2015; Ramatenki et al., 2016; Vila et al., 2017; Zhou et al., 2020)

E3 entzimak	• Gaixotasun neurologikoak (George et al., 2018; Osinalde et al., 2018) 1. Angelman sindromea (Khatri eta Man, 2019) • Minbizia (Sala-Gaston et al., 2020; Wang et al., 2020a) • Gaixotasun inflamatorioak (Popovic et al., 2014)	Minbizia: (Deng et al., 2020; Liu et al., 2015) Gaixotasun inflamatorioak: (Goru et al., 2016)
DUBak	• Gaixotasun neurologikoak (Osinalde et al., 2018) • SCA3 (*spinocerebellar ataxia-3*) (Evers et al., 2014; Paulson eta Shakkottai, 1993) • Minbizia (Popovic et al., 2014; Zeng et al., 2020) • Gaixotasun immunologikoak (Sun, 2008)	Minbizia: (Chen et al., 2020; D'Arcy et al., 2015; Deng et al., 2020; Pinto-Fernandez eta Kessler, 2016; Young et al., 2019; Yuan et al., 2018) SCA3: (Evers et al., 2013; Li et al., 2015) Gaixotasun immunologikoak: (Lopez-Castejon eta Edelmann, 2016)
Proteasoma	Proteasomaren aktibitate murriztua • Neuroendekapenezko gaitzak (Thibaudeau et al., 2018) • Gaitz autoimmuneak (Feist et al., 2016) • Minbizia (Chen et al., 2017) Proteasomaren gehiegizko aktibitatea • Muskulu-atrofia (Gomes et al., 2012; Kitajima et al., 2020) • Gaitz autoimmuneak (Feist et al., 2016) • I motako diabetes mellitusa (Alexandrova et al., 2006; Broca et al., 2014) • Minbizia (Chen et al., 2017)	Gaitz autoinmuneak: (Verbrugge et al., 2015; Xiao et al., 2017) Minbizia: (Narayanan et al., 2020; Zhang et al., 2020) Muskulu-atrofia:(Beehler et al., 2006; Caron et al., 2011) Diabetesa: (Otoda et al., 2018) Orokorra: (Wang et al., 2020b)

2. Angelman sindromea

Angelman sindromea (AS, OMIM #105830) populazioan 15.000 pertsonatik batek jasaten duen gaixotasun bakana da (Margolis et al., 2015). Euskadi/Espainia mailan familien elkarteak ere osatu dira azkenengo urteetan (https://angelman-asa.org/). Lehengo kasua 1965ean Harry Angelman doktoreak deskribatu zuen, erlaziorik gabeko hiru haurrek ez-ohiko ezaugarri fisiko berdinak zituztela behatu ostean (Angelman, 1965). Sindrome hori pairatzen duten pertsonek adimenaren garapenaren atzerapena eta hitz egiteko ezintasuna dute (Bird, 2014; Williams et al., 2010). Sarritan ezaugarri horiekin batera epilepsia, arazo gastrointestinalak eta lo egiteko zailtasunak izaten dituzte (Bakke et al., 2018; Bindelsde Heus et al., 2020; Glassman et al., 2017; Samanta, 2021; Spruyt et al., 2018). Gaixotasunaren oinarri genetikoaren arabera, ezaugarri fisikoak desberdinak izan daitezke. Horien artean etengabeko irribarrea da bereizgarriena. Horrez gain, mugitzeko zailtasunak, oinezkera baldarra, eta sarritan, eskuak gorantz igotzeko joera izaten dute (Bindelsde Heus et al., 2020). Haur gehienen aurpegiak morfologia normala izan arren, batzuek aho handia edo ezpain-sudur arteko distantzia txikia daukate eta mihia kanpoan izan ohi dute (Buiting et al., 2016). Mikrozefalia bezalako aberrazio anatomikoak ere ohikoak dira (Bindelsde Heus et al., 2020; Sachdeva et al., 2016) (12. irudia).

12. irudia. Angelman sindromedun indibiduoen ezaugarriak. Gaixotasunaren ezaugarri fisikoak desberdinak izan ohi dira oinarri genetikoaren arabera. Ezaugarrien artean aurkitzen dira; aurpegi alaia eta irribarretsua, eskuak gorantz izateko joera (a eta b), mikrozefalia (a, b, e eta f) eta mihia kanpoan izatea (e, f). Buiting et al., 2016tik hartuta.

Oro har, ezaugarri horiek urtebetetik aurrera azaltzen dira, nahiz eta atzerapen psikomotorra sei hilabeterekin ere detektatu daitekeen (Tan et al., 2011). Hortaz, sindromea normalean urte bat edo bi dituzten haurretan diagnostikatzen da (Margolis et al., 2015). Gaur egun, diagnostiko hori test genetikoen bidez burutzen da, beraz, jaio aurretik burutu daiteke (Beygo et al., 2019; Hu et al., 2016). Urteak pasa ahala, gaixotasuna inoiz desagertu ez arren, ezaugarriak ezkutatu egin daitezke, neurri batean bada ere. Indibiduo horien bizi-itxaropena normala da, baita garapena eta ugalkortasuna ere (Buiting et al., 2016). Edonola ere, bizi osoan zehar zaintzaile baten beharra izaten dute, izaera esploratzailea adimen urritasunarekin konbinatuta, Angelman sindromedun indibiduoek istripu-arrisku handia baitaukate (Bird, 2014).

2.1. Oinarri genetikoa

Angelman sindromea 15q11-q13 kromosoma-eremuan ematen diren aberrazio genetiko eta epigenetikoen ondorioz sortzen da. 1987an elkarren artean erlaziorik ez zuten, eta Angelman sindromearen ezaugarriak azaltzen zituzten bi emakumek kromosoma-eremu horretan delezio bat zutela ikusi zuten (Magenis et al., 1987). Ordura arte eremu horretako delezioa Prader-Willi deritzon sindromearekin erlazionatu zen, alegia, hipotonia eta obesitatea bezalako ezaugarriak dituen gaixotasun genetiko konplexuarekin (Kalsner eta Chamberlain, 2015). Eremu-kromosomiko berdin bateko delezioak sindrome ezberdin bi sortzen zituela ikusirik, ikerketak gune horretan zentratu ziren. Bertan kokatzen diren geneak inpronta genomiko deritzon mekanismo batez isilduta daudela ondorioztatu zuten (Knoll et al., 1989; Magenis et al., 1990). Zehazki, eremu horretako gene batzuk inpronta aitatiarra, eta horrenbestez, adierazpen amatiarra dutela frogatu zuten. Beste batzuk, ordea, inpronta amatiarra dutenez, adierazpen aitatiarra daukate. Eta badaude ere adierazpen bialelikoa duten geneak (Margolis et al., 2015). Hain zuzen ere, adierazpen aitatiarra duten geneen galerak Prader-Willi sindromea sortzen dute. Aldiz, Angelman sindromea, neuronetan adierazpen amatiarra duen, eta 15q11-q13 lokusean kokatzen den *UBE3A* genearen funtzio galerak sortzen du (Buiting et al., 2016; Vu eta Hoffman,

1997). Gene horrek 120 kb eta 16 exoi ditu, eta UBE3A E3 ubikitina-ligasa kodetzen du (Kishino eta Wagstaff, 1998; Kishino et al., 1997).

Geneen inpronta aitarengandik eta amarengandik jasotako kromosometako geneak modu ezberdinean adierazteko mekanismoa da. Normalean, inpronta markaketak zitosina-guanina di-nukleotidoetan aberatsak diren DNA eremuei (CG guneak) metilo talde bat kobalenteki atxikiz sortzen dira. Eremu horiek inpronta-zentru bezala ezagutzen dira, eta zentru horien metilazioak inguruko gene-multzoen adierazpena ekiditzen du. 15q11-q13 kromosoma-eremuan bi inpronta zentru daude, SNURF/SNRPN geneen sustatzaile eremuan kokatzen direnak; Angelman sindromearen inpronta-zentrua (AS-IC, *Angelman Syndrome Imprinting Center*) eta Prader-Willi inpronta-zentrua (PW-IC, *Prader Willi Imprinting Center*)(13. irudia). PW-IC inpronta-zentruaren metilazioak ondoko gene multzo baten adierazpena ekiditen du. Alabaina, UBE3A genearen adierazpena ez da zuzenean metilazioz erregulatzen, baizik eta PW-IC-an hasten den eta UBE3A-AS deritzon transkripto batek erregulatzen du. Hau da, PW-IC inpronta-zentrua metilatu gabe dagoenean (aitaren kromosoman), UBE3A-AS transkribatu egiten da, eta horrek UBE3A genearen adierazpena blokeatzen du. Aldiz, inpronta-zentrua metilatuta dagoenean (amaren kromosoman), ez da AS-UBE3A transkriptoa adierazten, eta ondorioz, UBE3Aren adierazpena normala da. Neuronak ez diren gainerako zeluletan, transkripto hori ez da UBE3A generaino iristen. Hortaz, zelula horietan UBE3A genea inprontapean aurkitzen ez denez, adierazpen bi-alelikoa mantentzen da (Maranga et al.).



13. irudia. UBE3A genearen inpronta-mekanismoa. Neuronetako kromosoma aitatiarrean PW-IC inpronta-zentrua metilatu gabe dagoenez, UBE3Aren adierazpena ekiditen duen UBE3A-AS transkriptoa kodetzen da. Neuronetako kromosoma amatiarrean, aldiz, inpronta-zentrua metilatuta dagoenez, ez da UBE3A-AS transkriptoa kodetzen, eta UBE3A genea adierazi egiten da. Urdinez adierazpen bi-alelikoa duten geneak, berdez adierazpen aitatiarra duten geneak, grisez inpronta-zentruak eta gorriz isildutako geneak. Biribilak kromosoman kodetzen diren geneak eta karratuak inpronta-zentruak. Marra etenez BP1-BP5 hauste-puntuak. Maranga et al., 2020tik moldatuta.

Hori horrela izanik, Angelman sindromea lau arazo genetikoren ondorioz eman daiteke (14. irudia). Batetik, ohikoenak (kasuen % 75) amaren kromosomako 15q11-q13 delezioak izaten dira (Margolis et al., 2015), alegia inpronta-domeinu osoa eta inprontapean ez dauden zenbait gene ere hartzen dituzten *de novo* sortutako 5-7 Mb arteko delezioak. Delezio horiek errekonbinazio ez-homologoz ematen dira, hauste-puntuetan aurkitzen diren errepikapenezko sekuentzien ondorioz. Normalean, delezioak sei hauste-puntutatik sortzen dira (BP1-BP3, BP4A, BP4B eta BP5) (13. irudia) (Buiting et al., 2016). Angelman sindromedun banakoek bi klasetako delezioak azaltzen dituzte inplikatutako hauste-puntuaren arabera; I klasekoak (BP1 eta BP3 hauste-puntuetatik sortutakoak, delezio-kasuen % 40) eta II klasekoak (BP2 eta BP3 hauste-puntuetatik sortutakoak, delezio-kasuen % 50). Kasu gutxi batzuetan (% 10a baino gutxiago), 10.6 Mb-rainoko delezio handiagoak eman daitezke (BP3tik BP4 edo BP5 hauste-puntuetaraino) (Sahoo et al., 2007). Delezio horiek guztiak GABA hartzaileei dagozkien hiru gene ere barne hartzen dituzte (GABRB3, GABRA5 eta GABRG3).

Angelman sindomea pairatzen duten gaixoen % 5-10ak UBE3A genea mutatuta dauka (Buiting et al., 2015; Kishino et al., 1997; Matsuura et al., 1997). Horien artean gehienek stop kodoi goiztiarren bat daukate (Buiting et al., 2016; Margolis et al., 2015). Amaren aleloan 73 mutazio ezberdin identifikatu dira, gehienak E3 ligasaren HECT domeinu katalitikoari eragiten diotenak (Sadikovic et al., 2014).

Gaixoen % 1-2ak aitarengandik jasotako kromosomen disomia (UPD, *Paternal Uniparental Disomy*) aurkezten du. Horrek esan nahi du 15. kromosoma biek jatorri aitatiarra dutela (Margolis et al., 2015; Nicholls et al., 1992), eta beraz, bi aleloak inprontapean daudenez, adierazpen amatiarreko kopia aktiborik ez daukatela.

AS duten banakoen % 1-3ak inpronta-zentruetako arazoak ditu. Arazoak genetikoak izan daitezke, adibidez, inpronta-zentruen mikrodelezioak ematen direnean (Buiting et al., 1995). Beste kasu batzuetan, arazoak epigenetikoak izaten dira; amarengandik jasotako kromosomako inpronta-zentruaren metilazio faltagatik, UBE3A-AS transkriptoa adierazi eta amaren UBE3A isildu egiten da (Beygo et al., 2020; Buiting et al., 2003, 2016). Edonola ere, arazo horien fenotipoa delezioena baino leunagoa da (Bird, 2014; Williams et al., 2010). Horrek erakusten

du 15q11-q13 lokusean adierazpen bi-alelikoa duten geneek gaixotasunaren larritasunean eragina daukatela (LaSalle et al., 2015).



14. irudia. Angelman sindromea eragiten duten akats genetikoak. Neuronetan egoera normalean aurki daitezken kromosomen egitura eta horietan eman daitezkeen lau arazo genetikoak: amaren kromosomako 15q11-q13 eremuaren delezioa (% 75), UBE3A genearen mutazioak (% 5-10), aitarengandik jasotako kromosomen disomia (UPD) (% 1-2) eta inpronta arazoak (% 1-3). Kromosoma amatiarra grisez adierazten da, eta aitatiarra urdinez. Karratu berdea adierazten den UBE3A geneari dagokio, eta gorria, aldiz, inprontapean isilduta dagoen UBE3A geneari. Laranjaz, mutazio puntuala irudikatu da.

Edonola ere, gaixotasunaren arrazoi molekularra anomalia kromosomiko eta epigenetiko guztien azpian dagoen UBE3A proteinaren funtzio-galera da. UBE3A forma trunkatuen sorrera dakarten mutazio puntualak nahikoa dira sindromea garatzeko (Kishino et al., 1997; Matsuura et al., 1997).

2.2. UBE3A E3 ligasa

UBE3A 100 kDa inguruko ubikitina E3 ligasa bat da (Scheffner et al., 1993). Lehenbizi deskribatu zenean behatu zuten UBE3Ak p53 proteinaren ubikitina-bidezko degradazioa bultzatzen zuela, 16 eta 18 motako giza-papilomabirusaren E6 onkoproteinarekin konplexua eratuz (Huibregtse et al., 1991; Scheffner et al., 1993). Horregatik E6AP (*E6-Associated Protein*) izenez ere ezagutzen da

(Huibregtse et al., 1991). UBE3Ak karboxilo muturrean duen zisteina baten bidez ubikitinarekin tioester bitartekari bat eratzen du. Zisteina hori barne hartzen duen 350 aminoazidoko eremua proteina ezberdinen artean kontserbatuta dagoela ikusi zuten, eta HECT (*Homologous to the E6-AP Carboxyl Terminus*) domeinu izendatu zuten (Huibregtse et al., 1991; Scheffner et al., 1993).

Aurrez aipatu bezala, gorputzeko gainerako ataletan ez bezala, neuronetan UBE3aren adierazpena inprontapean dago (Buiting et al., 2016). Entzimaren mailak estuki kontrolatuta egotea ezinbestekoa da garunak modu egokian funtziona dezan. Hori horrela, UBE3Aren gabeziak AS sortzen duen bitartean, gehiegizko dosiak autismoaren espektroko gaixotasunak (*Autism Spectrum Disorders*, ASD) sortzen ditu (Copping et al., 2017; Noor et al., 2015; Smith et al., 2011; Urraca et al., 2013; Yi et al., 2015).

In vitro ikerketek erakutsi dutenez, UBE3Ak K48-motako kateak eraikitzeko joera dauka (Wang eta Pickart, 2005). Hori dela eta, proteinak degradaziora bidaltzea da E3 ligasa horri esleitu zaion funtzio nagusia. Hala ere, gaur egun badakigu UBE3Ak funtzio-aniztasun handiagoa duela. Esaterako, p18/LAMTOR1 ubikitinatuz eta degradaziora bideratuz, plastikotasun sinaptikoa erregulatzen du (Sun et al., 2018; Vatsa eta Jana, 2018), proteasoma inhibituz Wnt/β seinalizazio-bidea aktibatzen du (Yi et al., 2017), eta dendriten morfogenesian ere parte hartzen du (Miao et al., 2013). Horrez gain, ASa duten indibiduoek azaldu ohi duten hipopigmentazioarekin erlazionatutako MC1R proteinaren transkripzioa erregulatzen du (Low eta Chen, 2011), eta 26S proteasoma ubikitinatzen du (Jacobson et al., 2014). Nukleoko hormona hartzaileen ko-aktibatzaile gisa ere jardun dezake (Nawaz et al., 1999). Oraintsu, UBE3Aren galera Alzheimer gaixotasuneko patologia sinaptikoarekin erlazionatuta dagoela ere ikusi dute (Olabarria et al., 2019). Funtzio horiekin guztiekin ez ezik, UBE3A zelulako beste hainbat prozesurekin erlazionatu dute (Lopez et al., 2019; Martínez-Noël et al., 2018), baina ligasa aktibitatea da AS fenotipoaren eragilea. Izan ere, ligasa aktibitatea kaltetua daukaten zelulek, hartzaile aktibitatea bere horretan mantentzen dute (Nawaz et al., 1999; Yi et al., 2015). Hori dela eta, ASren patofisiologia hobeto ulertzeko, ezinbestekoa da ligasa aktibitate horrekin erlazionatutako UBE3Aren neuronetako substratuak identifikatzea.

2.2.1. UBE3Aren substratuak

UBE3A E3 ligasaren gabezia Angelman sindromearen eragilea zela jakin zenetik (Kishino et al., 1997; Matsuura et al., 1997) hainbat saiakera egin dira garunean entzima horren substratuak identifikatzeko, gaixotasunaren mekanismo molekularra hobeto ulertzeko helburuarekin. Deskribatu zen lehen substratua p53 proteina izan zen (Huibregtse et al., 1991). UBE3A adierazten ez zuten saguetan p53 proteinaren maila altuak atzeman zituzten, eta hori ubikitina bidezko degradazio ezagatik izan zitekeela proposatu zuten (Jiang et al., 1998). Ordutik, UBE3Aren hainbat substratu identifikatu dira; DNAren erreplikazioan parte hartzen duen Mcm proteina (Kühne eta Banks, 1998), Bak proteina proapoptotikoa (Thomas eta Banks, 1998), Blk tirosina kinasa (Oda et al., 1999), proteinen degradazioan eta DNAren konponketan parte hartzen duen HHR23A proteina (Kumar et al., 1999) edota AIB1 (Mani et al., 2006), p27 (Mishra et al., 2009) eta Ring1B proteinak (Zaaroor-Regev et al., 2010). Horrez gain, UBE3A bera ere auto-ubikitinatu egiten da, eta beraz, bere jarduera nola modulatzen den azaltzeko, auto-erregulazio mekanismo bat proposatu da (Greer et al., 2010; Nuber et al., 1998).

XXI. mendean, masa espektrometriaren garapenak UBE3Aren balizko substratu gehiagoren identifikazioa ahalbidetu du; esaterako, Pbl eta ATPα proteinak *Drosophila melanogaster* eulian (Jensen et al., 2013; Reiter et al., 2006), Arc eta Epexina-5 proteinak saguen burmuinetan (Greer et al., 2010; Margolis et al., 2010) eta Anexina A1 giza kartzinoma zeluletan (Shimoji et al., 2009).

Hala ere, gaur gaurkoz, oraindik ez dute frogatu proteina horiek zelulako baldintzetan zuzenean UBE3Aren jardunez ubikitinatzen direnik. Ikerketa batzuk, substratuen mailak UBE3Aren presentzian edo faltan aldatu egiten direla frogatu dute (AIB1, Bak, Blk, Mcm7, p53 edo Pbl-ren kasuan) (Jiang et al., 1998; Kühne eta Banks, 1998; Mani et al., 2006; Margolis et al., 2010; Oda et al., 1999; Reiter et al., 2006). Alabaina, ebidentzia ez-zuzena da, proteina horien ugaritasuna beste faktore batzuen mende egon baitaiteke, esaterako transkripzio-mailako erregulazioa. Beste kasu batzuetan, zuzenean UBE3Arekin elkarrekiten duten substratuak identifikatu dituzte, baina *in vitro* saioak erabiliz (esaterako, Arc, HHR23A, ATPα, p27, Ring1B eta UBE3A)(Greer et al., 2010; Jensen et al., 2013; Kumar et al., 1999; Mishra et al., 2009; Nuber et al., 1998; Zaaroor-Regev et al., 2010). *In vivo* burututako saioak, berriz, afinitate purifikazioetan oinarritu dira, eta

saio horietan proteina kontaminatzaileak aurkitzeko aukera handia dago (Anexina A1 eta Epexina 5) (Margolis et al., 2010; Shimoji et al., 2009). Adibide horiek guztiek agerian uzten dute teknologiaren garapenari esker, aurrera pausu handiak egin direla UBE3Aren substratuen identifikazioan; ez horrenbeste beraien balioztatzean. Hori dela eta, UBE3Aren substratuak *in vivo* balioztatzea erronka nagusia bilakatu da.

UBE3Aren substratuen identifikazio-metodo fidagarrien faltagatik emaitza kontrajarriak azaldu izan dira literaturan. Esaterako, *in vitro* burututako esperimentu batean Arc proteina UBE3Aren substratu dela baieztatu zuten (Greer et al., 2010), baina beste talde batek Arc proteinaren ubikitinazioa ez duela UBE3Ak kontrolatzen erakutsi du (Kuhnle et al., 2013), eta beste E3 ligasa ezberdin bat proposatu du Arc-en erregulatzaile gisa (Mabb et al., 2014). Modu berean, hasiera batean Na^+/K^+ ATPasa UBE3Aren substratu gisa deskribatu zen arren (Jensen et al., 2013), ATPasaren eta E3 ligasaren arteko interakziorik ezin izan da detektatu ASren modelo diren saguen burmuinetan (Kaphzan et al., 2011). Horrek guztiak efektu ez-zuzen bat egon daitekeela pentsarazten digu. Hau da, UBE3Ak zuzeneko substratuak ubikitinatzen ditu, eta horiek, nolabait, deskribatu diren beste proteina horietan dute eragina. Hortaz, efektu ez-zuzen batez eraldatutako proteina horiek ASa duten pazienteetan garrantzitsuak izan daitezkeen arren, horien gainetik dauden substratu zuzenak ezagutzea da interesgarriagoa, berauen erregulazio faltak eragin baitezake ASren patofisiologia (Sell eta Margolis, 2015).

UBE3Aren substratu zuzenak identifikatzeko ahalegin horretan, gure taldeak *Drosophila melanogaster* euliaren neurona fotohartzaileetan burututako ikerketa batean *Ube3a* proteinaren balizko substratuen lista bat lortu du (Ramirez et al., 2018). Zerrenda horretan, besteak beste, *Rngo* anezka-proteina dago, legamietan (*Ddi1*) nahiz gizakietan (DDI1 eta DDI2) kontserbatuta aurkitzen dena.

Legamietako *Ddi1* proteinak proteasoma-anezka gisa jarduten du (Sivá et al., 2016), proteinen birziklapenean parte hartzen du (Sirkis et al., 2006), zenbait t-SNARE proteinekin elkartzen da (Marash eta Gerst, 2003), eta exozitosia edo proteinen sekrezioa erregulatzen ditu (Lustgarten eta Gerst, 1999; Perteguer et al., 2013). Guzti hori dela eta, SNARE-bidezko exozitosia kontrolatuz, transmisio sinaptikoan parte hartzen duen proteina bezala deskribatu da (Gabriely et al., 2008). Aldiz, ornodunetan dituen bi homologoen −DDI1 eta DDI2− funtzio

biologikoa ez da oraindik guztiz argitu (Morawe et al., 2011). Giza DDI2 proteinak proteasa gisa jarduten du (Mótyán et al., 2020; Perteguer et al., 2013); Nrf1 moztu eta aktibatzen du proteasomaren funtzioa kaltetuta dagoenean (Koizumi et al., 2016). Aldiz, ez da oraindik giza DDI1 proteinaren funtzio biologikorik deskribatu. Horrez gain, DDI2 giza gorputzeko ehun guztietan aurkitzen bada ere, DDI1en lokalizazioa barrabil-ehunetara mugatzen da gehienbat (Uhlén et al., 2015).

DDI1/DDI2 proteinen garrantzia biologikoa argitzeke dagoen arren, beraien egiturak ezagunak dira. Legamien Ddi1 (yDdi1), *Drosophila melanogaster*ren Rngo, saguen DDI1/DDI2 (mDDI1/mDDI2) eta gizakion DDI1/DDI2 (hDDI1/hDDI2) proteinek hiru domeinu dituzte, espezie guztien artean kontserbaturik daudenak; ubikitina-bezalako domeinua (*Ubiquitin-Like-Domain*, UBL), helize domeinua (*Helical-Domain*, HDD) eta proteasa domeinua (*Retroviral Protease Domain*, RVP) (Sivá et al., 2016) (15. irudia). Giza eta saguen DDI1 proteinak ezik, gainerakoek ere ubikitina lotzeko domeinua dute karboxilo muturrean, proteasoma-anezketan ohikoa den bezala; UBA domeinua Drosophilan eta legamian, eta UIM motiboa gizakien eta saguen kasuan.



15. irudia. Legamia, Drosophila, sagu eta gizakien DDI1 homologoen egiturak. Legamien *Ddi1* (*yDdi1*), Drosophilaren *Rngo*, giza DDI1 eta DDI2 (hDDI1/hDDI2) eta saguen DDI1/DDI2 (mDDI1/mDDI2) proteinen egituren domeinu ezberdinen adierazpen grafikoa. Urdinez, ubikitina bezalako domeinua (UBL); laranjaz, helize domeinua (HDD); berdez, proteasa domeinua (RPV); gorriz, ubikitinarekin lotzeko domeinua (UBA); urdin argiz, ubikitinarekin elkarrekiteko motiboa (UIM). Guztiek dituzte UBL, HDD eta RPV domeinuak, *yDdi1* eta *Rngo* proteinek UBA domeinua dute, eta giza eta sagu DDI2k UIM motiboa.

Ubikitina bezalako domeinuak (UBL) proteasomarekin elkarrekiten du, proteinen ezagutza eta degradazioa baimentzeko (ikusi *1.1.6. Ubikitina Hartzaileak* atala). Helize domeinuak ongi kontserbatutako eremua dauka, eta legamien beste proteasoma-anezka batzuekin –*Rad23* eta *Dsk2*–, antzekotasun handia dauka (Sivá et al., 2016). Proteasa domeinuan azido aspartiko hondar katalitikoak kontserbaturik daude, eta horrek baimentzen du proteina horiek proteasa funtzioa burutzea (Dirac-Svejstrup et al., 2020; Mótyán et al., 2020).

Legamien eta Drosophila*ren* kasuan, *yDdi1/Rngo* proteinek ubikitinarekin batzeko domeinua (UBA) daukate. Modu horretan, degradatu behar diren proteinen ubikitina kateekin elkarrekin dezakete (Bertolaet et al., 2001; Kaplun et al., 2005; Morawe et al., 2011). Nahiz eta gainerako homologoek UBA domeinurik izan ez, funtzio hori ordezkatzen duten domeinu ezberdinak deskribatu dira; DDI2ren kasuan, gizakion eta saguen homologoek ubikitinarekin elkarrekiteko motiboa (UIM) dute karboxilo muturrean, DDI2k proteasoma-anezka bezala jarduteko aukera zabalduz. Giza eta saguen DDI1en kasuan, ez dute ez UBA, ez UIM domeinurik. Hala ere, amino muturreko UBL domeinuak ubikitina ezagutu dezakeela frogatu da, eta proteasoma-anezken mekanismo berri bat proposatu da (Nowicka et al., 2015).

2.2.2. UBE3A: isoformak, egitura eta lokalizazioa

Drosophila euliek *Ube3a*ren isoforma bakarra daukate (Wu et al., 2008). Aldiz, saguetan eta gizakietan hiru isoforma deskribatu dira (LaSalle et al., 2015; Yamamoto et al., 1997) (16. irudia). Saguen kasuan, I. isoforma transkripto ez-kodetzaile bat da, eta burmuinaren garapenean garrantzitsua dela frogatu den arren (Valluy et al., 2015), gizakietan ez da existitzen. Saguen II. isoforma da luzeena, eta ASren sagu modeloetan dendriten fenotipo osasuntsua berreskuratzeko ahalmena du (Miao et al., 2013). Azkenik, saguen III. isoformari amino muturreko zati bat falta zaio, eta isoforma horren gabeziak arazo elektrofisiologikoak eta jokabide-arazoak dakartza (Avagliano Trezza et al., 2019). Gizakion kasuan, UBE3Aren lehen 8 exoien moztitsasketa alternatiboz sortutako hiru isoforma bereizten dira. Horien arteko ezberdintasun fisiologikoak ez dira guztiz ezagutzen, ezta horietako bakoitzak Angelman sindromean duen garrantzia ere. Frogatu da gizakion I. isoforma (saguen III. isoformaren baliokidea)

dela ugariena ama-zelula enbrionarioetatik eratorritako neuronetan (Sirois et al., 2020). Hala ere, I. isoformaren gabeziak gainerakoek baino sintomotalogia leunagoa dakarrela frogatu dute (Sirois et al., 2020). II. isoforma luzeena da, eta sekuentzia kanonikoa kontsideratzen da. Gizakion III. isoformari dagokionez (saguen II. isoformaren parekoa), beste hainbat organismotan aurkitu dituzten transkriptoen baliokidea da (LaSalle et al., 2015). Isoforma horietako bakoitza amino muturreko sekuentzian desberdintzen da (16. irudia).



16. irudia. UBE3A proteinaren isoforma ezberdinak sagu eta giza espezieetan. Amino muturra (urdina), AZUL domeinua (urdin argia) eta HECT domeinua (urdin iluna) bereizten dira. Behean, gizakien (hUBE3A, beltzez) eta saguen (mUBE3A, grisez) aurki daitezkeen isoforma ezberdinen proteina-sekuentzien alineazioa azaltzen da. Letra urdinez, amino muturra azpimarratzen da, eta gorriz, AZUL domeinuko zisteinak markatu dira, zink ioia batzen duten hondarrak aurkitzen diren guneak. *Gizakiaren eta saguaren isoforma baliokideak.

UBE3A proteinaren egiturari dagokionez, bi domeinu ezagutzen dira: amino muturreko AZUL (*Amino-terminal Zn-finger of Ube3a Ligase*) domeinua, eta karboxilo muturreko HECT domeinua (17. irudia). Bi domeinu horien artean, HPV16 giza papilomabirusaren E6 proteina batzeko gunea kokatzen da (Khatri eta Man, 2019). Horrez gain, UBE3A proteinak oligomero gisa jarduten duela ere proposatu da (Ronchi et al., 2014).

1999an, UBE3Aren HECT domeinua kristalizatu zuten, bere bikote den UbcH7 E2 entzima-konjugatzailearekin eratutako konplexua aztertuz (Huang et al., 1999). Bertan kokatzen da ubikitina garraiatzeaz arduratzen den zisteina katalitikoa (C833) (17. irudia). HECT domeinua karakterizatze aldera, K-lobulua kristalizatu dute ligasaren katalisi-propietateak aztertzeko (Ries et al.) eta UBE3A-E6-p53 konplexuaren egitura dinamika ere ikertu dute (Sailer et al., 2018). HECT E3 ligasa bakoitzak ubikitina-kateen sintesirako mekanismo ezberdinak ditu, eta beraz, HECT domeinuek baldintzatuko dute zein kate-mota eraikiko dituzten

(French et al., 2017; Lorenz, 2018; Wang eta Pickart, 2005). UBE3Aren kasuan, HECT domeinuaren karakterizazioak UBE3Ak gehienbat K48 motako ubikitina-kateak sortzen dituela erakutsi du (Elu et al., 2019; Kobayashi et al., 2018; Ries et al., 2019).



17. irudia. UBE3A E3 ligasaren egitura. Amino muturrean AZUL domeinua eta karboxilo muturrean HECT domeinu katalitikoa bereizten dira. HECT domeinuaren karboxilo muturreko K-lobuluan ubikitinarekin interakzionatzen duen zisteina katalitikoa (C833) aurkitzen da. Giza papilomabirusaren (HPV16) E6 proteina lotzeko gunea HECT domeinuaren aurrean kokatzen da. Khatri eta Man, 2019tik moldatua.

UBE3Aren amino muturra ezezagunagoa bada ere, jakin badakigu bertan kokatzen dela zinkarekin batzen den AZUL (*Amino-terminal Zn-finger of Ube3a Ligase*) domeinua (Lemak et al., 2011) (18. irudia). Domeinu horrek helize-bira-helize konformazioa hartzen du Cys-X_4-Cys-X_4-Cys-X_{28}-Cys motiboa osatuz, non lau zisteina hondarrek Zn^{2+} ioia koordinatzen duten (18. irudia). Lehen hiru zisteinak 23 aminoazidotako biran kokatzen dira, eta bi helizeak egonkortzen dituzte. Laugarren zisteina berriz, domeinu horren karboxilo muturrean kokatzen da. Oraintsu, giza Rpn10 proteasoma-hartzailea (PSMD4) UBE3Aren AZUL domeinuarekin batzen dela, eta domeinu hori UBE3A nukleoan kokatzeko beharrezkoa dela frogatu dute (Avagliano Trezza et al., 2019; Buel et al., 2020).



18. irudia. UBE3A E3 ligasaren AZUL domeinuaren egitura. Kristalografia bidez AZUL domeinuak helize-bira-helize itxura duela ebatzi da, non bira osatzen duten zisteina hondarrek zink atomo batekin interakzionatzeko gunea osatzen duten. Lemak et al., 2011tik hartuta.

UBE3A proteinaren lokalizazioa zitoplasmatikoa nahiz nuklearra izan daiteke. PSMD4 proteinak, UBE3Aren edozein isoformaren AZUL domeinura batuz, UBE3A nukleora translokatzen du (Avagliano Trezza et al., 2019). Jarraian, UBE3Aren amino muturreko sekuentziari esker garraio aktiboz zitosoloera bueltatzen da. Saguetan, II. isoformak esportazio-seinale den amino muturra dauka, aldiz, III. isoforman amino muturreko sekuentzia hori falta denez, ezin da zitosolera bueltatu (Avagliano Trezza et al., 2019). Hortaz, saguetan, II. isoforma zitoplasman aurkitzen da, eta III. isoforma, berriz nukleoan (Miao et al., 2013). Gizakien kasuan, isoforma guztiak zitoplasman zein nukleoan koka daitezke (Sirois et al., 2020).

2.3. Angelman sindromeari aurre egiteko estrategiak, terapiak eta tratamendu farmakologikoak

Angelman sindromearen inguruko ikerketek gaixotasuna tratatzeko alternatiba berrien garapenerako ateak ireki dituzte (Bi et al., 2016; Tan eta Bird, 2017). Momentuz, estrategia gehienak UBE3A proteinaren berrezarpenera bideratzen dira. Esaterako, sagu gazteetako neurona GABAergikoetan UBE3A zuzenean berrezarri, eta epileptogenesia gutxitzea lortu dute (Gu et al.). UBE3A berrezartzeko gehien erabiltzen den estrategia inprontapean dagoen aitaren UBE3A aleloa aktibatzea da. Horretarako, UBE3Aren adierazpena blokeatzen duen UBE3A-AS transkriptoaren sintesia saihesten da. Betaina eta azido folikoa bezalako gehigarri dietetikoen bidez, UBE3A-ASren promotorea hipermetilatu, eta ondorioz, bere adierazpena blokeatu dute (Bird et al., 2011; Peters et al., 2010). Zuzenean UBE3A-AS transkriptoarekin batzen diren oligonukleotido espezifikoak, hala nola topoisomerasak eta transkripzio-faktore artifizialak ere erabili dituzte, UBE3A-ASren funtzioa blokeatu edo adierazpena murrizteko (Bailus et al., 2016; Huang et al., 2011; Meng et al., 2015; Milazzo et al., 2021). Horrez gain, badira UBE3A-AS transkriptoa ituratu beharrean, terapia geniko bidez UBE3A saguetan

txertatu duten ikerketak (Daily et al., 2011). Nahiz eta estrategia horiek guztiak klinikoki bideragarriak izan, momentuz behintzat, ez dute gaixotasunaren sintometan onura esanguratsurik erakutsi. Aldiz, saguen enbrioi goiztiarretan UBE3A berrezarriz, lortu da ASren fenotipoa ekiditea (Silva-Santos et al., 2015). Hori dela eta, arestian aipatutako saiakeren porrotaren arrazoietako bat UBE3Ak bereziki garapen prozesuan duen garrantzia izan daiteke. Ildo horretatik, gizakietan ere jaio aurretiko tratamenduak burutzeko estrategiak planteatu dituzte (Zylka, 2020). UBE3Aren gabeziaren ondorioz kaltetutako prozesu zelularrak tratatzea helburu duten estrategiak ere badira. Esaterako, bide dopaminergikoak, kaltzio-kalmodulinaren fosforilazioa, mutur dendritikoen heltzea, zitoeskeletoaren antolakuntza, seinalizazio-sinaptikoa, histonen azetilazioa edo mitokondrioen disfuntzioa (Kumar et al., 2019; Tan eta Bird, 2017; Tonazzini et al., 2019).

Edonola ere, orain arte pazienteengana iritsi diren tratamenduak sintometan zentratzen dira soilik; zehazki, epilepsia eta lo arazoak ekiditeko farmakoak dira (Egan et al., 2020; Hanzlik et al., 2020; McDougle eta Keary, 2020; Tan eta Bird, 2017). Ikerketa fasean dauden Lovastatina eta Cannabidiol farmakoek ASren sagu modeloetan epilepsia eta hiper-kitzikapena murrizten dituztela frogatu dute (Chung et al., 2018; Gu et al., 2019). Ganaxolonak eta garapen bidean dagoen NSI-189 molekulak saguen memorian eta plastikotasun sinaptikoan onurak eragiten dituztela ere frogatu da (Ciarlone et al., 2016; Liu et al., 2019). Horrez gain, Perampanel deritzon AMPA hartzaileen antagonistak ASdun banakoek azaltzen duten mugimendu ez-boluntario mota bat gutxitzen duela frogatu berri dute (Kawano et al., 2020).

2.4. Angelman sindromea ikertzeko animalia modeloak

Edozein gaixotasun ikertzeko, nahiz itu terapeutikoak aurkitu eta saiakera klinikoetara eraman ahal izateko, modelo egokiak aurkitu behar dira. Modelo horiek gaixotasunaren genotipo eta fenotipo antzekoa izateaz gain, jokabidean ere antzekotasunak azaldu behar dituzte (Sonzogni et al., 2018). Angelman

sindromearen ikerkuntzan gehien erabili diren animalia modeloak saguak, arratoiak eta *Drosophila melanogaster* eulia izan dira.

2.4.1. Modelo murinoak

Ikerkuntzan sarritan erabili ohi den organismoa sagua da, gaixotasun askoren ezaugarri fenotipikoak eta genotipikoak azaltzen baitituzte. Angelman sindromearen kasuan ere, sagua gaixotasuna ikertzeko modelo bikaina da. AS pairatzen duten gaixoetan kaltetutako eta saguen 7. kromosomako locusak antzekotasun genetiko handia dute, gene berdinak izateaz gain, gene horien inpronta genetikoa berdina baita.

ASren modelo diren saguak lortzeko hainbat estrategia garatu dira, eta guztiek UBE3A proteinaren adierazpena oztopatzen dute: mutazio puntualak, locusaren delezioak, inpronta-zentruen eraldaketa eta alelo aitatiarraren bikoizketa, besteak beste (Rotaru et al., 2020). Sagu horiek Angelman sindromedun banakoek dituzten mugimendu, adimen, hizkuntza eta loaren arazo berdintsuak dituzte (Rotaru et al., 2020), nahiz eta lerro ezberdinen artean ezberdintasunak egon (Born et al., 2017). Hortaz, bai genetikoki eta bai fenotipikoki, saguak ASa ikertzeko organismo baliagarriak dira.

Sagu modeloei esker, UBE3A neuronen nukleoan kokatzen dela, eta UBE3Aren galerak neuronen aktibitate elektrofisiologikoan aldaketak dakartzala ondorioztatu ahal izan da (Avagliano Trezza et al., 2019). Horrez gain, UBE3Aren adierazpena oztopatuta duten saguak erabiliz, ASren fenotipoak ekiditeko UBE3A garunaren zein garapen fasetan berrezarri beharko litzatekeen jakin ahal izan dute (Silva-Santos et al., 2015). Are gehiago, sagu horiek erabiliz, frogatu dute fase helduan UBE3A berraktibatzeak neuronen aktibitate elektrofisiologiko egokia berrezartzen duela (Rotaru et al., 2018).

ASren oinarria UBE3Aren gabeziak sortzen duen arren, ASren inguruko ikerketa batzuk UBE3A gainadierazten duten saguak erabiltzen dituzte. Sagu horiek autismoarekin erlazionaturiko ezaugarriak izateaz gain, glutamato bidezko transmisio sinaptikoak gutxituta dauzkate (Smith et al., 2011), beraz, ASren ezaugarri batzuk ikertzeko ere oso egokiak dira. Esaterako, gure laborategian,

UBE3A gainadierazten duten saguak erabili ditugu UBE3Aren substratuak aurkitzeko (eskuizkribua berrikuspenean, Lectez et al ,2022).

Ohikoenak saguak diren arren, oraintsu, *Ube3a* gene osoa ezabatuz, ASren modelo gisa erabili daitekeen arratoia garatu dute (Dodge et al., 2020). Arratoi horrek ez du garunean UBE3A adierazten, eta ondorioz, koordinazio motorean, oroimenean eta adimenean arazoak ditu.

2.4.1.1. Portaera ikertzeko teknikak

Modelo murinoetan, mekanismo molekularrak ikertzeaz gain, portaerak ere aztertu daitezke, organismo konplexu bat izanik giza gaixotasunen sintoma asko aurkezten baitituzte. Oraintsu, ASren sagu modelo batekin buruturiko ikerketa batean sagu horiek portaera oldarkorra azaltzen dutela deskribatu dute (Simchi eta Kaphzan, 2021). Angelman sindromeak autismoaren koadro klinikoarekin dituen antzekotasunak direla eta, ohikoena autismoaren ikerketan erabiltzen diren portaera-azterketak burutzea da AS ikertzeko. Taula honetan laburbildu dira frogarik ohikoenak, eta beraz, Tesi honetan egin direnak (2. taula):

2. taula. Saguen portaera aztertzeko frogarik ohikoenak, zein adin-tartetan burutu behar diren eta horien deskribapena.

		Adina	Deskribapena
Portaera soziala	Ultrasoinu bokalizazioak	P0-P2	Saguak amarengandik banatzen dira eta ultrasoinu bezala egiten dituzten bokalizazioak zenbatzen dira.
	Elkarrekintza soziala	P25-P28	Saguek elkarrekiten pasatzen duten denbora zenbatzen da.
	Hiru ganberak	P40-P50	Alboetako bi ganberetan ontzi opako bana jartzen da, bata sagu batekin eta bestea hutsik. Saguak ontzi bakoitza esploratzen pasatzen duen denbora neurtzen da.

Aktibitate lokomotorea	Eremu irekia	P28-P33	Distantzia eta abiadura neurtzen da.
Antsietatea	Ilunpe-argi ganberak	P50-P60	Bi ganbera, bat argitan eta bestea ilunpetan. Saguak ganbera bakoitzean pasatzen duen denbora eta lehen aldiz argitako ganberara irteteko behar duen denbora neurtzen dira.
Portaera errepikakorrak	*Grooming*	P50etik aurrera	Saguak bere burua miazkatzen pasatzen duen denbora neurtzen da.
Bestelakoak	Plaka beroa	P50etik aurrera	Oso bero dagoen zoru baten gainean sagua utzi eta mina sentitzeko zeinuak egiten hasi arteko denbora neurtzen da (gehienez 15 segunduz).

2.4.2 *Drosophila melanogaster* eulia

XX. mendearen hasieran, Williams E. Castle-ek Harvard Unibertsitatean (Cambridge, USA) estreinakoz *Drosophila melanogaster* eulietan hasi zituen ikerketak (Castle, 1906; Roberts, 2006). Ordutik, fruta-eulietan eginiko ikerketek ornogabeetatik gizakietara kontserbatutako oinarrizko prozesu biologiko ugari ulertzen lagundu digute: esaterako, sexuari loturiko herentzia (Morgan, 1910) eta kromosomen bidezko herentzia (Doncaster, 1916; Roberts, 2006), X-izpien aktibitate mutagenikoa (Muller, 1927), garapen enbrionarioa kontrolatzen duten gene esentzialen karakterizazioa (Lewis, 1978; Nüsslein-Volhard eta Wieschaus, 1980), edota inmunitate sistemaren aktibaziorako beharrezkoak diren Toll hartzaileen identifikazioa (Lemaitre et al., 1996).

Drosophila ikerkuntza-modelo gisa arrakastatsua izatearen hiru arrazoi nagusiak ondorengoak lortzeko azkartasuna, zainketa erraza eta mantenu-kostu

baxua dira. Bizi-zikloari dagokionez, lau etapa nagusitan banatzen da morfologian oinarrituz: arrautza, larba, pupa eta euli heldua (19. irudia). Arrautzatik euli heldua izan arte behar duen denbora tenperaturaren eta hezetasunaren araberakoa da. Hori horrela, 25 ºC eta % 60ko hezetasun erlatiboarekin, euliaren bizi-zikloa 10 egunekoa da. Aldiz, tenperatura 20 ºC-koa bada, euliak bizi-zikloa betetzeko 15 egun behar ditu. Euli-enbriogenesiak 24 ordu irauten du. Ondoren, ar itxurako animalia bat jaiotzen da, lehen larba (L1) gisa ezagutzen dena. L1 larba 24 orduz elikatu ostean, bigarren larba handiago batean bihurtzen da (L2), eta modu berean, L2 hori 24 ordu geroago hirugarren larban (L3) bilakatzen da. L1, L2 eta L3 larben ezberdintasun nagusia beraien tamaina da (L1 txikiena eta L3 handiena). 2-3 egun irauten duen L3 larba etaparen ostean pupa etapa hasten da. Pupazio aurretik larbak elikatzeari uzten dio, eta pupaziorako egokia den leku lehor bat bilatzen du. Momentu horretan, larba geldirik geratzen da eta gradualki pupa itxura hartzen du. Hurrengo 4-5 egunetan metamorfosia ematen da, eta larba egitura gehienak eraldatu egiten dira helduen organoen garapena emateko. Aldeak alde, ernalketa gertatzen denetik 10-11 egunera pupatik euli heldua ateratzen da.



19. irudia. *Drosophila melanogaster* euliaren bizi-zikloa. Ernalketa eman eta enbrioiak jaiotzen direnean, larba bilakatzen dira. Lehen 24 orduetan L1 larba garatzen da. Hurrengo 24 orduetan elikatzen jarraituz L2 larba bihurtzen da, eta 24 ordu geroago tamaina handieneko L3 larba bilakatzen da. 2-3 egun beranduago elikatzeari utzi eta pupa izatera pasatzen da. Orduan metamorfosi fasea hasten den. Beste 3-4 egun pasa ostean, eulia jaiotzen da 11 eguneko zikloari amaiera emanez.

Bizi-ziklo laburra izateaz gain, genoma txikia dutenez, X/Y sexu-kromosoma bikote batez eta hiru autosoma-bikotez osatua (Adams et al., 2000), genetika eta geneen funtzio biologikoak ulertzeko sistema egikia da. Gainera, gaixotasunekin erlazionatutako giza geneen % 75ak eulietan homologoa daukate (Reiter et al., 2001). Beraz, Drosophilak *in vivo* sistema sinple bat eskaintzen du gene horien funtzioa ikertu ahal izateko (Pandey eta Nichols, 2011). Hori dela eta, hainbat giza gaixotasun aztertzeko euli modeloak sortu izan dira (Jackson, 2008; Pandey eta Nichols, 2011; Sang eta Jackson, 2005).

Angelman sindromea ikertzeko ere modelo bikaina da, *D. melanogaster* euliek giza UBE3Aren homologoa den *Ube3a* proteina adierazten baitute, sekuentzia mailan % 63ko antzekotasuna izanik. Eulietan *Ube3a*ren gabeziak aktibitate motorean akatsak eta memoria arazoak sortzen ditu (Gatto eta Broadie, 2011; Wu et al., 2008). Esaterako, euliek geotaxiagatik berezkoa duten gora egiteko ahalmena galtzen dute (Wu et al., 2008). Garapen faseko *Ube3a*ren gehiegizko adierazpenak berriz, morfologia arazoak eta hilkortasuna eragiten ditu (Wu et al., 2008). Euli modeloekin egindako ikerketei esker, *Ube3a*ren hainbat substratu berri ezagutzeaz gain (Ramirez et al., 2018), E3 ligasa sinapsien hazkuntzarekin eta endozitosiarekin erlazionatuta dagoela dakigu (Li et al., 2016a).

Azken mendean, Drosophilarekin lan egiteko tresna eta baliabide ugari garatu dira. Horien artean ezagunena GAL4/UAS sistema binarioa da. Sistema hori 1993an sortu zuten Andrea H. Brand eta Norbert Perrimonek. Euliekin lan egiterakoan erabili ohi den teknika genetikoa da. Sistema honen bidez gene jakin bat *in vivo* adierazi daiteke modu ituratuan, edozein zelula motan eta euliaren garapen prozesuko une konkretu batean. Adierazten den genea euliarena nahiz beste organismo batena izan daiteke. Sistema hori GAL4 proteinak eta UAS (*Upstream Activating Sequence*) sekuentziak osatzen dute (20. irudia).

GAL4 legamiaren proteina da, eta geneen transkripzioa aktibatzen du. Zehazki, galaktosaren katabolismorako beharrezkoak diren geneak aktibatzen ditu (Traven et al., 2006). Horretarako, GAL4 proteinak gene horien UAS sekuentziekin elkarrekin behar du. UAS sekuentziak DNAren eremu zehatzak dira 5′-CGG-N11-CCG-3′ kontsentsu-sekuentziadunak (Marmorstein et al., 1992). GAL4-UAS elkarrekintza oso espezifikoa denez, GAL4 proteinak ezin du UAS sekuentziarik ez daukan gene baten transkripzioa aktibatu. *D. melanogaster*

euliak ez dauka GAL4 proteinaren homologorik, ezta ere UAS sekuentziadun generik. Hortaz, intereseko genea UAS sekuentziaren ostean adierazten duen euli bat, GAL4 proteina adierazten duen euliarekin gurutzatuz gero, ondorengoetan intereseko genearen transkripzioa lortuko da (Fischer et al., 1988)(20. irudia). Horrez gain, GAL4 proteinaren adierazpena intereseko sustatzaile baten mende jartzen da. Hau da, sustatzaile hori ehunekiko edo garapen fasearekiko espezifikoa bada, intereseko proteina leku edo momentu jakin batean besterik ez da adieraziko (Brand eta Perrimon, 1993).



20. irudia. GAL4/UAS sistema binarioa. GAL4/UAS sistema bi elementuz osatzen da: legamiaren GAL4 proteina eta edozein gene erreportaritik ur-gora aurkitzen den UAS sekuentzia aktibatzailea. GAL4 proteina Drosophila eulietan adierazi daiteke ehun espezifiko batean edo denbora jakin batean, horretarako GAL4 proteinaren aurrean sustatzaie genomikoak edo promotore ezagunak jarriz. Bestalde, UAS sekuentzia intereseko genearen alboan gehituz, gene horren adierazpena GAL4ren presentziaren menpekoa izango da. Hortaz, UAS-intereseko genea duten euliak, ehun espezifiko batean GAL4 adierazten duten euliekin gurutzatzean, ondorengo euliek intereseko genea GAL4 proteinaren distribuzio berdinean adieraziko dute. St Johnston, 2002tik moldatuta.

GAL4/UAS sistemaz gain, Drosophilarekin lan egiteko tresna gehiago ere garatu dira. Horien artean aurki ditzakegu, esaterako, balantza-kromosomak. Balantza-kromosomak ingenieritza-genetiko bidez garatutako kromosoma artifizialak dira, hasiera batean mutazio azpirakor hilgarriak ikertzeko erabiliak (Muller, 1918). Eulien-lerro mutante bat egonkortzeko, populazio homozigotoa

lortu behar da, gurutzaketetan ondorengo guztiek ere mutazioa mantentzeko. Alabaina, mutazio azpirakor hilkorren kasuan ondorengo homozigotoak jaio aurretik hiltzen dira. Ondorengo heterozigotoen portzentai batek berriz, genotipo basatia du, eta horiek baztertu ezean, belaunaldiz-belaunaldi populazioan intereseko mutazioa gal daiteke. Arazo horiek ekiditeko balantza-kromosomek hiru ezaugarri nagusi dituzte: batetik, mutazio azpirakor hilkorrak garraiatzen dituzte, bi balantza-kromosoma dituzten indibiduoak saihesteko; bestetik, birkonbinazio genetikoa ekiditzen dute, *de novo* kromosoma basatirik ez sortzeko; eta azkenik, markatzaile genetiko gainhartzaileak garraiatzen dituzte, intereseko genea duten eulien identifikazioa errazteko (Miller et al., 2019).

3. Ubikitinazioa ikertzeko metodologia

Angelman sindromearen eragilea UBE3A E3 ligasa izanik, gaixotasunaren mekanismo molekularrak ulertzeko proteinen ubikitinazioa aztertu behar da, eta horretarako, teknika egokiak, sentikorrak eta fidagarriak eskura izatea ezinbestekoa da. Ubikitinatutako proteinak ehunetatik eta baldintza fisiologikotan isolatzea eta identifikatzea benetako erronka da, besteak beste ubikitinarekin eraldatutako proteinak zeluletan oso maila baxuetan aurkitzen direlako. Halaber, ubikitinarekin konjugatutako proteina batzuk degradazio-zinetika azkarrak dituzte (Choi et al., 2013), deubikitinasen jardueraren ondorioz ubikitinatutako proteinek ubikitina galdu dezakete (Stegmeier et al., 2007), eta hori gutxi balitz, proteinak ondo definitutako denbora-tarte jakinetan soilik diraute ubikitinatuta (Clute eta Pines, 1999). Horrek guztiak asko zailtzen du zelulako proteina ubikitinatuen, alegia, ubikitomaren azterketa. Edonola ere, ubikitinazioak *in vivo* duen funtzioa hobeto ulertzeko beharrezkoa da ehun jakinetan dauden ubikitinatutako proteinak identifikatzea. Azken bi hamarkadetan ubikitinatutako materiala ikertzeko garatutako teknika ezberdinei esker, eta masa espektrometriaren alorrak jasan duen garapenari esker, posible da aldi berean milaka proteina, edo proteinen oso portzentaje txikian dauden itzulpen ondoko aldaketak identifikatzea eta kuantifikatzea.

3.1. Ubikitinatutako materiala aberasteko estrategiak

Arestian aipatu bezala, ubikitinatutako proteinek zeluletan oso estekiometria baxua dute, beraz, edozein detekzio-metodo erabili baino lehen, horiek aberastea ezinbestekoa da (Mayor eta Peng, 2012). Ubikitinatutako materiala aberasteko prozedurarik ohikoena ubikitinatutako proteinak arrantzatzeko antigorputzak erabiltzea da. Antigorputz batzuk zuzenean ubikitina ezagutzen dute (Bennett et al., 2007; Lopitz-Otsoa et al., 2012; Matsumoto et al., 2005; Vasilescu et al., 2005; Xu et al., 2010a). Beste prozedura batzuk etiketa berezi batekin markatutako ubikitina (HIS, HA, FLAG, STREP…) erabiltzen dute, eta etiketa horiek ezagutzen dituzten antigorputzen bidez purifikatzen dituzte

ubikitinatutako proteinak (Greer et al., 2010; Peng et al., 2003; Schmidt eta Skerra, 2007). Amino muturreko etiketek ubikitina-kate-linealen sorrera oztopatzen dutenez, etiketa sekuentziaren erdialdean duen ubikitina eraldatua ere erabiltzen da (Kliza et al., 2017).

Antigorputzak erabiliz ubikitinatutako proteinak ez ezik, ubikitinatutako peptidoak purifikatzea ere posible da. Masa espektrometriarako laginak prestatzeko erabili ohi den tripsinak arginina eta lisina hondarren ostean dagoen lotura peptidikoa mozten du, prolina dagoen kasuetan izan ezik. Hortaz, laginaren prestaketan sortzen diren peptido guztien karboxilo muturrek arginina edo lisina hondarrak dituzte (Olsen et al., 2004). Ubikitinatutako proteinak tripsinarekin tratatzean, tripsina ez da gai ubikitina lotuta duen lisinaren osteko lotura peptidikoa hidrolizatzeko, lisinak karga positiboa galdu duelako, beraz *misscleaveage* bat sortzen da. Ondorioz, ubikitinari dagozkion bi glizina hondar gelditzen dira ubikitinatutako proteinaren lisinara lotuta (21. irudia). Bi glizina horiek, di-Gly sinadura bezala ezagutzen dira, eta sinadura horrekiko espezifikoak diren antigorputzen bidez purifikatu daitezke peptido horiek (Xu et al., 2010a).



21. irudia. di-Gly sinaduraren sorrera. Tripsina bidezko digestio proteolitikoak ubikitinaren karboxilo muturreko -RGG sekuentzian argininaren atzetik mozten du, beraz ubikitinatutako proteinako lisinan GG dinukleotidoa gelditzen da. Di-Gly sinadura horrek 114.1 Da ditu, eta *misscleaveage* bat sortzen du.

Aipaturiko antigorputzen bidez ubikitinatutako materiala purifikatzeak, hala ere, baditu desabantailak. Di-Gly antigorputzei dagokienez, di-Gly sinadura hori beste ubikitina-bezalako proteinek ere uzten dute, esaterako Nedd8 edo ISG15 proteinek. Baldintza fisiologikoetan, Nedd8 eta ISG15 bidezko eraldaketak ez dira ubikitinazioa bezain arruntak, baina proteasoma blokeatuta dagoenean (oso ohikoa ubikitinoma aztertzerakoan), beraien kontzentrazioa izugarri emendatzen da (Leidecker et al., 2012), beraz ezinezkoa da eraldaketa

ubikitinazioa, nedilazioa (Nedd8) edo ISGazioa (ISG15) den bereiztea. Gainera, di-Gly antigorputzak erabiltzeko proteinak tripsinaz digeritu behar direnez, prozedurak ez du aukerarik ematen ondoren ubikitinatutako proteinak balioztatu eta karakterizatzeko.

Antigorputzak erabiliz baldintza natiboetan gauzatutako purifikazio prozedurek arazo nagusi bat daukate: nahiz eta ubikitinarekin konjugatuta ez egon, ubikitinatutako proteinekin ez-espezifikoki elkarrekiten duten proteina kontaminanteak ere purifikatu egiten dira (Tirard et al., 2012). Horrez gain, baldintza ez-desnaturalizatzailetan proteasak eta deubikitinasak aktibo diraute, eta beraz, purifikatutako ubikitinatutako materiala murritzagoa izan ohi da.

Hain zuzen ere, proteina kontaminanteen presentzia eta proteasen jarduera saiheste aldera, ubikitinatutako proteinak baldintza desnaturalizatzailetan aberasten dituzten estrategien artean ezagunena poli-histidina etiketarekin (HIS) markatutako molekulen nikel bidezko purifikazioa da (Hitchcock et al., 2003; Mayor et al., 2007; Peng et al., 2003; Xu et al., 2009). Hala ere, ugaztunetan histidina hondarretan aberatsak diren proteina endogeno ugari daude, beraz, proteina horiek nikelezko bolatxoetan harrapatzen dira afinitate handiz, eta intereseko proteinen purifikazioa oztopatzen dute.

Ubikitinatutako proteinen azterketarako teknika egoki baten falta somaturik, Ugo Mayor ikertzailearen laborategiak arazo nagusiei konponbidea ematen dion eta baldintza denaturalizatzaileetan burutzen den purifikazio-estrategia bat garatu du, BioUb sistema (Franco et al., 2011). Sistema horrek bi abantaila nagusi ditu. Batetik, proteina kontaminante gehienen presentzia ekiditen du, eta bestetik, identifikatutako proteinak antigorputzen bidez balioztatzeko lagin bera erabili daiteke. Horrez gain, Ugo Mayor ikertzailearen lan taldean proteinen ubikitinazioa monitorizatzeko estrategia bat ere garatu dugu, baldintza denaturalizatzaileetan burututako GFP *pull-down* delakoa. Modu horretan, soilik intereseko proteinaren ubikitinazioa egoera ezberdinetan nola aldatzen den behatu daiteke (Lee et al., 2014).

3.1.1. BioUb sistema

BioUb sistema ubikitinatutako konjugatuak *in vivo* isolatzeko estrategia bat da, biotinilazioan oinarritzen dena (Franco et al., 2011). Ugaztunetan biotinilazioa oso prozesu espezifikoa da, eta *in vivo* oso proteina gutxik pairatzen dute. Horien artean aurkitzen dira biotinaren mendeko karboxilasak (Chandler eta Ballard, 1985). Karboxilasek biotinaren beharra dute gantz-azidoen, aminoazidoen eta karbohidratoen metabolismoan parte hartzeko (Tong, 2013). Biotinilazio erreakzioa biotina-holoentzima sintetasak (BirA E.coliren kasuan) katalizatzen du (Bennett et al., 2007) eta erreakzio oso espezifikoa da, 16 aminoazidotako sekuentzia espezifikoa ezagutzea nahikoa baitu biotina gehitzeko (Beckett et al., 1999).

Ugo Mayorren taldeak BirA proteinaren espezifikotasuna aprobetxatuz, fusio-proteina bat sortu du (Franco et al., 2011). Fusio-proteina hori karboxilo muturrean kokatutako *E.coli*-ren BirA proteinaz, eta amino muturrean jarritako sei ubikitina-kopiaz osatzen da. Ubikitina-kopia bakoitzak biotinilaziorako beharrezkoa den 16 aminoazidotako sekuentzia dauka (22A. irudia). Polipeptido aintzindari hori zelula-lerroetan edo organismoetan *in vivo* adierazi daiteke. Ubikitinaren gene endogenoekin gertatzen den bezala, DUB endogenoek aintzindaria digeritzen dute, eta ondorioz, zeluletan 16 aminoazidotako sekuentziadun ubikitinak, eta bakterioen BirA entzima askatzen dira (Kimura eta Tanaka, 2010) (22B. irudia). BirA-k ubikitinen amino muturreko sekuentzia biotinilagarriak ezagutzen ditu, eta horietara biotina konjokatzen du (22C. irudia). Modu horretan, biotinadun ubikitinak lortzen dira, ubikitina endogenoekin batera proteinetara konjugatzen direnak (22D. irudia). Abidina eta biotinak elkartzeko duten afinitate handiari esker, biotinadun ubikitina lotuta duten proteinak abidina bolatxoetara batuko dira. Beraz, bolatxo horiek ubikitinatutako materiala purifikatzea eta aberastea baimentzen dute (22E. irudia).



22. irudia. BioUb sistema. A) Ubikitina molekularen sei kopia adierazten dira elkarren segidan, *E.coli*-ren BirA proteinarekin batera. Ubikitina molekulek BirA entzimak ezagutzen duen sekuentzia daramate amino muturrean. B) Fusio-proteina hori adierazten denean, zelularen deubikitinasa endogenoek ubikitina molekula bakoitzaren atzetik mozten dutenez, zelulan ubikitinak eta BirA askatzen dira. C) BirA entzimak ubikitinen amino muturreko sekuentzia ezagutu eta biotina jartzen du, ubikitina biotinilatuak lortuz. D) Proteinei, ubikitina endogenoez gain, biotinilatutako ubikitinak atxikituko zaizkie. E) Biotinaren bidezko markaketari esker, eta biotina-abidina interakzio sendoa aprobetxatuz, abidina bolatxoak erabiltzen dira biotinilizatutako/ubikitinatutako materiala purifikatzeko.

Aurrez aipatutako estrategiekin konparatuz, BioUb sistemarekin proteina ez-espezifikoen purifikazioa saihestu egiten da. Izan ere, garbiketa oso zorrotzak burutu daitezke, abidinak biotinarekiko erakusten duen afinitatea oso altua baita (Franco et al., 2011; Marttila et al., 2000). Beraz, BioUb sistemarekin soilik biotinilatutako ubikitinarekin eraldatutako proteinak, hala nola zelulan berez biotinilatuta dauden karboxilasak purifikatzen dira. Estrategia horrek ubikitina kate linealak eragozteko arriskua badu ere, mota horretako kate linealak identifikatu ditugu ere gure analisietan (publikatu gabeko datuak). Gainera, isolatutako materiala masa espektrometria edo Western-plapaketa bidez aztertu daitekeenez, lagin bera proteinen balioztatze eta karakterizazioa burutzeko ere erabili daiteke (Franco et al., 2011; Lectez et al., 2014; Min et al., 2014; Ramirez et al., 2015, 2018). Estrategia horri esker, ehunka ubikitina-konjugatu purifikatu dira eulietan (Franco et al., 2011; Ramirez et al., 2015, 2018), saguetan (Lectez et al., 2014) eta baita giza zelula lerroetan ere (Min et al., 2014). Horrez gain, E3 ligasen

substratuak identifikatzeko ere erabili da: E3 ligasa gainadierazi osteko zelulen ubikitoman proteina batzuk ugariagoak badira E3 gainadierazi gabeko ubikitomarekin konparatuz, proteina horiek E3 ligasen substratu kontsideratu daitezke (Martinez et al., 2018; Ramirez et al., 2018).

3.1.2. GFP *pull-down* estrategia baldintza denaturalizatzaileetan

Ubikitoma osoa aztertu beharrean, kasu batzuetan proteina indibidualen ubikitinazioa ikertzea bilatzen da. Esaterako, BioUb bidez identifikatutako E3 ligasen substratuak balioztatzeko, edota proteina jakin batzuen ubikitinazio-maila ezagutzeko, indibidualki proteina horien ubikitinazioa aztertu behar da. Horretarako, antigorputzen bidez proteina ubikitinatua detektatzeko gai izan behar gara. Tamalez, antigorputzak ez daude beti eskuragarri, edo ez dute intereseko proteina detektatzen, eta balioztatzea zailtzen dute. Horrez gain, ohiko purifikazio metodoetan proteina-kontaminatzaileak detektatzen direnez, ezinezkoa izaten da ubikitinazioa intereseko proteinarena dela frogatzea. Egoera horrek bultzatuta, Ugo Mayorren laborategiak ko-immunoprezipitaziorako erabiltzen diren GFP agarosa bolatxoei (Chromotek) beste erabilera bat eman die.

Moldatutako GFP *pull-down* estrategia berezi horretan intereseko proteina GFP isatsarekin, eta ubikitina FLAG etiketarekin adierazten dira edozein sistematan (zelulak, euliak...) (23. irudia). Anti-GFP antigorputzaren V_HH fragmentu errekonbinatuz estalitako bolatxoak erabiliz (Chromotek, GFP-Trap), GFP molekula, eta beraz, intereseko proteina purifikatzen dira. Bolatxo horiek GFP molekularekin sortzen duten interakzio bereziki egonkorrari esker, eta ubikitinazioa lotura kobalentez ematen denez, garbiketa zorrotzak burutzen dira gainerako proteina guztiak baztertzeko. Azkenik, GFP eta FLAG etiketen aurkako antigorputzak erabiliz, intereseko proteina eta bere ubikitinazio-patroia detektatzen dira, hurrenez hurren (Elu et al., 2020).



23. irudia. GFP *pull-down* estrategia. Zeluletan GFP isatsa duen intereseko proteina (berdea) eta FLAG isatsa duen ubikitina (gorria) adierazten dira. Zelulak lisatu eta materiala GFP-arekin batzen diren bolatxoekin inkubatzen da (grisak). Bolatxoak GFP isatsa duten proteinekin batuko dira, gainerako proteinak (urdina, laranja eta horia) baztertuz. Purifikatutako materiala bolatxoetatik askatu eta Western blot plapaketa bidez detektatu daiteke. Berdez, modifikatu gabeko intereseko proteinaren banda ikusiko da, eta gorriz, proteina horren ubikitinazio-patroia.

Estrategia horrek hainbat aplikazio ezberdin ditu. Lehenengoz *Drosophila melanogaster* euliaren neuronetan ubikitinazioa monitorizatzeko erabili zen (Lee et al., 2014). Oraintsu, UBE3A E3 ligasaren substratuak balioztatzeko ere erabili da (Ramirez et al., 2018). Tesi honetan, UBE3Aren balizko substratuak balioztatzeko nahiz UBE3Aren aurkako funtzioa duten DUBak identifikatzeko erabili da, DUB ezberdinak isildu eta UBE3Aren substratuaren ubikitinazioa monitorizatuz (Elu et al., 2019). Horrez gain, estrategia horren bidez substratu jakin baten ubikitinazio-guneak ere identifikatu dira (Elu et al., 2019, 2020).

3.2. Proteinen arteko elkarrekintzak ikertzeko estrategiak

Funtzio zelular konplexuak dituzten proteinek, sarritan, beste proteina batzuekin elkartuz burutzen dute beraien funtzioa. Beraz, burutzen duten funtzioa osotasunean ulertzeko, berarekin lotzen diren proteinak ezagutzea beharrezkoa da. Interaktoreak ezagutuz, gaixotasunen mekanismo molekularrak ulertu ez ezik (Sang et al., 2011), proteina bat gaixotasun batekin erlazionatu ahal izan da (Butland et al., 2014). Hortaz, UBE3Aren inguruan jarduten duten proteinak zeintzuk diren jakiteak gaixotasunaren ikuspegi globala eman diezaguke.

Proteinen arteko elkarrekintzak identifikatzeko teknika ugari garatu izan dira. Lehenengotarikoa, 90. hamarkadan deskribatutako Y2H (*Yeast Two Hybrid*) teknika da. Teknika horretan, bi proteinek elkarrekiten badute, transkripzio faktore funtzional bat osatzen da, eta horrek gene erreportari baten adierazpena baimentzen du (Song eta Fields, 1989). Gene horrek bideratzen duen fenotipoari esker, elkarrekintza eman den legamia koloniak bistaratu daitezke, eta proteina horien arteko elkarrekintza eman dela ondorioztatu daiteke. Ohiko beste teknika bat antigorputzen bidezko *pull-down* estrategia da. Hau da, intereseko proteinarekiko antigorputz espezifikoak erabiltzen dira, proteina hori eta berarekin elkarrekiten dutenak batera purifikatzeko. Azken urteotan, proteinen arteko elkarrekintzak ikertzeko, mikroarraien erabilera ere asko garatu da. Mikroarrai horietan hainbat proteina ezberdin inmobilizatzen dira, eta intereseko proteinarekin horietatik zeintzuk elkarrekiten duten jakiteko balio dute (Hall et al., 2007).

Aipaturiko tekniken bidez, hala ere, zaila izan daiteke interaktoreak identifikatzea, batetik, proteinen arteko elkarrekintzak ikertzerakoan garrantzitsua delako ingurune zelular fisiologikoa mantentzea, eta bestetik, proteinen arteko elkarrekintzak momentu labur batekoak izan daitezkeelako. Muga horiei aurre eginez, azken hamarkadan, BioID estrategia arrakastatsua garatu dute (Roux et al., 2012). Teknika hori zeluletan *in vivo* erabili daitekeenez, ingurune fisiologikoa mantentzen da, eta horrez gain, denbora laburreko elkarrekintzak ere ikertu daitezke (Roux et al., 2012).

3.2.1. BioID2 estrategia

BioID estrategia proteinen arteko elkarrekintzak detektatzeko erabiltzen da, intereseko proteinarengandik hurbil dauden proteinak purifikatzea ahalbidetzen baitu. BioUb kasuan bezala, *E.coli*-ko BirA proteinaz baliatzen da, baina kasu honetan BirA proteinaren bertsio promiskuo bat erabiltzen da (Roux et al., 2012). Mutazio puntual baten ondorioz, BirA proteina promiskuo horrek inguruko proteina guztiak biotinilatzen ditu modu ez-espezifikoan. Horrela, BirA promiskuoa intereseko proteinarekin batera adieraziz gero, azken horren interaktoreak edo hurbil dauden proteinak biotinilatuko ditu, eta proteina horiek abidina bolatxoak erabiliz purifikatu ahal izango dira (24. irudia).



24. irudia. BioID2 estrategia. Intereseko proteina (berdea) BioID proteinarekin batera (laranja) adierazten da. Medioan biotina gehigarria jarriz (horia), BioID proteinak fusionatuta daukan proteinaren interaktoreak (urdinak) eta 10 nm-ko distantziaren barruan aurkitzen diren beste proteina batzuk (gorriak) biotinilatuko ditu. Erradio horretatik kanpo dauden proteinak (grisak) ez dira biotinilatuko. Biotina-abidina interakzio sendoa aprobetxatuz, estreptabidina erabiltzen da biotinilatutako material guztia purifikatzeko. Azkenik, digestio proteolitikoa burutu eta lagina masa espektrometria bidez analizatzen da.

Oraintsu teknika horren aldaera ugari garatu dira. Batzuk hasierako BirA promiskuoarekin konparatuz biotinilazio-ahalmen handiagoa bilatu dute, BioID2 (Kim et al., 2016) edo TurboID (Branon et al., 2018) kasuetan bezala. Split-BioID edo 2C-BioID konstruktoak dimerizazioaren beharra duten interakzioak ikertzeko balio izan dute (Chojnowski et al., 2018; Munter et al., 2017). BioID estrategiaren beste aldaera batek zelulan lokalizazio konkretu bat duten proteinen arteko elkarrekintzak ikertzea ere baimendu du; esaterako, zentrosometan, zelulen lotura guneetan, autofagian, seinaleztapen-bideetan edota mitokondrioetan jarduten duten proteinen interaktoreak ezagutu ahal izan dira (Varnaitė eta MacNeill, 2016).

.

3.3. Masa espektrometria

Ubikitinatutako materiala aberastu ondoren, nahiz proteinen arteko elkarrekintzak aztertzeko purifikazio metodoak erabili ondoren, detekzio metodo sentikor eta fidagarri bat berebizikoa da proteina horiek identifikatu ahal izateko. Masa-espektrometria (*Mass Spectrometry, MS*) proteomika alorrean oso teknika arrunta da, eta azken hamarkadan jasandako garapena dela eta, ubikitomaren ikerketan oso erabilia da; sentikortasun handiari esker, aldi berean E3 ligasen nahiz DUBen milaka substratu nahiz interaktore identifikatzeko aukera ematen du.

Laburki, MS bidez proteinak identifikatu eta kuantifikatzen dira, proteinetatik eratorritako peptidoak ionizatu, eta beren masa/karga ratioa (m/z) neurtuz (Steen eta Mann, 2004). Ubikitinatutako proteinen kasuan, zelulan duten estekiometria baxua dela eta, MS bidez aztertu baino lehen lagina aberastu egiten da (Mayor eta Peng, 2012). Arestian aipatutako di-Gly sinadurari esker, ubikitinatutako peptidoek 114 Da gehiagoko pisu molekularra izango dute ubikitinatu gabeko peptidoekin konparatuz, beraz, MS bidez ubikitinatutako proteinak, ubikitinazio-guneak eta abar identifikatu daitezke (Kim et al., 2011; Na et al., 2012; Sarraf et al., 2013; Wagner et al., 2011, 2012; Xu et al., 2010a).

Masa-espektrometrian oinarritutako proteomikako ohiko esperimentu batean, lehenbizi, ehun edo zeluletatik erauzitako proteinak proteasa batekin, tipikoki tripsinarekin, digeritzen dira (25A. irudia). Jarraian, sortutako peptidoak kromatografia bidez banatzen dira masa espektrometrora sartu aurretik laginaren konplexutasuna murrizteko; peptido bakoitzak erretentzio-denbora jakin bat duenez, sekuentzialki ateratzen dira kromatografia-zutabetik. Peptido horiek zutabetik atera ahala, ionizatu eta masa espektrometroan kargatzen dira. Masa espektrometroan, ionizatutako peptidoen m/z ratioa, hala nola beren intentsitatea neurtzen da. Bi neurketa horiekin MS1 espektroa eraikitzen da. Normalean, tandem masa espektrometria (MS/MS edo MS2) deritzon estrategia jarraitzen da, eta ondorioz, peptido horiek kolisio energia bidez are gehiago txikitzen dira. Fragmentu horien m/z eta intentsitatea ere neurtzen da, eta neurketa horiekin MS2 espektroak sortzen dira. MS bidezko analisi batean lortutako datu guztiak (bereziki, peptido eta fragmentuen m/z) datu-base bateko

proteina guztien digestio teorikotik ondorioztatutako datuekin alderatzen dira (25B. irudia). Software bereziekin gauzatzen den analisi bioinformatiko horretatik ondorioztatzen da zeintzuk diren lagin biologikoan dauden peptidoak, eta horrenbestez, proteinak. Gainera, proteinen kuantifikazio erlatiboa egitea ahalbidetzen duten kuantifikazio metodo ezberdinak existitzen dira (LFQ, SILAC, iTRAQ, ^{18}O markaketa ...) (Matthiesen eta Bunkenborg, 2020).



25. irudia. Proteinen identifikazioa masa-espektrometria bidez. A) Proteinen nahastura konplexua proteolitikoki digeritzen da peptidoak lortzeko. Peptido horiek likido kromatografiaz banatzen dira, eta erretentzio-denboraren arabera zutabetik atera ahala, ionizatu eta masa espektrometrora sartzen dira. Bertan peptidoen m/z neurtu eta fragmentatu egiten dira. Fragmentuen m/z neurtuz, MS/MS fragmentazio-espektrua (urdina) lortzen da. B) Proteinen datu-base batean digestio teorikoak egiten dira eta fragmentuen m/z teorikoak lortzen dira (gorria). C) Tresna informatikoekin MS/MS espektru esperimentala teorikoarekin konparatzen da eta hasierako lagineko proteinak identifikatzen dira. Chugunova et al., 2018tik moldatuta.

Oro har, masa espektrometro batek 3 osagai nagusi ditu: ionizazio-iturria, masa-analizatzailea eta datuen prozesamendurako elektronika (26. irudia) (Yates et al., 2009). Ionizazio-iturriari esker, analizatu behar diren molekulak, peptidoak kasu honetan, kargadun ioi bilakatzen ditu. Proteomikan gehien erabiltzen diren ionizazio teknikak ESI (*Electrospray Ionization*) eta MALDI (*Matrix Assisted Laser Desorption/ Ionization*) dira (Fenn et al., 1989; Karas eta Hillenkamp, 1988). ESI metodoa soluzioan dauden molekulak ionizatzeko erabiltzen da. Peptidoak kromatografotik ateratzen diren heinean, elektroesprayari esker ionizatu egiten dira, eta zuzenean MSra sartzen dira. Aldiz, MALDIren kasuan, lagina euskarri solido batean jartzen da, hau da, ko-kristalizatu egiten da matrize organiko

batean. Ondoren, laser pultsuen bidez lagina erradiatu, eta bertako molekulak gas faseko ioi bilakatzen dira (Yates et al., 2009).

Behin peptidoak ionizatuta MSra sartzen dira, zehazki masa-analizatzailera. Masa-analizatzaileak eremu elektriko edo magnetiko bat ezarriz ioiak beren m/z ratioaren arabera banatu, eta detektorera bideratzen ditu. Proteomikan erabiltzen diren masa analizatzaile ohikoenak lau dira: kuadrupoloa, ioi-tranpak, TOF (*Time of Flight*) eta Orbitrap-a (Yates et al., 2009). Bakoitzak oinarri fisiko eta errendimendu analitiko espezifikoa dauka. Esaterako, TOF analizatzaileetan ioiak distantzia konkretu bat hegan egiteko behar duten denbora neurtzen da. Aldiz, kuadrupolo eta ioi-tranpek, tentsio ezberdinak aplikatuz, soilik m/z jakin bat duten ioiak uzten dituzte pasatzen analizatzailean zehar. Oro har, analizatzaile ezberdinek sentikortasun, erresoluzio eta eskaneatze-ahalmen ezberdinak dauzkate, beraz, baldintzen eta ikertzailearen beharren arabera, analizatzaile konbinazio ezberdinak erabiltzen dira (Domon eta Aebersold, 2006; Yates et al., 2009).



26. irudia. *Thermo Scientific*-en Q-Exactive masa espektrometroaren eskema. Tesi honetan erabili den Q-Exactive masa espektrometroa hibridoa da, eta bi masa analizatzaile ditu: Orbitrapa eta kuadrupoloa. Orbitrapak peptido eta fragmentuen masa aztertzen du, eta kuadrupoloak intereseko tamainadun peptidoak aukeratzeko balio du. Lehenik eta behin, kuadrupoloak ionizatutako peptido guztiak Orbitrap-era bideratzen ditu, baina ondoren, soilik intentsoenak aukeratzen ditu fragmentazio-ganberan fragmentatuak izan daitezen. Azkenik, Orbitrap-ak aztertuko ditu fragmentu horien masak. Horrez gain, Q-Exactive-ak ESI ionizazio-iturria, eta arestian aipatutako HCD (*High Collision Disociation*) bidezko fragmentazio-ganbera ditu.

Arestian aipatu bezala, ioi analizatzaileak peptidoak m/z-ren arabera banandu, eta ioi-detektorera bideratzen ditu, eta bertan peptidoen m/z neurtzen

da. Tipikoki, ioirik ugarienak fragmentazio-ganbera batean sartzen dira fragmentatuak izan daitezen. Beste behin ere, ioi-detektorea da sortutako fragmentu bakoitzaren m/z neurtzen duena. Peptido eta fragmentuen m/z ratioak neurtuz eraikitako MS1 eta MS2 espektroak, hurrenez hurren, datu-base bateko proteinen digestio teorikotik lortutako emaitzekin konparatzen dira software espezifiko bat erabiliz (Steen eta Mann, 2004). Horrela, aztertutako laginean ze peptido, eta ondorioz ze proteina dauden ondorioztatu daiteke.

Ioi detektoreak m/z jakin bakoitzeko ioi-kopurua ere erregistratzen du, neurtu daitekeen korronte elektriko bilakatuz (Finehout eta Lee, 2004; Steen eta Mann, 2004; Yates et al., 2009). Balio hori, intentsitate gisa definitua, peptidoen ugaritasunarekin bat dator, eta beraz, peptidoak kuantifikatzeko erabil daiteke. Hain zuzen, proteinak kuantifikatzeko peptidoen intentsitatetan oinarritzen den estrategiari LFQ (*Label Free Quantification*) edo markaketarik gabeko peptidoen kuantifikazioa deritzo.

Peptidoen kuantifikaziorako LFQ nahiz markaketa bidezko estrategiak erabili daitezke. Markaketa bidezko estrategietan (SILAC, iTRAQ/TMT, ^{18}O…) lagineko proteina, peptido nahiz molekulen bertsio astunak lortzen dira isotopo egonkorrekin markatuz. Peptido normalak eta isotopikoki markatutakoak masan soilik ezberdintzen dira. Hortaz, kromatografia zutabetik batera ateratzen dira, baina masa diferentzia dela eta, masa espektrometroan erraz bereizten dira. Azkenik, peptido beraren bertsio arinaren eta astunaren arteko intentsitate diferentziak, peptido horren kuantifikazio erlatiboaren berri ematen du.

Tesi honetako espektrometria-esperimentuetan LFQ kuantifikazioa erabili da. Markaketa bidezko metodoekin alderatuz, markaketarik gabeko peptidoen kuantifikazioak baditu hainbat abantaila. Edozein lagin biologikotik (zelula-lerro, ehun..) eratorritako peptidoak aztertu daitezke; laginak software mailan konparatzen direnez, nahi beste lagin konpara daitezke; printzipioz, detektatzen den edozein peptido erabil daiteke kuantifikatzeko; eta inolako erreaktibo berezik behar ez denez, merkea da. Alabaina, lagin bakoitza bere aldetik aztertzen denez, errepikakortasunak berebiziko garrantzia dauka. Laginaren prestaketa prozedura oso estandarizatuta egotea komeni izaten da, eta MS analisi ezberdinetako laginak konparatu ahal izateko, ezinbestekoa da m/z eta peptidoen erretentzio denborek zehaztasun handia izatea.

VI.

HIPOTESIAK ETA HELBURUAK

Tesi honetan Angelman sindromearen sorrerarekin erlazionatutako mekanismo molekularrak zeintzuk diren argitzea izan da helburu nagusia. Gure laborategiak urteetan zehar ubikitinazioaren ingurukoak ikertzeko hainbat estrategia garatu ditu, eta Tesi honen aurretik ikerketa taldeak burututako lanak estrategia horiek *in vivo* baliagarriak direla egiaztatu du. Hortik abiatuta, metodologia ezberdinak aplikatu nahi izan dira gaixotasunaren garapenean UBE3A proteinak duen rola hobeto ulertzeko. Gure hipotesiaren arabera, UBE3A proteina osotasunean ezagutzeak –egitura ebazteak, edota substratuak, interaktoreak eta aurkako funtzioa duten deubikitinasak identifikatzeak–, gaixotasunaren mekanismo molekularra ulertzen lagunduko digu, eta mekanismo hori deskribatuz gero, etorkizunean tratamendurako bidea egiten lagunduko luke.

Bide horretan lehen urratsak emateko asmoz, bost izan dira Tesi honetako helburu nagusiak:

1. UBE3A proteinaren substratuak giza zeluletan *in vivo* balioztatu eta karakterizatzea.

2. UBE3Aren aurkako funtzioa burutzen duten deubikitinasa proteinak identifikatzea, balioztatzea eta horien aurkako farmakoak Angelman sindromedun banakoetan erabilgarriak izan daitezkeen ikertzea.

3. UBE3Ak zelulan izan ditzakeen interaktore ezberdinak identifikatzea, eta interaktore horiek UBE3Aren amino edo karboxilo muturrarekin, edo proteina osoarekin elkarrekiten duten zehaztea.

4. UBE3Aren kristalografia bidezko egitura osoa ebaztea.

5. UBE3A gainadierazten duten saguen portaera karakterizatzea.

VII.

MATERIAL ETA METODOAK

1. Biologia molekularra

1.1. Plasmidoak

Tesi honetan erabilitako plasmido guztiak beste laborategietatik lortu dira, konpainia ezberdinetan erosi dira, edo laborategian bertan klonatu dira. Erabilitako plasmido guztiak honako taulan bildu dira (3. taula).

3. taula. Tesian zehar erabilitako plasmidoak.

Plasmidoa	Bektorea	Nork emana	Erres.	Abiaraz.
Substratuen balioztatzea eta karakterizazioa				
FLAG-UBE3A^{WT}	pCMV	Dr. Tomaic	AMP	-
FLAG-UBE3A^{LD}	pCMV	Dr. Tomaic	AMP	-
FLAG-Ub	pCDNA3.1	Dr. Rodriguez	AMP	-
DDI1-GFP	pEGFP-N1*	Clontech	KAN	1,2
GFP-DDI1	PM-GFP-C1*	Dr Abankwa	KAN	1,2
DDI1^{K77R}-GFP	pEGFP-N1*	Clontech	KAN	5,6
DDI1^{K133R}-GFP	pEGFP-N1*	Clontech	KAN	3,4
DDI1^{K161R}-GFP	pEGFP-N1*	Clontech	KAN	7,8
DDI1$^{K77R+K133R}$-GFP	pEGFP-N1*	Clontech	KAN	5, 6
DDI1$^{K77R+K161R}$-GFP	pEGFP-N1*	Clontech	KAN	5, 6
DDI1$^{K133R+K161R}$-GFP	pEGFP-N1*	Clontech	KAN	7,8
DDI1$^{K77R+K133R+K161R}$-GFP	pEGFP-N1*	Clontech	KAN	5,6
DDI2-GFP	pEGFP-N1	Clontech	KAN	-
EMPTY	pCDNA3.1	Invitrogen	AMP	-
GFP-TAX1BP1	pCMV3-N-GFPSpark	Sino Biologicals	KAN	-
GFP-BLMH	pCMV3-N-GFPSpark	Sino Biologicals	KAN	-
UBE2L3-GFP	pCMV3-C-GFPSpark	Sino Biologicals	KAN	-
PSMA5-GFP	pCMV3-C-GFPSpark	Sino Biologicals	KAN	-
MINDY2-GFP	pcDNA5 FRT/TO	Dr. Kulathu	AMP	-

UBE3Aren interaktoreen identifikazioa

BioID2			AMP	-
BioID2-UBE3A^{FL}	pCAG*		AMP	-
BioID2-UBE3A^{Cter}	pCAG*		AMP	11,12
UBE3A^{Nter}-BioID2	pCAG*		AMP	13,14

UBE3Aren egitura ebaztea

hUBE3A-HisP2	His-Parallel2*	Dr. Rojas	AMP	11, 13
hUBE3A-GSTP2	GST-Parallel2*	Dr. Rojas	AMP	15, 17
hUBE3A-SUMO	pET-28M-SUMO3-GFP*	Dr. Rojas	KAN	16, 17

*laborategian burututako klonazioa adierazten du. Erres.= erresistentzia, Abiaraz. = abiarazleak (ikusi 4. taula), AMP= Anpizilina, KAN = Kanamizina.

1.2. Oligonukleotidoak

Laborategian klonatutako plasmidoak lortzeko abiarazleak 18-30 nukleotido bitartean izateko eta moldearekiko osagarriak izateko diseinatu ditugu. Horrez gain, 3′ muturra G edo C nukleotidoekin amaitzea nahi izan dugu, abiarazlearen eta moldearen arteko elkarrekintza errazteko. 5′ muturrean murrizketa endonukleasek mozteko guneak, hots, murriztegune berriak gehitu ditugu (4. taula, gorriz), eta baita digestioa egoki ematen dela ziurtatzeko nukleotido batzuk ere (4. taula, berdez). Kasu batzuetan, irakurtaraua mantentzeko, nukleotido bat edo bi gehitu behar izan ditugu (4. taula, laranjaz). Abiarazle bati *FLAG* isatsa ere gehitu diogu (4. taula, urdinez). Mutazio bakanak, bikoitzak eta hirukoitzak sortzeko abiarazleak 25-45 nukleotido inguru izateko diseinatu ditugu. Tm ≥ 78 ºC eta mutazioa sekuentziaren erdian izateko diseinatu ditugu, konpainiaren gomendioei jarraituz (Invitrogen). Tesi honetan erabilitako abiarazle guztiak Invitrogen konpainiak sintetizatu ditu, eta taula honetan bildu ditugu (4. taula).

4. taula. Tesian zehar erabilitako abiarazleak.

DDI1en klonazioa		
1	DDI1 Fw KpnI	TATAGGTACCATGCTGATCACCGTG
2	DDI1 Rv AgeI	TATAACCGGTCCATGCTCTTTTCGTCC
3	DDI1 K133R Fw	CTTGGCGTCAGGAGAGAGGGTGGCCGG
4	DDI1 K133R Rv	CCGGCCACCCTCTCTCCTGACGCCAAG
5	DDI1 K77R Fw	TATCGTGGTTTTACTGCAGAGGGACAATGTGGGAC
6	DDI1 K77R Rv	GTCCCACATTGTCCCTCTGCAGTAAAACCACGATA
7	DDI1 K161R Fw	GATCTGTCCCTGCTCAGGGAACGCAACCCT
8	DDI1 K161R Rv	AGGGTTGCGTTCCCTGAGCAGGGACAGATC
9	HA-DDI1 Fw NheI	TATGCTAGCATGTACCCATACGATGTTCCAGATTACGC TATGCTGATCACCGTGTAC
10	DDI1 Rv XbaI	GCGTCTAGATCAATGCTCTTTTCGTCCTGAATCCATGA CTGAATGTGTAATTTCC
UBE3Aren interaktoreen identifikazioa		
11	Fw C-ter UBE3A	AAAGCGGCCGCATCTTTTATGACATGTCCC
12	Rv C-ter UBE3A	GGCATCGATTTACAGCATGCCAAATCC
13	Fw N-ter UBE3A	GAGACCGGTATGGAGAAGCTGCAC
14	Rv N-ter UBE3A	TATGCGGCCGCAGCGAATTCTATTGTC
UBE3Aren egituraren ebazpena		
15	hUBE3A SalI Fw	TATAGTCGACAATGGAGAAGCTGCACCAG
16	hUBE3A AgeI Fw	TATAACCGGTGGAATGGAGAAGCTGCACCAG
17	hUBE3A NotI Rv	TATAGCGGCCGCTTACAGCATGCCAAA

Berdea= nukleotido gehigarriak digestioa errazteko

Gorria= murriztegunea

Laranja= irakurtaraua mantentzeko nukleotido gehigarriak

Urdina= *FLAG* isatsa

1.3. Klonazio prozedura

Klonazio prozedura guztietan lehendabizi intereseko genea anplifikatu dugu, dagozkion zuzeneko eta alderantzizko abiarazleak erabiliz (3. Taula)(Thermo Scientific). PCR erreakzioak termozikladorean burutu ditugu (C1000 Touch Thermal Cycle BIO-RAD), honako konposatu hauek nahastuz: 10 ng DNA molde, 200 mM dNTP, 1.5 mM $MgCl_2$, 0.5 M abiarazle eta 0.02 U/L DNA polimerasa (*Phusion High-Fidelity* DNA polimerasa entzima, 1X *Phusion HF* disoluzio indargetzailean nahastuta). Erreaktibo guztiak Thermo Scientific konpainiatik eskuratu ditugu. PCR erreakzioek honako programa jarraitu dute: hasierako desnaturalizazioa 30 segunduz 98 ºC-tan, ondoren 30 ziklo ((i)10 segundu 98 ºC-tan, (ii) 20 segundu abiarazlea moldera elkartzeko beharrezko tenperaturan eta anplikoiaren tamainaren arabera, (iii) 20 segundu kilobase bakoitzeko 72 ºC-tan), eta azkenik, 5 minutuko hedapena 72 ºC-tan. Abiarazlea eta moldea elkartzeko beharrezko tenperatura (Tm, *melting temperature*) Thermo Fisher Scientific konpainiaren *Tm calculator* tresna erabiliz kalkulatu dugu. Tenperatura hori 72ºC baino altuagoa den kasuetan, 2 pausuko PCR erreakzioa burutu dugu abiarazle-molde elkarketa eta hedapena pausu bakarrean burutuz (72 ºC-tan). Mutazio puntualak egiteko mutagenesis kit komertziala erabili dugu, konpainiaren gomendioak jarraituz (Agilent technologies).

PCR erreakzioen ostean, produktuen tamaina egokiak agarosa gel batean egiaztatu ditugu, eta jarraian, *E.Z.N.A. Gel Extraction* (Omega Bio-tek) kita erabiliz DNA berreskuratu eta kontzentrazioa neurtu dugu nano-espektrofotometro batean (Biodrop). 200ng PCR produktu (insertoa) eta 500ng intereseko bektorea murrizketa endonukleasekin digeritu ditugu 2 orduz 37 ºC-tan, entzima bakoitzari dagokion indargetzaile-tanpoia erabiliz (Thermo-Scientific). Inkubazioa bukatzean, murrizketa endonukleasak inaktibatu ditugu 20 minutuz 80 ºC-tan. Ondoren, bektorea digeritzeko eta bir-ligazioa ekiditeko, digestio produktua ordu batez inkubatu dugu 37 ºC-tan Fosfatasa Alkalino entzimarekin (AP, Roche).

Bektorea eta insertoaren arteko lotura emateko, digestio produktua T4 ligasa entzimarekin (New England Biolabs) inkubatu dugu gau osoz 18 ºC-tan. Bektore:inserto ratio ezberdinak erabili ditugu (1/5, 1/10, 1/20) ligaziorako aukera gehiago izateko.

Ligazioaren ostean, produkturaren 5-10 µL, 25 µL DH5α bakteriorekin (NZYTech) inkubatu dugu. Transformazioa burutzeko txoke termikoa erabili dugu: ligazio-produktua bakterioekin 30 minutuz izotzetan inkubatu ostean, bakterioak 45 segunduz 42 ºC-tan, eta ondoren berriz izotzetan jarri ditugu 2 minutuz. Bakterioak gau osoz 37 º C-tan utzi ditugu hazten LB agar plaketan (Condalab), plasmido bakoitzari dagokion antibiotikoa erabiliz, anpizilina edo kanamizina (Sigma).

Inkubazioaren ostean, bakterioa transformatu den egiaztatzeko, kolonia ezberdinak testatu ditugu PCR erreakzio bidez. Kolonia positiboak gau osoz hazten utzi ditugu LB mediotan (Condalab) 37 ºC-tan. Ondoren, *E.Z.N.A. plasmid mini kits* (Omega Bio-tek) purifikazio kita erabiliz, plasmidoa purifikatu dugu. Azkenik, purifikatutako plasmidoen sekuentzia egokia dela egiaztatu dugu Eurofins GATC Biotech konpainiaren bidez sekuentziatuz (Köln, Germany).

2. Zelulen kultiboak eta transfekzioak

Giza enbrioien giltzurruneko zelulak (*Human Embryonic Kidney cells*, HEK293T) eta giza neuroblastoma zelulak (SH-SY5Y) ohiko baldintzatan mantendu ditugu (37 °C, %5 CO2), DMEM/F-12 medioarekin (*Dulbecco's modified Eagle medium/nutrient mixture F-12 with GlutaMAX*, Gibco, Thermo Scientific), kultibo medioari honako osagaiak gehituz: % 10 behi-fetu seruma (Thermo Scientific), 100 U/ml penizilina (Invitrogen) eta 100 mg estreptomizina (Invitrogen). Zelulen paseak astean hiru aldiz burutu ditugu. Horretarako, zelulak 5 minutuz 364 xg-ko (1250 rpm) abiaduran zentrifugatu ditugu, Allegra X-12R zentrifugan (Beckman Coulter). Jarraian, aurrez aipatutako DMEM kultibo-medioan birsuspentsatu ditugu, eta 100 mm-ko plaketan (NeoLab line) hazi ditugu. Tesi osoan zehar 20 pase baino gutxiagoko zelulak erabili ditugu.

Transfekzio esperimentuak burutzeko, HEK293T ($6{\cdot}10^5$ zelula) eta SH-SY5Y zelulak ($3{\cdot}10^5$ zelula) sei putzuko plaketan (NeoLab line) hazi ditugu. SH-SY5Y zelulen kasuan, DMEM medioa kendu eta serum gabeko OptiMEM medioan (Gibco, Thermo Scientific) jarri ditugu zelulak gau osoz transfekzioa burutu baino egun bat lehenago transfekzio-efientzia handitzeko asmoz. Hurrengo egunean,

SH-SY5Y zelulak berriz DMEM kultibo medioan jarri ditugu, (Gibco, Thermo Scientific). HEK293T eta SH-SY5Y zelulak 3 µg DNA totalarekin ko-transfektatu ditugu, eta 72 orduz utzi ditugu inkubatzen. Transfekzioak burutzeko *Lipofectamine 3000* (Invitrogen) edo *Jetprime* (Polyplus transfection) erreaktiboak erabili ditugu, konpainien gomendioak jarrituz.

Masa espektrometria bidez ubikitinazio-guneak eta ubikitina kate-motak identifikatzeko esperimentuetan, HEK293T zelulak hazteko 100 mm-ko plakak erabili ditugu ($2{\cdot}10^6$ zelula). Zelulak plakeatu eta 24 ordu geroago, guztira 25 µg DNArekin transfektatu ditugu, horretarako *Lipofectamine 3000* erreaktiboa (Invitrogen) erabiliz fabrikatzailearen gomendioei jarraituz.

DUBen isilpen esperimentuak burutzeko, HEK293T zelulak 6 putzuko plaketan ($6{\cdot}10^5$ zelula) hazten jarri ditugu transfekzioaren aurreko egunean. Putzu bakoitzari DUB jakin baten aurkako 10 nM siRNA (Ambion; life technologies) gehitu dizkiogu. Horretarako *Lipofectamine RNAiMAX* (Thermo Fischer) transfekzio erreaktiboa erabili dugu fabrikatzailearen gomendioei jarraituz. 24 orduz inkubatzen utzi ostean, guztira 3 µg DNA transfektatu ditugu putzu bakoitzean, eta beste 48 orduz inkubatzen utzi ditugu zelulak. Transfekziorako *Lipofectamine 3000* (Invitrogen) transfekzio erreaktiboa erabili dugu. Esperimentu guzti horietan zelulak bi aldiz garbitu ditugu PBS tanpoiarekin, eta -20ºC-tan gorde ditugu behar izan arte.

2.1. UBE3A substratuen balioztatzea

$6x10^5$ HEK293T zelula hazi ditugu sei putzuko plakako (NeoLab line) putzu bakoitzean, 2 mL DMEM+FBS+penizilina/estreptomizina kultibo mediotan. SH-SY5Y zelulen kasuan, $7x10^5$ zelula hazi ditugu 6 putzuko plaketako putzu bakoitzean, 2 mL OPTIMEM (Gibco, Thermo Scientific) erabiliz. 24 ordu geroago, zelulak ko-transfektatu ditugu *Jetprime* (Polyplus transfection) erreaktiboa erabiliz. Putzu bakoitzean guztira 3 µg DNA jarri ditugu (1 µg $UBE3A^{WT}$ edo $UBE3A^{LD}$, 1 µg FLAG-ubikitina eta 1 µg GFP- substratua) 200 µL *Jetprime* tanpoitan eta 6 µL *Jetprime* erreaktibotan diluituta. Zelulak 48 orduz inkubatu ditugu, eta jaso aurretik, GFP proteinaren adierazpena ziurtatu dugu fluoreszentziazko

mikroskopioa erabiliz (Nikon Eclipse TS2). Zelulak bi aldiz garbitu ditugu PBS tanpoiarekin, eta -20ºC-tan gorde ditugu erabili arte.

2.2. Ubikitinazio-guneak eta ubikitina kate-motak

Masa espektrometria bidez DDI1 eta DDI2 proteinen ubikitinazio-guneak eta ubikitina kate-motak identifikatzeko, HEK293T zelulak 100 mm plaketan hazi ditugu ($2x10^6$ zelula). 24 ordu geroago, zelulak *Lipofectamine 3000* (Invitrogen) transfekzio erreaktiboarekin transfektatu ditugu. Alde batetik, 1mL OPTIMEM 45 µL *Lipofectamine 3000* erreaktiboarekin nahastu dugu (A nahasketa). Bestetik, guztira 25 µg DNA (12,5 µg DDI1-GFP edo DDI2-GFP eta 12,5 µg $UBE3A^{WT}$ edo $UBE3A^{LD}$) 1mL OPTIMEM medioarekin eta 45 µL *Lipofectamine P3000* erreaktiboarekin nahastu dugu (B nahasketa). A eta B nahasketak batu ditugu, eta 5 minutu inkubatu ostean, zelulei gehitu diegu. Nahasketa erreplika guztientzako prestatu dugu, transfekzio-efientzia ezberdintasunak ekiditeko. Zelulak 74 orduz inkubatu ditugu, eta azkenik, bi aldiz PBS tanpoiarekin garbitu eta -20ºC-tan gorde ditugu erabili arte.

2.3. Giza DUBen baheketa

HEK293T zelulak transfekzio aurreko egunean sei putzuko plaketan hazi ditugu ($6x10^5$ zelula). Putzu bakoitza DUB jakin baten aurkako 10 nM siRNA-rekin (Ambion; life technologies) inkubatu dugu. Horretarako, *Lipofectamine RNAiMAX* (Thermo Fischer) transfekzio erreaktiboa erabili dugu. 2 mL DMEM mediotan dauden zelulen putzu bakoitzera 500 µL OPTIMEM medio, 3 µL siRNA eta 2 µL siRNA erreaktibo (Thermo Fischer) gehitu ditugu. 24 orduz inkubatzen utzi ostean, 1,5 µg DDI1-GFP eta 1,5 µg FLAG-Ub gehitu ditugu putzu bakoitzera, transfekziorako *Lipofectamine 3000* (Invitrogen) erabiliz: DNA 6 µL *Lipofectamine P3000* erreaktiboarekin nahastu dugu, eta jarraian, 6 µL *Lipofectamine* eta 250 µL OPTIMEM nahasketarekin batu dugu. Beste 48 orduz inkubatu ostean, zelulak bi aldiz PBS tanpoiarekin garbitu eta -20ºC-tan gorde ditugu berriz erabili arte.

3. GFP *pull-down* protokoloa

3.1. Protokolo zorrotza ubikitinazioa ikertzeko

HEK293T eta SH-SY5Y zelulen putzu bakoitzari 500 µL (6-putzuko plaketan) eta 2 mL (100 mm plaketan) liseriketa tanpoi gehitu dizkiogu (50 mM Tris-HCl pH 7.5, 150 mM NaCl, 1 mM EDTA, % 0.5 Tritoi, 1x proteasa-inhibitzaile nahasketa (Roche Applied Science) eta 50 mM N-etilmaleimida (Sigma)). 30 minutuz liseritu ostean, materiala 14.000 xg-ko abiaduran zentrifugatu dugu 10 minutuz. Gainjalkina *GFPTrap-A* agarosa bolatxoekin (Chromotek GmbH) nahastu dugu. 25 µL (6-putzuko plakak) eta 50 µL (100 mm-ko plakak) agarosa bolatxo erabili ditugu putzu/plaka bakoitzeko. Agarosa bolatxoak aurretiaz bi aldiz garbitu ditugu diluzio tanpoiarekin (10 mM Tris–HCl pH 7.5, 150 mM NaCl, 0.5 mM EDTA, 1x proteasa-inhibitzaile nahasketa eta 50 mM N-etilmaleimida). Jarraian, lisatua bolatxoekin nahastuta, hiru orduz inkubatzen utzi dugu giro tenperaturan emeki biratuz. Inkubazioaren ostean, laginak 2700 xg-ko abiaduran zentrifugatu ditugu bi minutuz, GFP agarosa bolatxoak elkartu gabeko materialetik banatzeko. Jarraian, bolatxoak hiru aldiz garbitu ditugu; behin diluzio tanpoiarekin, hiru aldiz garbiketa tanpoiarekin (8 M urea, % 1 SDS PBS-tan) eta behin PBS-tan diluitutako % 1 SDS tanpoiarekin. GFP isatsa duten proteinak agarosa bolatxoetatik askatzeko laginak 95 °C-tan irakin ditugu 10 minutuz 25 µL eluzio tanpoirekin (250 mM Tris-HCl pH 7.5, % 40 glizerola, % 4 SDS, % 0.2 bromofenol urdina eta 100 mM DTT). Behin eluituta, laginak -20ºC-tan gorde ditugu erabili arte.

3.2. Protokolo leuna interaktoreak identifikatzeko

HEK293T zelulak 200 µL lisi-tanpoirekin (10 mM Tris/Cl pH 7.5, 150 mM NaCl, 0.5 mM EDTA, % 0.5 NP-40, 1x proteasa-inhibitzaile nahasketa (Roche Applied Science) eta 50 mM N-etilmaleimida (Sigma)) liseritu ditugu. 30 minutuz izotzetan inkubatu ostean, lisatutako zelulak 14.000 xg-tara zentrifugatu ditugu 10 minutuz 4ºC-tan. Gainjalkinak *eppendorf* hodi berrietara pasatu eta 300 µL diluzio-tanpoirekin diluitu ditugu (10 mM Tris/Cl pH 7.5, 150 mM NaCl eta 0.5 mM EDTA). Diluitutako lagin bakoitza aurretiaz diluzio-tanpoiarekin garbitutako 25 µl *GFPTrap-A* agarosa bolatxoekin (Chromotek GmbH) inkubatzen utzi dugu. Ordu

batez 4 ºC-tan biratzen utzi ostean, laginak 2500 xg-ko abiaduran zentrifugatu ditugu. Gainjalkina baztertu dugu, eta bolatxoak bi aldiz 500 µL diluzio-tanpoirekin garbitu ditugu. Azkenik, 2500 xg -ko abiaduran 4 ºC-tara 2 minutuz zentrifugatu ostean, bolatxoak 100 µL eluzio-tanpoirekin (120 mM Tris-HCl pH 6.8, % 20 glizerol; % 4 SDS, % 0.04 bromofenol urdina; % 10 β-merkaptoetanol) nahastu ditugu, eta 95 ºC-tan irakin ditugu 10 minutuz, GFP-proteina eta bere interaktoreak bolatxoetatik askatzeko. Eluitutako laginak -20 ºC-tan gorde ditugu erabili arte.

4. BioID2 *pull-down* protokoloa

HEK293T zelulak 200 µL lisi tanpoirekin (10 mM Tris/Cl pH 7.5, 150 mM NaCl, 0.5 mM EDTA, % 0.5 NP-40, 1x proteasa-inhibitzaile nahasketa (Roche Applied Science) eta 50 mM N-etilmaleimida (Sigma)) liseritu ditugu. Zelulen lisatuak 5 minutuz zentrifugatu ditugu abiadura maximoan (16100 xg), 4 ºC-tan, 5415-R zentrifugan (Eppendorf). Gainjalkinak PD10 zutabeetatik (GE Healthcare) pasatu ditugu gatzak baztertzeko. Zutabe horiek aurretiaz orekatu ditugu 3 M Urea (Sigma), 1 M NaCl (Sigma), % 0.25 SDS (Sigma) eta 50 mM NEM (Sigma) PBS-tan diluituta dituen tanpoia erabiliz. Jarraian, eluitutakotik 50 µL gorde ditugu *input* bezala, SDS-PAGE bidez monitorizatzeko. Gainerako guztia biratzaile (Stuart) batean inkubatu dugu 150 µL of *NeutrAvidin* agarosa bolatxorekin (Thermo Scientific), ordu batez giro tenperaturan, eta beste bi orduz 4 ºC-tan. Bolatxoak Allegra X-12R zentrifugan (Beckman Coulter), 233 xg-tan 2 minutuz zentrifugatu ditugu, eta bolatxoei lotu ez den materiala (*Flow through*, FT) gorde dugu. Jarraian, bolatxoak tentuz garbitu ditugu, sei garbiketa-tanpoi ezberdin erabiliz (*Whasing Buffer, WB).* Honakoak dira erabilitako garbiketa tanpoi eta baldintzak: bi aldiz WB1 (8 M Urea, % 0.25 SDS), hiru aldiz WB2 (6 M Guanidinio-HCl), behin WB3 (6.4 M Urea, 1 M NaCl, % 0.2 SDS), hiru aldiz WB4 (4 M Urea, 1 M NaCl, % 10 isopropanol, 10 % etanol, 0.2 % SDS), behin WB1, behin WB5 (8 M Urea, % 1 SDS) eta hiru aldiz WB6 (% 2 SDS). Tanpoi guztiak PBS-tan prestatu ditugu (Fisher Scientific). Guanidinio-HCl, isopropanola eta etanola, Sigma, Panreac and Merck konpainietatik lortu ditugu, hurrenez hurren. Garbiketa bakoitzean bost minutu mantendu ditugu laginak biratzailean (Stuart) eta jarraian bi minutuz zentrifugatu

ditugu 233 xg-tara Allegra X-12R zentrifugan (Beckman Coulter). Bolatxoei atxikitutako materiala eluitzeko, laginak 95 ºC-tan irakin ditugu 30 µL 4X Laemmli tanpoiarekin (250 mM Tris-HCl pH 7.5, % 40 glizerola, % 4 SDS, % 0.2 Bromofenol urdina) eta 100 mM DTTrekin. Iraikindako laginak 0.8 µm-ko porodun filtroak dituzten zutabetara (Sartorius) gehitu ditugu, eta 2 minutuz zentrifugatu ditugu abiadura maximoan (16160 xg) Microfuge-16 zentrifugan (Beckman Coulter). Modu horretan, eluitutako materiala bolatxoetatik banandu dugu, Western plapaketa bidez edo masa espektrometria bidez aztertu ahal izateko.

5. Western plapaketa eta zilar tindaketa

5.1. Antigorputzak

Honako antigorputz primarioak 1/1000 kontzentrazioan erabili ditugu: sagu-anti-GFP antigorputz monoklonala (Roche Applied Science; katalogo zenbakia 11814460001); sagu-anti-FLAG M2-HRP antigorputz monoklonala (Sigma; katalogo zenbakia A8592); sagu-anti-UBE3A antigorputz monoklonala (E6AP-300 klona) (Sigma; katalogo zenbakia E8655), untxi-anti-UCHL-5 antigorputz poliklonala (Abcam, ab124931), untxi-anti-USP9X antigorputz poliklonala (Proteintech, 55054-1-AP), sagu-anti-USP7 (Dr. Emilio Leconak emana), untxi-anti-USP42 antigorputz poliklonala (Sigma, HPA006752), oilo-anti-bioID2 antigorputz poliklonala (BioFront Technologies) eta HRP konjugatutako ahuntz-anti-biotina antigorputza (Cell Signaling Technology). Jarraian azaltzen diren antigorputz sekundarioak 1/4000 kontzentrazioan erabili ditugu: ahuntz-anti-sagu-HRP antigorputza (Thermo Scientific; katalogo zenbakia 62-6520) eta ahuntz-anti-untxi-HRP antigorputza (Cell Signalling; katalogo zenbakia 7074). Antigorputz sekundario fluoreszenteak 1/8000 kontzentrazioan erabili ditugu: IRDye800CW eta IRDye600CW (Li-COR).

5.2. Western plapaketa

SDS-PAGE elektroforesirako, % 4–12 *Bolt Bis-Tris Plus pre-cast* (Invitrogen) gelak erabili ditugu. Jarraian, proteinak PVDF mintzetara transferitu ditugu iBlot

sistema erabiliz (Invitrogen). Mintzak blokeatzeko % 5 esne-hautsa, % 0.05 Tween duen PBS (PBS-T) tanpoian bersuspentsatuta erabili dugu. Antigorputz primarioak gau osoz 4 ºC-tan inkubatu ditugu, eta sekundarioak ordu batez inkubatu ditugu giro tenperaturan. Jarraian, mintzak errebelatzeko *ECL* kit-a (Biorad Clarity) erabili dugu, eta *ChemiDoc Imaging System* (BioRad) aparatuan ikustarazi dugu. Bi koloretako irudiak lortzeko, HRP eta fluoreszentziazko antigorputz sekundarioak konbinatu ditugu, eta kanal independenteetan ikustarazi ditugu. Western plapaketetarako, kasuan kasu, lagin guztiaren %15-%50 bitartean erabili dugu.

5.3. Zilar tindaketa

Masa espektrometria bidezko analisia baino lehen, GFP *pull-down* protokoloaren efizientzia testatu dugu zilar tindaketa bidez. Lagin netoaren % 10arekin SDS-PAGE (% 4-12 *Bolt Bis-Tris Plus precast* gelak, Invitrogen) bat burutu dugu. Jarraian, zilar tindaketa burutzeko eta bandak ikustarazteko *SilverQuest* (Invitrogen) kit-a erabili dugu, fabrikatzailearen gomendioak jarraituz. Laburki, gela % 40 etanol eta % 10 azido azetikorekin fixatu dugu ordu batez giro tenperaturan inkubatuz. Jarraian, sentikortze tanpoiarekin inkubatu dugu gela, proteinen tindaketa indartzeko. Tanpoi hori H_2O destilatua erabiliz garbitu dugu, eta azken, tindaketa tanpoiarekin inkubatu dugu 5 minutuz. Bandak intentsitate egokiz ikusi ditugun momentuan erreakzioa gelditu dugu gelditze-tanpoiarekin (Invitrogen). Azkenik, gelak H_2O destilatutan utzi ditugu eskaneatu bitartean.

6. Masa espektrometria: laginen prestaketa, datuen bilketa eta analisia

6.1. *In-gel* tripsina bidezko digestioa eta peptidoen erauzketa

GFP *pull-down* protokoloa aplikatuz aberastutako proteinen % 90arekin SDS-PAGEa burutu dugu (% 4-12 *Bolt Bis-Tris Plus precast* gelak erabiliz, Invitrogen) eta gela *Colloidal Blue* (Invitrogen) erreaktiboarekin tindatu dugu fabrikatzailearen gomendioak jarraituz. Ondoren, baldintza bakoitzari dagokion gel kalea bi zatitan moztu dugu, mono- eta poli-ubikitinatutako DDI1 proteina

isolatzeko asmoz (>75 KDa). Jarraian, gel zati horietako bakoitza txikitu dugu, eta proteinak *in-gel* digestio protokoloarekin digeritu ditugu (Osinalde et al., 2015). Hasteko, gel zatitxoak azetonitriloarekin (AZN) deshidratatu ditugu. Jarraian, bertako proteinak 10 mM DTT-rekin (ditiotreitol) erreduzitu, 55 mM kloroazetamidarekin alkilatu eta 12.5 ng/mL tripsinarekin gau osoz inkubatzen utzi ditugu 37 ºC-tan. Hurrengo egunean, peptido triptiko horiek geletik atera ditugu % 100 AZNrekin eta % 30 AZN-tan diluitutako % 1 azido trifluoroazetikorekin inkubazio ezberdinak burutuz. Azkenik, masa espektrometria bidez analizatu baino lehen, peptidoen soluzioak lehortu egin ditugu SpeedVac zentrifuga erabiliz (Thermo Scientific).

6.2. LC-MS/MS analisia

Masa espektrometriako analisiak *EASY-nLC 1200* likido kromatografiari akoplatutako *Q Exactive HF-X* masa espektrometroan burutu ditugu (Thermo Scientific), horretarako ioi-iturri gisa *nanospray*-a erabiliz. Lehortutako peptidoak % 0.1 azido formikotan disolbatu, eta *Acclaim PepMap RSLC C18* (75 m x 25 cm, Thermo Scientific) zutabe analitikora lotutako *Acclaim PepMap100* aurre-zutabean kargatu ditugu (75 m x 2 cm, Thermo Scientific). Peptidoak zutabetik eluitu ditugu honako azetonitrilo gradientea erabiliz (% 0.1 azido formikotan): 18 minutu % 2.4tik % 24ra, 2 minutu % 24tik % 32ra eta 12 minutu % 80ra, jario-tasa 300 $nL \cdot min^{-1}$ izanik. Masa espektrometroak ioi-modu positiboan funtzionatu du.

MS datuak m/z 375etik 1800ra jaso ditugu, 120.000ko bereizmena erabiliz m/z 200ean. 10 ioi intentsoenak fragmentatu ditugu energia altuko *C-trap* disoziazioz, horretarako 28 eV-ko kolisio-energia normalizatua erabiliz. MS/MS espektroak 15.000ko bereizmenaz erregistratu dira m/z 200an. Ioi-injekzio denbora maximoa 100 ms eta 120 ms izan dira, aldiz, AGC balioak 3 x 106 eta 5 x 105 izan dira, MS eta MS/MS bilketan, hurrenez hurren. Peptido beraren sekuentziazioa ekiditeko, 12 segunduz fragmentatutako prekurtsore bat ez hautatzeko hautua egin dugu (baztertze-dinamikoa). Karga bakarreko ioiak edo karga-egoerarik definitu gabeko ioiak baztertu egin ditugu MS/MSetik. Datuak XCalibur softwarea (Thermo Scientific) erabiliz bildu dira.

6.3. Datuen prozesamendua eta analisi bioinformatikoa

Eskuratutako datu gordinen fitxeroak MaxQuant softwarearekin (Cox and Mann, 2008) prozesatu ditugu (1.5.3.17 bertsioa), Andromeda (Cox et al., 2011) barne bilatzailea erabiliz, eta bilaketa UniProt datubaseko *Homo sapiens* sarrerekiko burutuz (2017_03; 42165 sarrera). Horrez gain, bilaketa horretarako datubasean FLAG_UBIQUITIN eta DDI1_GFP proteinen sekuentziak eskuz gehitu ditugu. DDI1 proteinan aurkitzen diren ubikitina kate-motak aztertzeko, soilik poli-ubikitinatutako DDI1en laginari dagozkion fitxero gordinak erabili ditugu. Aldiz, DDI1en ubikitinazio guneak ikertzeko, bai mono-, bai poli-ubikitinatutako fitxero gordinak batera analizatu ditugu. Karbamidometilazioa (C) eraldaketa egonkor bezala ezarri dugu, aldiz, Met oxidazioa, N-muturreko azetilazioa eta Lys GlyGly (ez karboxilo-muturrekoa) eraldaketa aldakor bezala jarri ditugu. Masa tolerantzia 8 eta 20 ppm-tan ezarri dugu MS eta MS/MS mailatan, hurrenez hurren. Entzimaren espezifikotasunean tripsina ezarri dugu, eta gehienez 3 *missed cleavage* onartu ditugu. *Match between runs* aukera aktibatu dugu, 1,5 minutuko kointzidentzia-leiho batekin eta 20 minutuko lerrokatze-leiho batekin, laginen arteko identifikazioa lortzeko asmoz. Peptidoaren gutxieneko luzera minimoa zazpi aminoazidotan ezarri dugu, eta peptido zein proteinentzako aurkikuntza faltsuaren tasa (*False Discovery Rate* (FDR)) % 1ean. Ubikitinazio-guneak ikertzerakoan, gutxieneko lokalizazio-probabilitatea 0,75ekoa izatea erabaki dugu. LFQ (*Label Free Quantification*) intentsitate normalizatuak MaxLFQ algoritmoa erabiliz kalkulatu ditugu.

7. *Drosophila melanogaster* eulien igotze-abiaduraren testa

Bi eguneko adina duten 4 genotipo ezberdineko euliak erabili ditugu beraien igotze-abiadura testatzeko: jatorrizkoa (*wild-type, WT*), *Ube3a* mutante homozigotoa (15B), *Ube3a* mutante heterozigotoa (15B/TM6) eta *faf* mutantea (faf-RNAi).

Euliak DMSO edo WP1130 farmakoarekin tratatu ditugu. Horretarako, tratamendua baino bost ordu lehenago euliak janaririk gabeko hodi huts batera pasatu ditugu. Jarraian, hodi berriak prestatu ditugu, eta janariari gainera DMSO

edo 0.7 mM WP1130 gehitu diogu. Bost orduko baraualdiaren ondoren, eta janaria lehorra dagoela egiaztatu ondoren, euliak hodi berri horietara pasatu ditugu. Azkenik, igotze-testa burutu dugu 24h, 48h eta 72h geroago.

Igotze-abiaduraren testa burutzeko, fenotipo bakoitzerako hodi huts bat prestatu dugu, eta 5 ar eta 5 eme sartu ditugu bertan (n=10). Minutu batez egokitzen utzi ostean, kolpe batekin euli guztiak hodiaren hondora mugiarazi ditugu, eta aldi berean, kronometroa martxan jarri dugu. Lehenengo euliak 4 zentimetrotara markatu dugun lerroa gurutzatzen duenean kronometroa gelditu dugu, eta denbora hori aputatu dugu. Genotipo bakoitzarekin bost aldiz egin dugu testa, eta neurketa bakoitzaren artean euliei 2 minutuko atsedena eman zaie, errekuperatu daitezen. Igotze-abiaduraren test hori hiru aldiz errepikatu dugu, euli-belaunaldi ezberdinekin.

8. UBE3Aren purifikazioa eta kristalizazioa

8.1. Bakterioen transformazioa eta proteinaren adierazpena

Escherichia coli BL21 (DE3 eta TR1 anduiak)(Stratagene) His-P2-hUBE3A, GST-P2-hUBE3A eta His-SUMO-hUBE3A plasmidoekin transformatu ditugu. Kolonia bakar bat hartu eta 10 mL LB (*Luria Broth*) mediotan pre-inokulatu dugu. 24 ordu geroago, pre-inokulo hori 2 L LB mediotan inokulatu dugu, eta bakterioak 37 ºC-tan hazi ditugu dagozkien antibiotikoekin (kanamizina edo anpizilina). Dentsitate-optikoa (OD_{600}) 0.7 denean, proteinen adierazpena induzitu dugu 1M IPTG (isopropil 1-tio-β-D-galaktopiranosido) erabiliz. 12 orduz 20 ºC-tan inkubatu ostean, bakterioak zentrifugatu ditugu (30 minutuz, 4500 rpm-tan) (Beckman Coulter, JLA 8.100), eta jalkina TBS tanpoian berresegi dugu (200 mM NaCl, 25 mM Tris-HCl, pH 7.4, eta 10 mM imidazol (HIS konstruktoarentzako) edo 1 mM DTT (GST konstruktoarentzako) eta DNAsa (100 µl, 2,5 mg/mL). Zelulak sonikatu egin ditugu 4°C-tan 30 minutuz (10 segundu piztuta, minutu bat itzalita, %60ko anplitudearekin), eta jarraian 0.1 mM PMSF (fenilmetilsulfonil fluoruroa) eta 1 mg/mL lisozima gehitu ditugu. Azkenik, lisatutako materiala ultrazentrifugatu dugu (1h, 20.000 rpm) eta gainjalkina erabili dugu UBE3A proteinaren purifikaziorako.

8.2. Afinitate purifikazioa eta mozketa

Lehenik eta behin afinitate kromatografia burutu dugu gainjalkinetik abiatuta giza UBE3A protein purifikatzeko. Horretarako 3 mL Ni-NTA (QIAGEN) edo Glutation Sefarosa bolatxoak (GE Healthcare) paketatu ditugu zutabe ezberdinetan. Grabitate bidez, zutabeak garbitu ditugu garbiketa tanpoiarekin (200 mM NaCl, 25 mM Tris-HCl, pH 7.4) eta jarraian, proteinak eluitu ditugu 250 mM imidazol (HIS-isatsaren kasuan) edo 20 mM Glutation (GST isatsaren kasuan) erabiliz. Eluitutako materiala dialisi poltsan sartu, eta gau osoz dialisi tanpoian sartuta utzi dugu (100 mM NaCl, 1 mM DTT eta 25 mM Tris-HCl pH 7.4). Horrez gain, *Tobacco etch virus* (TEV) edo *SUMO Specific Peptidase 2* (SENP2) proteasa entzimak gehitu dizkiegu, GST eta SUMO laginen kasuan, hurrenez hurren. 1/20 proteasa/proteina ratioa mantendu dugu, gauean zehar dialisiaz gain GST eta SUMO isatsak mozteko. Mozketaren ostean laginak berriz ere aurretiaz erabilitako zutabera berdinera gehitu ditugu GST eta SUMO isatsak baztertzeko.

8.3. Ioi-kromatografia

Afinitate kromatografiaren ostean, moztutako eta eluitutako laginak anioi-trukeko kromatografia zutabean (HiTrap Q HP; 5 ml; GE Healthcare) kargatu ditugu. Zutabea lehendabizi A tanpoiarekin garbitu dugu (25 mM Tris-HCl pH 7.4, 1 mM DTT), zutabearen bolumena 3 aldiz pasatuz. Jarraian, B tanpoiaren (25 mM Tris-HCl pH 7.4, 1 mM DTT and 1M NaCl) hiru zutabe-bolumen, eta berriz ere A tanpoia pasatu ditugu. Azkenik, laginak zutabetik eluitzeko gatz-gradientea erabili dugu: hasierako tanpoia 25 mM Tris-HCl, pH 7.4 da, eta gradientea 0-1 M NaCl bitartean burutu da. Jario-tasa 2.0 ml/min izan da, eta 2 mL-tako frakzioak batu ditugu.

8.4. Gel-iragazpeneko kromatografia

SDS-PAGE elektroforesi bidez giza UBE3A duten laginak identifikatu ostean, lagin horiek bateratu, kontzentratu eta TBS tanpoitan garbitu ditugu (25 mM Tris-HCl pH 7.4, 200 mM NaCl eta 1 mM DTT). Jarraian, laginak *HiLoad 10/30 Superdex 200* gel-iragazpen zutabera gehitu ditugu (GE Healthcare), zutabe hori

aurretiaz TBS tanpoiarekin garbitu ostean. UBE3A proteina puruenak dituzten frakzioak bateratu ditugu, eta 2 mg/mL-ra kontzentratu ditugu Amicon zentrifugazio-kontzentradoreak erabiliz (Millipore). Azkenik, purifikatutako proteinaren kontzentrazioa neurtu dugu. Horretarako 280 nm-tako absorbantzia neurtu dugu, eta extintzio-koefizientea erabiliz (*Protparam* programaren arabera, UBE3Aren kasuan 0,79 m^{-1} cm^{-1}), UBE3Aren kontzentrazioa kalkulatu dugu.

8.5. Aurre-kristalizazio testa

Aurre-kristalizazio testa burutzeko *Hamptom Research* gidan azaltzen den *Pre-crystallization Test* (PCT) kit-a erabili dugu, zintzilikatutako tantaren lurrun-difusioa deritzon teknika aplikatuz. 1 µL purifikatutako hUBE3A (2 mg/mL) eta 1 µL prezipitatzaile-tanpoi nahastu ditugu 18 °C-tan. Erabilitako prezipitatzaile tanpoi ezberdinak honakoak dira: A1 (0.1 M TRIS-HCl pH 8.5, 2.0 M Amonio sulfatoa), A2 (0.1 M TRIS-HCl pH 8.5, 0.2 M Magnesio kloruroa, 30% w/v Polietilenglikola 4,000), B1 (0.1 M TRIS-HCl pH 8.5, 1.0 M Amonio sulfatoa) eta B2 (0.1 M TRIS-HCl pH 8.5, 0.2 M Magnesio kloruroa, 15% w/v Polietilenglikola 4,000). Laginak 30 minutuz inkubatu ditugu, eta tantak argi mikroskopioz aztertu ditugu.

8.6. Kristalizazioa

hUBE3A proteinaren kristalak lortzeko, berriz ere zintzilikatutako tantaren lurrun-difusioa deritzon teknika aplikatu dugu. Kristalizazio tantak 1 µL proteina (2 mg/mL) eta 1 µL tanpoi ditu. Baheketa burutu dugu 96-putzuko plaketan kristalizaziorako tanpoi ezberdinak jarriz, kristalizazio-baldintza egokienak aurkitzeko. Erabilitako baheketa kitak honakoak dira: Morpheus (Molecular Dimensions, MD1-124), PACT (Qiagen), Proplex (Molecular Dimesions, MD1-38) eta Amonium sulfate (Hampton Research, HR2-211). 96-putzuko plaketan, putzu bakoitzaren baldintzak 1. Dokumentu Osagarrian aurkitu daitezke.

9. Saguen portaera

UBE3A gainadierazten duten saguak (UBE3A-OE$^{+/+}$) eta adin bereko kontrol saguak (C57BL/6) erabili ditugu portaera esperimentuetarako. Kutxa bakoitzean 4-5 sagu jarri ditugu, eta 12-12h argi/ilun zikloak, 21-23 ºC eta % 65-70eko hezetasuna mantendu ditugu. Janaria eta ura *ad libitum* eman dizkiegu. Animalien mantenua eta esperimentazio prozedurak Europako 2010/63/EU eta Espainiako 53/2013 errege dekretuetan ezarritako oinarrien arabera burutu ditugu. Horrez gain, prozedura guztiak EHUko etika batzordeak (CEEA) onartu ditu. Autismoarekin erlazionatutako honako portaera test ezberdinak burutu ditugu, Silverman et al. (2010) taldeak deskribatu bezala.

9.1 Ultrasoinu-bokalizazioak(UsV)

P7 adineko saguak kutxatik atera ditugu, eta soinu-gabeko ganbera batean sartu ditugu. Ganbera horretan dauden bitartean, 5 minutuz, ultrasoinu-bokalizazioak grabatu ditugu. Azkenik, fitxategi horiek laborategiko animalientzako garatutako Avisoftsound programaren bidez analizatu ditugu.

9.2 *Elkarganako elkarrekintza sozialaren* testa

P21-28 adineko saguak aurretiaz ezaguna duten kutxa batean sartu ditugu. Kutxa horretan ezagutzen ez duten eta familiakoa ez den adin, sexu eta genotipo bereko sagu bat jarri dugu, eta elkarrekiten utzi ditugu 10 minutuz. Elkarrekintza soziala zenbat denboraz eman den neurtu dugu pare bakoitzean. Elkarrekintza kontsideratu dugu bi saguen sudurrak elkarren aurka jarri eta usaintzen, sudurrarekin uzkia usaintzen, elkarri segika, edota elkarren gainean edo azpian pasatu duten denbora. Neurketa horiek bi esperimentu independentetan burutu ditugu.

9.3 *Eremu irekiaren* testa

P30 adineko saguak Plexiglas kutxa batean sartu ditugu 20 minutuz, eta bideo bidezko grabaketen bidez, aktibitate lokomotorea neurtu dugu. Bideo horietan zenbateko distantzia bidaiatu duten eta zein abiadurarekin neurtu dugu, horretarako ANY-maze portaera ikertzeko software-a erabiliz.

9.4 *Grooming-a*

Grooming portaera saguek beraien burua txukun mantentzeko ahaleginean edo garbitzean burutzen duten mugimendu errepikakorra da. P30 adineko saguak erabili ditugu test hori burutzeko, eta *grooming* egiten pasatzen duten denbora eskuz neurtu dugu. Horretarako saguei 10 minutuko jarraipena egin diegu ohiko kutxetan isolatuz.

9.5 *Hiru ganberen* testa

Hiru ganberen testa saguen alderdi soziala aztertzeko burutzen da. Test hau P35-42 adineko saguekin burutu dugu. Lehenik eta behin, egokitzapen gisa, saguari 10 minutuz hiru ganberako Plexiglas kutxa aztertzen utzi diogu. Behin egokitzapena bukatuta, sagua kutxaren erdian kokatu dugu. Hiru ganberak konektatuta daudela kontuan izanda, saguak hiru eremuetako edozein aukeratzeko askatasuna dauka. Ganbera batean ontzi huts bat jarri dugu, eta beste ganberako ontzian berriz, ezaguna ez den baina adin, sexu eta genotipo berdina duen sagu bat jarri dugu. Modu horretan, testatzen ari garen saguek ontzi bakoitzarekin elkarrekintzan pasatzen duten denbora neurtu dugu, bi esperimentu independentetan.

9.6 *Argi-ilunpe* testa

P45 adineko saguak bi ganbera ezberdin dituen kutxa batean jarri ditugu 10 minutuz. Ganbera horietako bat ilunpetan dago, saguak seguru sentitzeko, eta bestea aldiz, argiztatuta dago, eta horrek saguei antsietatea eragiten die. Test

horretan, saguek ganbera bakoitzean pasatzen duten denbora, eta ganbera ilunetik argira ateratzeko behar duten denbora neurtu ditugu, antsietate-mailaren indikatzaile gisa.

9.7. *Plaka beroaren* testa

P45 edo nagusiagoak diren saguak erabili ditugu plaka beroaren testa burutzeko. Horretarako, saguak 52 ºC-tara dagoen zoru bero baten gainean jarri ditugu, eta minaren adierazle den lehen sintoma agertu arteko denbora neurtu dugu. Sintoma horiek oinak altxatzea, edo aurreko hankekin aurpegia garbitzea izan daitezke. Test hori gehienez 15 segunduz luzatu dugu.

VIII.
RESULTS

Chapter 1

Validation and characterization of candidate UBE3A substrates

1. Validation of previously identified UBE3A substrates

The identification of human UBE3A substrates is crucial for the deep understanding of the molecular mechanisms by which Angelman syndrome is developed, and could explain how the lack of a single protein –UBE3A– can end up in such severe symptoms. We therefore decided to validate in human cell lines potential UBE3A substrates previously identified in our lab in Drosophila and mice experiments (Ramirez et al., 2018; data not published). We aim to confirm that UBE3A mediated ubiquitination of those proteins is conserved within species. For that purpose, we applied a modified GFP pull-down approach based on high-affinity anti-GFP antibody-coated beads (Chromotek-GmbH). Those beads are routinely used in non-denaturing conditions to preserve interactions in co-immunoprecipitation experiments, but our lab has found that they also withstand very stringent washing conditions. As the isopeptide bond of ubiquitin with its substrates is kept intact on denaturing environments, GFP-tagged proteins can be successfully isolated in order to further study their ubiquitination (Lee et al., 2014; Min et al., 2013; Ramirez et al., 2015).

To apply the modified GFP pull-down strategy for the validation of putative UBE3A substrates, we co-transfected the cells with a FLAG tagged version of ubiquitin (FLAG-Ub) together with a GFP tagged candidate protein (X-GFP), in two conditions: overexpressing wild-type ($UBE3A^{WT}$) and ligase-dead ($UBE3A^{LD}$) UBE3A (Figure 27). $UBE3A^{LD}$ is a catalytically inactive version of the UBE3A protein; mutation in C843A allows ubiquitin binding but not its transfer to the substrates (Brimer and Lyons, 2007). After pull-down, immunoblotting detected simultaneously the GFP tagged protein and the FLAG tagged ubiquitin: a secondary fluorescent antibody detected the primary anti-GFP antibody that binds to the non-modified form of the protein of interest (Figure 27, green channel), while the chemiluminescent anti-FLAG antibody directly bound to the ubiquitin's FLAG tag, monitoring the ubiquitination pattern of the protein (Figure 27, red channel). We employed this strategy in HEK293T cell line, due to their easy-of-use and high-transfection efficiency, essential for ubiquitome studies. However, since Angelman syndrome is a neurological disease and HEK293T cells lack the typical characteristics of neuronal cells (dendrites…) we also employed a

neuroblastoma cell line (SH-SY5Y) aiming to validate candidate UBE3A substrates in a cell line closer to their real physiological context.



Figure 27. Modified GFP pull-down protocol allows the detection of the protein of interest and its ubiquitination pattern. FLAG-tagged ubiquitin and a GFP-tagged protein are co-transfected in HEK293 and SH-SY5Y cells. Ubiquitin is then covalently attached to the proteins. Cell lysate is incubated with beads that bind GFP. After stringent washes with 8M urea and 1% SDS all contaminants are removed and the protein of interest together with its ubiquitinated fraction can be purified. Immunoblotting with anti-GFP antibody and anti-FLAG antibody detect the protein of interest (in green) and its ubiquitinated fraction (in red), respectively.

Aforementioned experiments in photoreceptor neurons of *Drosophila melanogaster* (Ramirez et al., 2018) as well as mice brain (data not published) identified a high amount of proteasome integral or regulatory subunits as potential UBE3A substrates (Table 5). In this report we aim to validate the following putative candidates as real UBE3A substrates using the GFP pull-down assay described above.

Table 5. List of putative UBE3A substrates to validate.

Protein	Human homolog	Molecular function	Celullar function	References
Rngo	DDI1 *Ddi1 homolog 1*	?	?	(Sivá et al., 2016)
	DDI2 *Ddi1 homolog 2*	Proteasomal shuttle, protease	Protein degradation, neural homeostasis	(Koizumi et al., 2016; Sivá et al., 2016)
PSMA5	PSMA5 *Proteasome subunit alpha type-5*	Proteasome subunit	Protein degradation	(Finley et al., 2016)
MINDY2/ FAM63B	MINDY2 *Ubiquitin carboxyl-terminal hydrolase MINDY-2*	Deubiquitinase	Protein recycling	(Abdul Rehman et al., 2016; Maurer and Wertz, 2016)
UBE2L3/ UbcH7	UBE2L3 *Ubiquitin-conjugating enzyme E2 L3*	E2 conjugating enzyme	Mitophagy	(Nuber et al., 1996)
BLHM	BLHM *Bleomycin hydrolase*	Peptidase	Neurodegeneration	(Suszynska-Zajczyk et al., 2014)
TAX1BP1/ T6BP	TAX1BP1 *Tax1-binding protein 1* T6BP *TRAF6-binding protein*	Protein-binding	Autophagy, signalling	(Ling and Goeddel, 2000; Sarraf et al., 2020; Xiao et al., 2018)

1.1. DDI1 and DDI2

The most confidant Ube3a candidate substrate in the study in Drosophila was Rngo (*Ring lost*). Label-free quantification by mass-spectrometry and immunoblotting verified that Rngo was more ubiquitinated when overexpressing *Ube3a*, which resulted in the first *Ube3a* substrate to be validated *in vivo* in the context of a whole organism (Ramirez et al., 2018). Moreover, this protein was previously observed on a neuronal ubiquitome study performed by our lab (Franco et al., 2011). Such promising results entailed with the succeeding study to confirm if human UBE3A mediates ubiquitination of Rngo's human homologs: DDI1 (Ddi1 Homolog 1) and DDI2 (Ddi1 Homolog 2). *Saccharomyces cerevisiae Ddi1* has been described to function as a proteasomal shuttle protein as well as a ubiquitin-dependent protease, which cleaves substrate proteins only when they are tagged with long ubiquitin chains (Serbyn et al., 2020; Yip et al., 2020; Zientara-Rytter and Subramani, 2019). Human DDI2 has been described to be an ubiquitin-

directed endoprotease (Dirac-Svejstrup et al., 2020) and the identification of an ubiquitin-interacting-motif (UIM) that could work as an UBA domain, indicated also the possibility to work as a proteasomal shuttler (Sivá et al., 2016). Human DDI1 appeared through a retrotransposition event in hDDI2 and its function remains to be elucidated. In this context, we aimed to validate human DDI1 and DDI2 proteins as UBE3A substrates to later characterize their cellular function.

Prior to the validation of candidate substrates, we decided to test if the addition of a GFP tag to the substrate could difficult their ubiquitination. To test the suitability of the GFP tag for proper DDI1 ubiquitination, we tagged DDI1 either N-terminally (GFP-DDI1) and C-terminally (DDI1-GFP). After GFP pull-down, as shown in the Western blot, the detection of their ubiquitinated fraction displayed the same ubiquitination pattern for both constructs. The expression levels were high enough in both conditions for optimal GFP pull-down experiments, although the levels with the N-terminal tag (GFP-DDI1) were slightly higher (Figure 28).



Figure 28. GFP tag does not disrupt DDI1 ubiquitination. Immunoblotting of DDI1-GFP (C-ter tag) and GFP-DDI1 (N-ter tag) after GFP pull-down was performed in three different conditions (overexpression of UBE3A^{WT}, UBE3A^{LD} and PARKIN).

HEK293T cells were then co-transfected with N-terminally tagged DDI1 (GFP-DDI1) together with FLAG-tagged ubiquitin and they were expressed upon UBE3A^{WT} and UBE3A^{LD}. In this first validation we included two more conditions as controls; we co-expressed GFP-DDI1 with an empty vector (pCDNA3.1) and another E3 ligase (PARKIN), in order to test the correct expression of both UBE3A plasmids and to prove that the effect is specific to UBE3A E3 ligase. A clear

increase in GFP-DDI1 ubiquitination could be observed and quantified upon UBE3A^{WT} overexpression (Figure 29). Mono-ubiquitination band and poly-ubiquitination smear could be also clearly discriminated. In contrast, UBE3A^{LD}, PARKIN and pCDNA3.1 control samples showed the same ubiquitination levels and no changes in total protein levels were observed; total GFP-tagged DDI1 levels were equivalent in all samples. Since differences in ubiquitin availability within the samples or a deficient UBE3A expression could affect the resultant DDI1 ubiquitination, we analysed input samples of the cell lysates as quality control. Equivalent ubiquitin levels were obtained in all samples and the correct expression of UBE3A was ensured (Figure 29). The increase in DDI1 ubiquitination in presence of UBE3A^{WT} validates DDI1 as a UBE3A substrate in HEK293T cells.





Figure 29. DDI1 is a UBE3A substrate in HEK293T cells. DDI1 ubiquitination was detected by Western blot upon overexpression of wild-type UBE3A ($UBE3A^{WT}$), ligase dead UBE3A ($UBE3A^{LD}$), Parkin E3 ligase (PARKIN) and control vector (pCDNA3.1) in HEK293T cells. Anti-FLAG antibody (red) was used to detect the ectopically expressed ubiquitin, whereas the non-modified GFP-tagged DDI1 was detected by anti-GFP antibody (green). UBE3A overexpression was confirmed in whole cell lysates using anti-UBE3A antibody (Input UBE3A) while the FLAG signal in the inputs corroborated equivalent transfections in all samples [Input FLAG-(Ub)]. Quantification of Western blots was performed with ImageLab, by normalizing the FLAG intensities to the GFP signal. The analysis showed a statistically significant increase of GFP-DDI1 ubiquitination upon $UBE3A^{WT}$ overexpression in comparison to overexpression of $UBE3A^{LD}$ [one-way ANOVA, ***p-value < 0.0001, (mean ± S.E.M.,n = 3)].

Similar results were obtained in SH-SY5Y neuroblastoma cells. Western blot analysis after GFP pull-down of cell lysates overexpressing GFP-DDI1 and FLAG-Ub in presence of $UBE3A^{WT}$, $UBE3A^{LD}$ or control pCDNA3.1 showed a significant increase in DDI1 ubiquitination upon $UBE3A^{WT}$ overexpression (Figure 30). In accordance to the results obtained in HEK293T cells, total ubiquitination levels were equivalent in all samples. The ubiquitination of UBE3A is thought to be a degradation signal, but no decrease in protein levels of DDI1 upon UBE3A expression suggested rather a non-degradative role.



Figure 30. DDI1 is a UBE3A substrate in SH-SY5Y cells. DDI1 ubiquitination was detected by Western blot upon overexpression of wild-type UBE3A (UBE3A^{WT}), ligase dead UBE3A (UBE3A^{LD}) and control vector (pCDNA3.1) in SH-SY5Y cells. Anti-FLAG antibody (red) was used to detect the ectopically expressed ubiquitin, whereas the non-modified GFP-tagged DDI1 was detected by anti-GFP antibody (green). UBE3A overexpression was confirmed in whole cell lysates using anti-UBE3A antibody (Input UBE3A) while the FLAG signal in the inputs corroborated equivalent transfections in all samples [Input FLAG-(Ub)]. Quantification of Western blots was performed with ImageLab, by normalizing the FLAG intensities to the GFP signal. The analysis showed a statistically significant increase [one-way ANOVA, ***p-value < 0.0001, (mean ± S.E.M.,n = 3)] of GFP-DDI1 ubiquitination upon UBE3A^{WT} overexpression in comparison to overexpression of UBE3A^{LD}.

We next studied if the other human homolog of *Rngo*, DDI2, is also a UBE3A substrate. We co-transfected HEK293T and SH-SY5Y cells with FLAG-ubiquitin and a C-terminally tagged DDI2 (DDI2-GFP), in presence of UBE3A^{WT} or UBE3A^{LD}. In SH-SY5Y cells no sufficient ubiquitinated material could be detected to quantify the differences in ubiquitination in both conditions. It is likely that due to lower transfection efficiencies in SH-SY5Y neuroblastoma cells the expression of DDI2 is so low that scapes Western Blot detection. In parallel, GFP pull-down of HEK293T cell lysates and their Western blotting confirmed that the ubiquitination of DDI2 was UBE3A dependent, since its ubiquitination pattern was enhanced in presence of UBE3A^{WT} compared to the UBE3A^{LD} sample (Figure 31). Similar to DDI1, DDI2-GFP levels remained constant within the samples. We also confirmed the same transfection efficiencies in all samples and the correct expression of UBE3A. Since both UBE3A constructs are FLAG tagged, we checked if UBE3A could be detected simultaneously with the ubiquitination smear using anti-FLAG antibody, due to its easy-of-use and the low efficiency of the anti-UBE3A antibody. The UBE3A band at 100 kDa could be discriminated from the ubiquitination smear, therefore, anti-FLAG antibody was favoured to detected UBE3A in future experiments. Altogether confirmed that DDI2 is a real UBE3A substrate in HEK293T cells and proved that DDI2 UBE3A-mediated ubiquitination does not lead to its degradation.





Figure 31. DDI2 is a UBE3A substrate in HEK293T cells. DDI2 ubiquitination was detected by Western blot upon overexpression of wild-type UBE3A (UBE3A^{WT}) and ligase dead UBE3A (UBE3A^{LD}) in HEK293T cells. Anti-FLAG antibody (red) was used to detect the ectopically expressed ubiquitin [FLAG-(Ub)], whereas the non-modified GFP-tagged DDI2 was detected by anti-GFP antibody (green) [GFP-(DDI2)]. UBE3A overexpression [Input FLAG-(UBE3A)] and equivalent transfections [Input FLAG-(Ub)] were confirmed in whole cell lysates using anti-FLAG antibody, while DDI2 transfection was corroborated by anti-GFP antibody [Input GFP-(DDI2)]. Quantification of Western blots was performed with ImageLab, by normalizing the FLAG intensities to the GFP signal. The analysis showed a statistically significant increase of DDI2-GFP ubiquitination upon UBE3A^{WT} overexpression in comparison to overexpression of UBE3A^{LD} [*t*-test, ***p-value < 0.0002, (mean ± S.E.M., n = 4)].

1.2. PSMA5

PSMA5, Proteasome subunit alpha type-5, was described as a putative UBE3A candidate substrate in our lab on a preceding experiment performed in mice. It is a component of the 20S core proteasome complex that is involved in the proteolytic degradation of most intracellular proteins (Finley et al., 2016). It has been related to cell proliferation, migration and invasion (Fu et al., 2019) and it shows high expression in several types of cancer (Li et al., 2016b).

The PSMA5 gene was amplified from a vector kindly provided by Dr. Ebstein and introduced into a vector carrying either an N-terminally or C-terminally GFP tag. None of the constructs displayed the minimum protein expression require for the study of ubiquitination. We therefore opted for a commercial PSMA5-GFP plasmid (Sino biological) which showed high expression levels in comparison to our previous cloning constructs.

PSMA5-GFP construct and FLAG-tagged ubiquitin were co-transfected into HEK293T cells together with UBE3A^{WT} or UBE3A^{LD}. Immunoblotting of the eluted fraction after GFP pull-down detected a clear mono-ubiquitination band and a

less intense ubiquitination smear, so differences in both type of ubiquitination were quantified separately and normalized to GFP expression levels. Analysis showed that PSMA5 total ubiquitination significantly increased upon UBE3A^{WT} overexpression, but no significant increase was observed for the mono-ubiquitination band (Figure 32). Analysis of the inputs showed equivalent transfection of ubiquitin and PSMA5-GFP in all the samples, as well as correct UBE3A overexpression (Figure 32). In conclusion, we could prove that UBE3A mediates PSMA5 ubiquitination in HEK293T cells.



Figure 32. PSMA5 is a UBE3A substrate in HEK293T cells. PSMA5 ubiquitination was analysed by Western blot in presence of wild-type UBE3A (UBE3A^{WT}) and ligase dead UBE3A (UBE3A^{LD}). Anti-FLAG antibody (red) was used to detect the ectopically expressed ubiquitin [FLAG-(Ub)] and the non-modified GFP-tagged PSMA5 was detected by anti-GFP antibody (green) [GFP-(PSMA5)]. UBE3A overexpression [Input FLAG-(UBE3A)] and equivalent transfections [Input FLAG-(Ub)] were confirmed in whole cell lysates using anti-FLAG antibody, while anti-GFP antibody was used to check PSMA5 transfection [Input GFP-(PSMA5)]. Quantification of Western blots was performed with ImageLab, by normalizing the FLAG intensities to the GFP signal. The analysis showed a statistically significant increase of PSMA5-GFP total and poly ubiquitination upon UBE3A^{WT} overexpression (Total Ub and Poly Ub) in comparison to overexpression of UBE3A^{LD} [*t*-test, *p-value < 0.05, (mean ± S.E.M.,n = 3)]. In contrast, no significant differences were observed in the mono-ubiquitination band (Mono Ub).

